



## PASTORALA XARETAN

Zugarramurdiko, Urdazubiko, Ainhoa eta Sarako ehun herritarrek baino gehiagok parte hartuko dute urriaren 15ean eta 16an Zugarramurdin eta 22an eta 23an Saran eginen duten pastoralean. / 8

MENDI URRUZUNO

## Talo Egunean Saralegi gogoan

Igande honetan Talo Eguna eginen dute Leitzan eta otsailean zendu zen Kristina Saralegi omenduko dute / 28

### SINADURAK



HARITZ  
BEREAU  
MUTUBERRIA / 3

AITOR  
AROTZENA  
ALBIZU / 3

NEREA  
ZABALETA  
LASARTE / 4

JOANES  
ILLARREGI  
MARZOL / 4



ZOZKETA / 59



**Andrea Irazoki  
Berako genetista  
Danimarkan  
ikerketan** / 11



**Nafarroako konkista  
hizpide duen liburua  
argitaratu du Pedro  
Mari Esartek** / 36

**Dorrealdia  
elkartasun jaialdia  
asteburu honetan  
Donamarian** / 24

**Behi piriniotarren  
feria irailaren 24an  
eta 25ean eginen  
dute Elizondon** / 33

# aurten ere



# euskara ikaSI!



euskara erazago egiten

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**  
Lesaka - Matxinbeltzenea  
Tel. 948 637 796  
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**  
Doneztebe - Rosa Seminario, 6  
Tel. 948 451 555  
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

**LEITZAKO EUSKALTEGIA**  
Leitza - Euskal Herria Plaza, 1  
Tel. 948 610 776  
leitza@ikaeuskaltegiak.eus

**DIRUZ LAGUNDUTA**

**MATRIKULA ZAITEZ**  
irailaren 30a baino lehen

**www.ikaeuskaltegiak.eus**








**BKI-Nafarroa Abenturak** Baztango haur - gazte - heldu eta kolektiboel gonbidapena egiten die **Baztan Park** gunea hobe ezagutzeko. Harregatik, Udazkeneko igande arratsaldetan hainbat eskalntza baztandarren esku jartzen ditu.

**Ezagutu**  
Baztandarrendako aisialdi gunea

# BAZTAN

## ABENTURA PARK

**ELIZONDO**

**KAINOI-AKUAPARK (60 plaza)**  
(Rappelak, ferrata bidea, txiristak, putzura saltoak...)  
**8 urteik goitikoendako**  
ORDUA: 15:00  
IRAILAK 11: BASABURUKO KUARTELA.  
IRAILAK 18: BAZTANGOIZAKO KUARTELA.  
IRAILAK 25: ELIZONDOKO KUARTELA.  
URRIAK 2: ERBEREKO KUARTELA.  
Ekartu behar da : zapatilak bustitzeko, bainujantza eta 10eila

**PENDULUA (35 plaza)**  
18 urteik goitikoendako  
ORDUA: 14:30etik aitzinera orduro  
URRIAK 16  
Gazte sentitzen diren baztandarrendako

**TIROLINA ZIRKUITU HANDIAK (80 plaza)**  
4 tirolina erraldoi  
ORDUA: 15:00etan eta 16:30ean  
URRIAK 9  
Baztango kolektiboekin lan egiten duten pertsonak eta elkarfeak; Poxxonea, Xaul, emigranteekin lan egiten dutenak, boluntarioak...

**TIROLINA ZIRKUITU TXIKIAK (80 plaza)**  
4 tirolina txiki  
8 urteik behelikoendako  
ORDUA: 14:30ean eta 16:00etan  
URRIAK 16




**450 PLAZA DEBALDE**

Plazak inskripzioak bete ahal izango dira.  
IZEN EMATEAK: Abuztuaren 29tik aitzinera (astegunetan goizez)  
☎ 948 59 23 22 INFO+ bki@navarraaventura.com





## NIRE TXANDA

HARITZ BERAU MUTUBERRIA

### Gatazkak dirau

Abuztuan egin zen Europako Atletismo Txapelketa nagusia eta Asier Martinez Zizurko gazteak 110 metroko hesidun lasterketan erakustaldi ederra egin ondotik urrezko domina eskuratu zuen. Nafarrak egindako markak zer erran handia eman zuen, 22 urte izanik, Europako txapelketa nagusian garaile izan baitzen. Hala ere, Zizurko gaztearekiko solasak ez ziren egindako markaren ingurukoak soilik izan. Lasterraldia akitu bezain pronto, garaipena ospatzen ari zela, piperpotoa eman zioten, hura zabaldu eta erakusteko asmoz.

Espainiarren atsekaberako, momentu bakar batean ere ez zuen hura eskegi eta ekintza horrek gaztearekiko mespretxu jarreak piztu zituen.

Espainiar nortasunaren inposizioa estatuaren estrategiaren parte garrantzitsuenetarikoa da eta kasu honetan kirol arloan Euskal Selektzioaren ukazioa eta bandera zabaltzeko saiakera, horren adibide dira. Kulturalki menperatzeko ahaleginetan dabilzan garai hauetan ez gaitezen engaina, herri zanpatua izaten segitzen dugu.

**«EZ GAITEZEN  
ENGAINA, HERRI  
ZANPATUA IZATEN  
SEGITZEN DUGU»**



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Hemen gara bueltan

Berriz ere koadernoak eta karpetak motxilan sartu eta hemen gara bueltan. Beroarekin nazkatu ginen, baina jertsea eta galtza luzeak jantzi beharra ere ez zaigu sobera gustatzen. Bukatu dira (gehienetan) herriko bestak. Udazkena begira-begira dugu. Aldizkari honek ere hamabosteroko martxari ekin dio. Errutina behar omen dugu. Hala bedi.

## NABARMENTZEKOAK



**AINHOA  
ETXEGARAI**  
KIROLARIA



**PEDRO MARI  
ESARTE**  
HISTORIALARIA

Sasoi ederrean dagoela erakutsi du Ainhoa Etxegarai kirolari beratarrak. Nafarroako lokotx biltze txapelketa eta Sarako Kontrabandisten lasterketa irabazi ditu abuztuan.

Nafarroako 1512 eta 1524 urte arteko gizarteari eta konkistari buruzko liburua argitaratu du Elizondoko Pedro Mari Esartek. Artxibo lanean egindako ikerketa da liburuaren muina.

## GIBELERA BEGIRA



2012-09-06 · TTIPI-TTAPA · 573 zk.

### Aspaldiko abuzturik beroena 2012an

Duela 10 urte, aurtengo udan bezala, beroa zen albiste. 2012ko abuztua bereziki hilabete beroa izan zen, eta termometroetan «datu historikoak» ikusi zituzten. Abuztuaren 17a izan zen egunik beroena, eta Iruritako eta Lesakako estazio meteorologikoetan neurtu zituzten tenperaturarik altuenak, 42 graduta-koak. Media historikoak ere gainditu zituzten abuztuko maximoek. Doneztebeko estazio meteorologikoan abuztuko media 2011koarekin alderatuz 0,7 gradu igo zen. Gorramendin, are gehiago nabaritu zen igoera, 2011ko abuztuan 18,5 gradukoa zen, eta 2012an, aldiz, 22,5koa. Prezipitazioa ere eskas zen, Donezteben, erraterako abuztuan jasotzen zen ohiko prezipitazioa erdira baino gehiago murriztu zen.



**erran.**  
eus



**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,  
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garnio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apeztekoa  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreko Zerbitzuen Mankomunitatea.  
**2022ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 42  
Leitza 33  
Hego Euskal Herria 50  
Ipar Euskal Herria, Europa 98  
Amerika eta Australia 147



## KOLABORAZIOAK

NEREA ZABALETA LASARTE

## Lidergo feminista

Urteak daramazkigu salatzen lidergo lanpostuetan dagoen genero desoreka. Zenbakiak hor daude: emakume gutxiago gara botere eta soldata haundiko lanpostuetan. Nabaritu izanen duzu ez dudala esan ardura haundiko lanpostuetan, orokorrean zaintza lanak emakumeak egiten baititugu (irakasle, haurren zaintza, helduen zaintza, etab.) eta ardura handiko lanpostuak dira, nahiz eta gizarteak ez dituen behar bezala aintzat hartzen. Horretaz gain, unibertsitate karrera gehienetan genero errepresentazio orekatua dago, baina ondoren, karrera profesionalean aurrera egin ahala, gero eta emakume gutxiago daude. Fenomeno horri ingelesez *leaky pipeline* (ihesak dituen hoditeria) deritzo. Artikulu honetan ez duk meloi hori ireki nahi, baina egoera hau muturrekoa da arraza gutxiengoentzat, LGBTQ+ kolektiboko pertsonentzat, aniztasun funtzionala duten pertsonentzat eta beste hainbat gutxiengorentzat.

Nire arloan, ikerketa zientifikoan, lidergo postuak (unibertsitateko zuzendari, farmazeutika haundien lehendakari, etab.) gizonetakoak betetzen dituzte kasu gehienetan. Aurreiritziak eta gizartearen antolaketa dira arazo horren jatorri nagusia, baina gaurkoan beste traba bati buruz hitz egin nahiko nuke: lidergoaren prototipoa.

### «POSIBLE AL DA LIDERGO FEMINISTA LORTZEA?»

Emakumeok gure karreraren aurrera egin ahala eta postuak igotzen goazen heinean, gero eta errepresentazio gutxiago dugu, eta beraz, gero eta bakarrago gaude. Bat-batean konturatzeko gara lider izatera iristeko prototipo bat bete behar dugula: autoritarioak, pixka bat bihotzgabeak eta oso formalak izan, segurtasun haundiarekin jokatu eta hitz egin, iritzi oso gogorrak eta sendoak eduki, ez da dudarik, ahultasunik edo akatsik onartzen. Gizon liderren prototipoa bete beharra dugu gure lankideek eta langileek pentsatzeko lanpostu hori merezi dugula, eta aldi berean sorgin bat zarela pentsatzen dute. Gizonek jarrera hori hartzen dutenean lider ontzat ikusten ditugu. Beste jarrera bat hartzen baduzu (inklusiboa, denon iritzia kontuan hartuta, mentoretzan zentratua, onartuta ez zarela perfektua eta ez duzula beti arrazoi, jarrera erlaxatuagoarekin, inori tonu gogorrean hitz egin gabe, informazioa eta hurbilagoa) ez zaituzte errespetatzen eta zailagoa da zure maila berean daudenek seriotzat hartzea, beraz, zailagoa da lanpostuetan gora igotzea eta itzalpeko lider bilakatzen zara. Orduan, ze aukera daude? Sorgin bihurtu edo zure izaera mantendu zure karreraren aurrera egitearen kostuan? Edo posible al da lidergo eredu aldatzea? Posible al da lidergo feminista lortzea?

Egia esatea nahi baduzu, irakurle maitea, ez dakit zein den galdera horien erantzuna. Badakitena da gai honi buruz hausnartu eta eztabaidatu beharra dugula, kontzientzia sozialaren «aldatu beharren lista» luze horri ere gai hau gehitu behar zaio.



JOANES ILLARREGI MARZOL

## Bukatu da

Abuztuaren amaierarekin eta irailaren etorrerarekin esan dezakegu uda amaitu dela. Urtaro modura oraindik ere egun batzuk geratzen zaizkion arren bizi-esperantzan, uda denboraldia amaitutzat eman dezakegu ikasturtearen iritsierarekin. Garai triste edo aldapatsutzat jotzen da askotan ikasturte hasiera, oporraldiak bereak eman ondoren errutinara itzulerako delako, eta horri kutsu negatiboa ematen zaio (diogu).

Bukatu da txankletekin kalera irtetea, asteburu inguruko herriren batean festak izatea, tirantedun kamiseta jartzea, pertseida garaia, gauez terraza batean izozki bat jatea, hondartzan edo igerilekuan botata edo bainu bat hartuz arratsaldea igarotzea, udarako maitasun istorioak (eduki dituenarentzat), eguzkitarako betaurrekoen erabilera masiboa, etxean kamisetarik gabe ibiltzea, entsalada eguneroko menu izatea, igande ilunabarrez astelehena kostaldean pasatzea...

Esanen nuke guztioi (edo ia guztioi) gustatzen zaizkigun gauzak direla horiek guztiak. Pena pixka bat eman dezake hori atzean uzteak, baina hostoen erorrerak badakartza udarak eskaintzen ez dizkigun beste hainbat plazer ere. Berekin dakar aurreko negutik itxita egon den armairua ireki eta neguko arropak eta txamarrak ateratzea, ostiral iluntze batez lagunekin pelikula bat ikusteko geratzea, mendiko botekin

### «APROBETXATU ZEROTIK HASI ETA ORAIN ARTE EGIN GABEOA EGITEKO»

kalera ateratzea, inguruko mendiak berdetik laranja kolore nola pasatzen diren ikustea (aurten nahi baino gorriago eduki ditugun arren), egun osoa izerditan ez pasatzea, perretxiko bila joatea, bertsolari txapelketa bueltan izatea, batzuentzat futbol ligaren itzulera ere pozgarri izanen da, desorduekin amaitu eta bizitza pixkanaka ordenatzen joatea...

Udak desordenatik izan dezakeen adina izan dezake udazkenak ordenatik, eta nire ustez horrek ez du ezer txarrik. Ikasturtean zehar pilatutako zamak eta ardurak alboratuta egon dira bi hilabetez, baina berriro ere horiei eusteko garaia da. Noski beharrezkoa dugula desinhibitzea eta buruari arnas hartzen uztea, baina amaierarik ez duen etengabea uda batean bizitzea ez zait aukerarik egokiena iruditzen.

Gogotsu heltzen diot udazkenari, ziklo berri baten hasiera modura ulertzen baitut. Berriro hasi eta eraikitzeke garaia da, etorkizunean non egon nahi duzun proiektatu eta hara bidean lehenengo pausoak erabaki eta emateko garaia. Beroarekin burutik ihes egindako zentzua freskurarekin berriro bueltan etortzen delakoan nago, eta dagokion prismaite begiratzen baldin bazaio gozatzeko aroa izan daiteke berdin-berdin, edo gehiago.

Beraz gorde txankletak armairuan, hasi udazkeneko arropa lodixegoak ateratzen eta udan zehar bildutako energia, oroitzapen on eta deskantsuak baliatuz ekin gogotsu orain arte izandako ikasturterik garrantzitsuenari. Joandakoak joan ziren, datozenak etorriko dira; baina bitartean aprobetxatu berriro ere zerotik hasi eta orain arte egin gabekoa egiteko.



## 11 GALDERA LABUR

AMAIA TABERNA LIZASO LESAKAKO TRIKITILARIA

# «Trikitixa probatu eta nire tokia harrapatu nuen»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Geldirik gutti egoten dakien neska gazte eta saltseroa.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Mendia, musika eta bidaiatzea.

**Zer ikasten ari zara?**

Haur eta Lehen Hezkuntza gradu bikoitza egiten ari naiz Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Iruñean.

**Noiz hasi zinen trikitixa jotzen?**

Zortzi urterekin hasi izanen nintzen, eta berandu arte segitu nuen trikitixa klaseetara joaten. Orain nire kabuz jotzen segitzen dut, gutti bada ere.

**Zergatik?**

Sei urterekin hasi nintzen lagunekin panderetan, eta hagitz gustura egoten ginen. Haundiagoak trikitixa nola jotzen zuten ikusten nuen eta aunitz

gustatzen zitzaidan. Horren harira, probatu eta nire tokia harrapatu nuen bertan.

**Hor Dun Koxka taldean jo duzu. Nola sortu zen?**

Bai. Trikitixa munduan betiko lau lagunek jarraitu genuen, eta trikitizale amorratuak ginen. Aunitz elkartzen ginen eta talde bat sortzeko ilusioa sortu zen. Hasierako talde horri bertze trikitilari bat ere gehitu zitzaion beranduago eta saiakera egin genuen behintzat!

**'Kateak hautsita' kanta grabatu zenuten 'Haziak II' diskorako. Nolako esperientzia izan zen?**

Bai, eta egia erran esperientzia hagitz aberasgarria izan zen, eta hagitz oroitzapen politak gelditu zaizkigu hartatik. Irri ederrak egin genituen, eta



errepikatzeko gogoia ere badugu!

**Bertze talderen batean jo duzu?**

Ez, Hor Dun Koxkan bakarrik jo izan dut. Oraingo nahiko geldirik dago proiektua, baina aukerarik izango bagenu berriz elkartzen saiatuko ginatke berriz ere hasteko.

**Trikitixaren munduko erreferentziako artistarik al duzu?**

Ez dut erreferente zehatzik, baina izugarri disfrutatzen dut Nafarroako Trikitixa Jaialdiko afarian jotzeko proposatzen

diren abesti guziak ezagutzen eta jotzen dakizkiten trikitilari horiekin. Hori da hori meritua!

**Zure asmoak epe motzera?**

Egiten ari naizen ikasketak bukatu eta betikoekin berriz elkartzeko aukera izatea, Hor Dun Koxka berriz ere martxan jarritz, egiten genituen irriak berreskuratzeke.

**Eta epe luzera?**

Irakasle izanik nire zaletasunak indartzea bidaiatuz eta bizitzaz gozatuz!



1951tik  
**Casa Cambra**  
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak  
Mantelak  
Kuxinak  
Edredoi nordikoak  
Ohe estalkiak  
Maindireak  
Toailak  
Edredoi-azal nordikoak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Zoriontasun eza****ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

Bizitzak gorabehera asko izaten ditu. Ibilbidea luzea baldin bada, askoz gehiago. Kanpotik, denok edo gehienok, antzeko umorez gabiltzala dirudi. Ez gara hainbeste desberdintzen. Gure familiak, lagunak eta herriak antzeko ohituretan oinarritzen dira, eta gure bizitzak ez dira oso desberdinak.

Agerian egiten dugun bizitzak, berriz, askotan ez du zerikusirik bakoitzak barrutik bizi duenarekin. Horregatik ekintza gogor eta zorizaiztoko bat gertatzen denean, auzotarrak, askotan, harrirituta azaltzen dira komunikabideen aurrean, egileak bizitza guztiz normala egiten zuela esanez. Kasu horiek adierazten digute, besteak beste, ageriko bizitza eta barnekoa ez datozela bat, eta sarritan, itxura baten azpian, penak golkoan gordetzen direla.

Normalki, inori ez zaio gustatzen bere arazoak jende aurrean azaltzea. Esaerak dio Trapu zikinak etxean garbitzen direla. Hala ere, ez dira falta etxeko edo senideren baten zorizaiztoko gertaeren bat ezpainetan dabiltzanak. Baina gehiago izaten dira besteen arazoaren esamesetan aritzen direnak. Komunikabideek ere ez digute asko laguntzen baikorrak izateko. Mundu guztian gertatzen diren zorizaiztetzek betetzen dituzte lehenengo orrialdeak, eta telebistan lehenengo

berrien artean azaltzen dira. Geure bizitzako arazo pertsonalei komunikabideetan agertzen direnak gehitu behar zaizkie, eta horrek ez digu laguntzen. Ahalegintzen gara bizitzari aurpegi baikorra jartzen, baina ez dugu beti lortzen. Horregatik, ez da harritzekoa aurpegi ilunak nahi baino sarriago ikustea.

Ezkorrek izateko arrazoi asko ditugu. Baina irabazi baino galtzeko gehiago izango dugu erabaki ezkorrek hartzen baditugu. Bizitzako helburu nagusietako bat arazoak gainditzen ahalegintzea da. Haur, gazte, heldu eta zahar, azken batean denei bidea samurtzen saiatzen bagara ere, ezin da ahaztu saihetsezinek arazoekin aurkituko garela. Zahartzarora heldu direnek badute eskarmentua, askotan egon direlako zailtasunen aurrean. Baina gazteek eta hurrek batez ere, ez dute horrelako egoerarik ezagutu, eta, logikoki, gehiago kostatzen zaie arazoei aurre egitea.

Bizitza korapilatsua da denontzat, eta irteerak ez dira samurrak. Horregatik, ez da harritzekoa hainbeste kezka eta protesta izatea kale eta komunikabideetan. Azken baten, zoriontasun eza agerian agertzen da behin eta berriz. Hala ere, bizitzaren alde baikorrek lehenetsun izan behar dute. Bide egokiena omen da alde ezkorrek gainditzeko.

**Giltzarik ezin aurkituta****IMANOL IBAIBARRIAGA URKIRI**

Normalean 'Irakurleak mintzo' atalean irakurleak bere iritzia lau haizetara zabaldu nahi du gainontzeko irakurleak jakinarenean gainean egon daitezenean duen kezka, horrela konponbiderik izan lezakeen arazoren bat eztabaidagai bihurtu liteke, eta idatzitako kartak bere eraginez argitxoren bat piztu giltzarik ezin aurkituta dabiltzanei. Azken batean, irakurleak gara aldizkaria egiten dugunok, irakurlerik gabe ez legoke aldizkaririk. Nik, neure zulutik idazten ari natzaizun irakurle, nire esker ona luzatu nahi dizut: hasteko euskaraz irakurtzen zaudelako, bigarrenaz ulertzen ahalegintzen ari zarelako zer demontre erran nahi dudana, eta hirugarrenez akitu arte jarraituko duzulakoan idazten segitzen dudalako.

'Irakurle atala', 'Zuzendariari gutuna' atalarekin lotzen dut, beraz izenburu bat paratu beharko diot akitzean (ume nintzela lehendabiziz titulua eta gero testua idatzi behar zela uste nuen) eta ondoren nire izen abizenak eta NANA paratu. Izenburua, idatziaren garapena eta izen-abizenak karneta eta guzti eta ezer erratekorik ez, hau da marka, soilik euskara erabiltzearen plazera. Baten batek pentsatuko du eskribitzen ari naizenak ez duela ez buru ez hankarik, baina euskara erabiltzeko arazoaren bat behar da ala?

Naturaltasunez, berez ateratzen zait niri eta berezotasun honi gorazarre egin nahi diot, zeren ezer apartekorik kontatzeko izan gabe, zuk euskaraz irakurtzeko ohitura duzun horrek irakurri nauzu, besterik gabe. Denbora pasa kuriositatez hasieran, esfortuz gero eta harriduraz akitzean; besterik gabe, ezer errateko aparteko barik euskaraz aritu gara lagun, eta ez da gutxi, zeren erabileraren plazera da hizkuntzaren giltzarik aurkituta ezin gabiltzanoi etorkizunaren ateak ziurtatuko diguna, ala ez? Auskalo, erabili eta disfrutatu.

**ETB3, Nafarroa guztian 2023rako?****FERMIN ZABALZTA ALEMAN**

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

2020ko maiatzean, Nafarroako Parlamentuan, gobernuko bozeramaile Javier Remírezek (PSN) esan zuen «ahal zuten guztia» egiten ari zirela ETB3ren seinalea Nafarroa guztira zabaltzeko. Egia esan, «ahal zuten guztia» izan zen Espainiako Gobernuari eskatzea, harena baita eskumena, eta haren ezetza jasotzea. Eta kito.

2021eko azaroan, Espainiako aurrekontuak onesteko negoziazioetan, EH Bilduk lortu zuen Espainiako Gobernuak hitzmatea ETB3ren seinalea Nafarroa guztira zabalduko zela 2022. urtea bukatu baino lehen.

**IRAKURLEAK MINTZO**

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



Euskaltzaleak poztu ginen, euskararen kontrakoek zalaparta sortu zuten... eta abuztura iritsi gara, eta ez dugu auzi honi buruzko berri gehiago. PSOEk hitza betetzeko asmorik bai al du?

**Agiñako lepoko oroit gunea non da?**

**JEXUX AIZPURUA BARANDIARAN**

Udako berotik ihesi, goietako pagadietara igotzeko tenorea da. Harrespilak (J.M. Barandiaran Aierbe, Manuel Laborde Werlinden, Tomas Atauri Manchola /Luis Peña Santiago), Vallet-en baseliza eta beirateak, Oteizaren harri beltzeko eskultura (1992ko abenduan mailukadez ertzak hondatua) eta Memoria Historikoaren inguruan 2020an ezarri zen oroit-gunea (1939-42ko bortxazko lanak) dira, besteak beste,

Agiña mendiaren bereizgarriak. Endara aldetik nahiz Lesakatik igota bertaratu daiteke eta inoiz desegiten den bakearen gunea dirudi.

Maiatzaren 27an ere izan nuen horiek guztiak ikusi eta miresteko aukera, baina abuztuaren 9an lepoan etenaldia egitean, zutikako informazio-panelaren aztarnarik ez zegoela ohartu naiz; oinarria bai. Zer gertatu da?

Beheraka, Endarako urtegiaren alboko San Antonera iristean, Agiñan desagertutakoaren bikia topatu dut ermitaren goiko sarreran. Lesakako Erdiko errotan ere bada beste bat.

Berrezartzea litzateke onena, ahanzturan gera ez dadin eta Memoriak etenik izan ez dezan.

Aitzakia ezin hobea Agiña aldera edozein urte sasoitán hurbiltzeko.



ANA GALAR ARIZTEGI

**BOTA BERTSOA**

**ZIORTZA GOIA MITXELENA**  
BERAKO BERTSOLARIA  
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER  
LEHIAKETAN C MAILAN 1. SARIA



**Heltzeko goizegi**

Doinua: Betroia

*Maiatzaren hondarra  
kantari txoria  
kurtsoa pasatzea  
da teoria  
selektibitateko  
landu memoria  
abudo erabaki  
behar dut zoria  
Antropologia  
Gaizkia ongia  
Ta psikologia  
Edo historia  
Heldu denari hartu  
diot fobia.*

*Aunitz ikasi eta  
lana egitea  
betiko esaera  
a ze txistea  
gradua egiteko  
gogoa piztea  
hilaute azkenera  
ozta iristea  
ateak istea  
ez da albistea  
besta murriztea  
ez al da tristea?  
Zuzen bizitzen hasi  
ta irristea.*

*Azterketak egiten  
Ekainan astea  
bizitza lasaiakin  
ze kontrastea  
horrela ezin da bat  
sentitu gaztea  
gurasoek nahi dute  
lanean hastea  
burua nahastea  
edo ikastea  
hau da desastrea  
hobe ahaztea  
gaurtik hasita izan  
nahi dut askea.*

*Gizarteari egin  
nahi diot kritika  
ta honekin sortuko  
da polemika  
IKAMA ta IAREN  
arteko kimika  
sistemen inguruan  
a ze ikamika  
euskal politika  
herri erotika  
hau nola esplikatu  
ja nago nahasita  
terapien eskatu  
beharko zita.*





'Maddiren trajeria' pastoraleko parte hartzaileak uztailean egindako mustraka orokorraren ondotik. Denera ehun parte hartzaile baino gehiago izanen dira pastoralean, Xaretako

## Xareta oholtza berean elkartu duen pastorala

'Maddiren trajeria' pastorala emanen dute urriaren 15ean eta 16ean Zugarramurdin eta Saran 22an eta 23an. Iazko urrian hasi ziren proiektuarekin, urtebeteko lanaren ondotik etorriko da emaitza. Denera Xaretako ehun pertsonak baino gehiagok hartuko dute parte pastoralean

### A.LARRETXEA

Oreina bilakatzen den Maddiren istorioa. Horixe da Zugarramurdiko, Urdazubiko, Ainhoako eta Sarako herritarrek *Maddiren Trajeria* pastoralean emanen duten kontakizuna. Lau herri horiek elkarrekin, eta Zuberoan hain ezaguna den antzerki moldean, pastoralean emanen dute.

Eskualdean egiten den bigarren pastorala izanen da Xaretakoa. Etxalarren egin zuten lehenengoa 2017an, eta kasu horretan, espresuki Etxalarrekin harremana zuen historia bat zen muina, Karmen Etxalarkoaren bizitza edo kontakizuna. Oraingoan, ordea, Europako literatura tradizioaletik hartutako kontakizuna da emanen dutena, eta beraz, ez da bereziki Xaretarako presatua, edo espresuki bertara-

ko sortua. Errejenta edo zuzendaria eta idazlea aitzineko berberak ditu: Pantxika Urruti zuberotarra eta Gerardo Mungia iruindarra. Horiekin batera, Patrick Calvet da musikariaren arduraduna, Marilyns Daguerre kantoreen eramailea eta Allende Izal dantzen era-



«OHIKO MOLDEKO PASTORALA IZANEN DA»

GERARDO MUNGIA

mailea, eta Garbiñe Azpitarte laguntzailea.

Jabier Yabenek hala proposatuta ailegatu da Xaretara pastorala. «Jabierrek bazekien nik pastoral hau idatzi nuela, eta erran zidan Zugarramurdin egitea proposatzeko», azaldu du Gerardo Mungia pastora-



«PASTORALEAN KONTATZEN DENA FIKZIOA DA»

PANTXIKA URRUTI

laren idazleak. Erran eta egin. Zugarramurdin proposatu eta hauek baiezkota eman zuten, baldintza batekin, ordea: «Ageru zirelarik ikusten genuen pastoral bat sekulako lana izanen zela, eta Zugarramurdin jende gutxi ginela. Horregatik, hasieratik argi ikusi genuen Xareta mailara zabalitzea», azaldu du Helena Xurio pastoraleko parte hartzaileak. Beraz, lau herrietako herritarrek ari dira lanean, eta baita Xaretatik kanpoko bakanen bat ere.

Urrian hasi ziren lehen bilkurak egiten, pastoralean informazioa lau herrietara zabaldu eta egitasmoa aitzinera aterako zen ikusteko, eta mustraka batzuk egin ondotik, apirilean baieztatu zuten behin betiko egingen zutela. Urtebeteko lana, dago beraz *Maddiren Trajeria* lanaren gibeletik. Dena aitzinera ateratzeko zazpi lan talde osatu dituzte: musika, dantza, kanta, arropa, finantzaketa, publicitatea eta eguneko antolakuntza. Denera 100 lagun baino gehiago inplikatu dira proiektuan, horietatik 70 inguru dira ari-zaleak, 13 musikaririk osatutako taldea dute lagun eta bertze aunitz bertzelako lanak egiten ari dira.





lau herrietakoak. UTZITAKOIA

### Oreina bilakatu neska

Eta zer da bada pastoralak kontatzen duena? Halaxe azaldu du Xuriok: «Maddi da gure protagonista. Iturri batetik ura edaten du eta egunez oreina bilakatzen da, eta gauez Maddi. Trajedia bikoitza da, izan ere, halako batean bere anaia Jakesen zakur ehiztariak oreina hiltzen dute. Maddiren ama, hil dutena bere alaba dela ohartzen da, eta bere buruaz bertze egiten du». Badu berri-tzailetik pastoralak kontatzen denak, izan ere orain artean nagusiki pertsona baten inguruko bizitza kontatu ohi dute pastorek. Ez da Xaretakoaren kasua. Horixe nabarmendu du Pantxika Urruti errejentak: «Fikzioa da, eta

fikzioaren parte dira animaliak ere». Urrutiren hitzetan, orain arte pastoraletan ez dira «anitz» atera, eta hau izanenda lehenengo paper inportantea izan dena. Arizaleentzat erronka handia izan da animaliak interpretatzea, baina ez bakarrik arizaleentzat, baita arropaz arduratu diren jostunentzat ere lehen aldia baita hainbertze animalia pastoral batean direla. «Ez genuen mozorro bat izatea nahi, inauteri bat. Zerbait diskretua izatea nahi genuen, ideia bat ematea arroparen bidez». Horretarako hamar jostunetik gora elkartu dira, eta ahalegin biziki handia egin dute arropak sortzeko prozesuan. Jostunen egi-teko nabarmendu du Mun-



### «ESPERIENTZIA EDERRA IZATEN ARI DA»

AMELI HAROTZARENE



### «KOMUNITATEA SORTZEKO BALIO IZAN DU»

HELENA XURIO

giak: «Jostunak hagitz inportanteak dira, antzerki guztietan bezala jantziak gorpuzten baitu pastoralara».

Gainerakoan, «estilo klasikoko» pastoral bat izan den dela nabarmendu du Mungiak, «ohiko moldekoa». Eta bereziki Xaretarako pentsatua ez bada ere, Xaretako historiako hainbat gertakari ere sartu dituzte: iraultza frantsesean kanporatutako Ainhoarrak, Xaretan gertatu sorgin ehiza... Hainbat pertsonaia gorrietan ere erreferentziak horiek sartu dituzte, baina, argi utzi du Xuriok: «Ez da sorginei buruzko pastoral bat izan».

### Esperientzia «ederra»

Ameli Harotzarenek jokatu du Maddiren rola, eta Mattin de Castrok Jakesena. Beraiekin batera 70 arizaletik gora arituko dira antzerkian, eta dena pastoralak 100 parte hartzaile baino gehiago izan ditu. Harotzarene pozik da Maddiren rola jokatzear, nahiz eta onartu duen «ardura handia» dela Maddi gorpuztea: «Hastapenean pixka bat harritu nintzen aukeratu nindutenean, eta estresatu ere bai. Baina esperientzia biziki aberatsa eta ederra izaten ari da», azaldu du. Dantzari gisa parte hartzeko joan zen lehen mustrakara, eta entsegu batzuk egin ondotik, azkenean «sorpresaz» protagonista izaten bukatu du zugarramurdiarrak. Pastoralen egin behar dituen ekintzetatik zailena kantua dela kontatu du: «Ez nuen inoiz kantatu pastoralaren aitzin, eta zaila da enetzat nire boza horrela denen aitzinean ateratzea. Lantzen ari naiz».

Xuriorentzako ere ederra izaten ari da bidea: «Sekulako esperientzia izaten ari da, hasieran iruditzen zitzaigun sobera engaiatzea zela, baina, orain igande batez ez badugu mustrakarik faltan botatzen dugu», azaldu du. Gainera, bereziki errejentaren lana nabarmendu nahi izan du: «Beti hitz goxoak izan ditu, animo

hitzak, eta gainera denei eman digu gutienez bertso bat kantatzeko aukera», azaldu du. Mungiak ere Urrutiren lana goraiatu du: «Beti goxo, beti ongi, sekulako zorrea ukan dugu bere parte hartzearekin», dio. Gainera, pastoral baten parte izatea inoiz ahantziko ez den esperientziatzat du Mungiak: «Herri antzerki batean parte hartzen duen edonork oroitzen du luzaroan bertan egindakoa», azaldu du. Iritzi berekoa da Xurio ere: «Nork du zuberotarra ez bada pastoral baten parte izateko aukera? Alabari erraten diot baliatzeko aukera bertzerik ez duelako izan».

### Harremanak sortzeko bide

Pastoral egiteak lau herrietako herritarren artean harreman berriak sortzeko balio izan duela uste dute. Urrutiren hitzetan hori ere bada pastoralaren funtzioa: «Pastoral bat egiten dugularik da herrien elkartzeko, eta hori Xaretan gertatzen da. Sentitzen da badutela plazera berriz elkartzeaz, eta hori biziki inportantea da». Urrutiz gain ere horixe nabarmendu dute parte hartzaileek ere, herritarren artean sortu den giro ona. «Xaretarren artean komunitatea sortzeko balio izan du», dio Xuriok. Horretarako bereziki mustraketan egindako otorduek lagundu dutela dio Mungiak: «Mustraka egunetan arizale guziak elkartu gara denak elkarrekin bazkaltzeko, eta horrek biziki ondu du denen arteko giro ona». Zazpi laguneko taldea elkartu dira otorduak egiteko, eta parte hartzaile denek batera bazkaltzeko aukera izan dute.

Bukaerara iristen ari da pastoralaren bidea, hilabete bertzerik ez da falta pastoralaren emateko eta azken mustraketan murgilduta daude orain. Informazio gehiago [www.maddipastoral.eus](http://www.maddipastoral.eus) helbidean eskuratu daiteke, baita Zugarramurdiko eta Sarako saioetara joateko sartzak ere.

## Parte hartzaileekin solasean

Horrelako proiektu bat aitzinera ateratzeko beharrezkoa da jendearen inplikazioa izatea. Arizaleak, satanak, musikariak... Jende anitz behar da pastoralaren interpretazioa egiteko. Eta ez da egunean bertan jendearen aitzinean arituko diren inplikazioa bakarrik behar, baita, ezkutuko lana egiten dutena ere: finantzazioa lortzea, komunikazio kanpaina egitea, pastoraleko liburuxka egitea... Aunitz dira, beraz, pastoralean modu batean

edo bertzean parte hartu duten xaretarrak.

Pastoralean parte hartu duten lau herrietako hamar lagun iritziak jaso ditugu hemen. Parte hartzaile denek nabarmendu dute esperientzia «ederra» izaten ari dela, eta Xaretako lau herriak elkartzeko eta harreman berriak sortu eta egonkortzeko balio izan duela. Hala ere, onartu dute uste baino lan handiagoa dela pastoral egitea, eta kasu batzuetan bukaerarako «pisu» ere egin zaiela egitekoa.



**EUKENE XURIO**  
JENDEA BILATZEA

Jendea bilatzea izan da Xurioren lana, eta batez ere zailena haurrak eta gazteak bilatzea izan dela dio. Hala ere, esperientzia «izugarri ona» izaten ari da, eta harreman bereziak sortu dira parte hartzaileen artean. «Betiko gordeko dut gogoan».



**OLIVIER HAROTZARENE**  
OTORDUAK

Mustraka egunetan otorduak prestatzea, hori da Harotzarenen egitekoa. Txandaka aritzen dira eta 60-70 laguntzako bazkaria egiten dute. «Egiteko erraza da eta giroa bikaina da gure artean zein bertzeekin, beraz, guretzat ez da lana ere».



**KORO IRAZOKI**  
ANTOLAKUNTZA

Arizalea eta antolatzailea da Irazoki. Pastoralaren kari bi sentimendu ditu: «Arizale bezala arras polita izaten ari da, baina, antolatzaile bezala zama da. Konturatu gara zenbateko lana den horrelako zerbait egitea».



**PATRICK CALVET**  
MUSIKA

25 kanta inguru joko ditu Calvet buru duen taldeak, batzuk espresuki sortuak. Pantxika Urrutirekin lan egiten duen 5. pastoral da «Biziki ederra da ikustea zenbat laguntasun sortzen den herritarren artean».



**JUAN MIGUEL OLAIZOLA**  
SPONSORRAK

Arizale izateaz gain, liburuxkan publizitatea lortzea izan da Olaizolaren lana. Ate aunitz jo dituzte eta harriria gelditu da «aunitzetan enpresa tikiagoek handiek baino gehiago ematen dutelako».



**IRAIA JAURENA**  
SATANA

Dantzari gisa hartuko du parte Jaurenak pastoralean, eta «esperientzia polita» izaten ari den arren, «nekea» sumatzen hasiak direla dio. Lanak fruituak eman, eta pastoral «ederra» izatea nahi luke.



**ENEKA PELLETRAR**  
DANTZA TALDEA

Dantzari gisa hartuko du parte Pelletrarrek, bertze 15 dantzariarekin batera. Entseguak «luzeak» izan direla dio, biziki kontent da pastoralaren parte izateaz, bizitzan behin egiten den esperientzia dela uste duelako.




**MATTIN ORONOZ**  
ARIZALEA

«Esperientzia biziki ederra» izaten ari dela dio Oronozek. Arizale gisa arituko da, eta ekimen ona iruditzen zaio euskararen eta Xaretako herritarren harremanak indartzeko. «Domaia da gazte gehiago animatu ez dela», dio.



**HARRI IDOATE**  
FINANTZAZIOA-KOMUNIKAZIOA


Bi egitekotan ari da Idoate, eta baina orain bereziki komunikazioan buru belarri murgildua da. Lan handia dela onartu du, baina, polita dela. «Xaretako herrien arteko muga desagerrarazteak on egiten du».



**ARGITXU AGERRE**  
ANTOLAKUNTZA

Antolakuntza taldeko kide da Agerre, eta dio hasiera zaila izan zela material dena erosteko dirulaguntzak lortzeko. «Gastu handia da bi aldiz ematean dena bikoizten delako». Dirulaguntzak lortuta, lasaia dio orain.





Genetikan graduatua, eta biomedikuntzan doktorea da Andrea Irazoki Guimon beratarra. UTZITAKOEA

## «Zientzian lana, lana, eta lana egiteak ez dizu deus bermatzen»

**ANDREA IRAZOKI GUIMON** GENETISTA

Genetikan graduatua eta biomedikuntzan doktorea da Andrea Irazoki Guimon ikerlari beratarra, eta ikasketak Bartzelonan egin ondotik Danimarkan lanean ari da minbiziaren inguruko ikerketan

### A. LARRETKEA

17 urte zituela sorterrira utzi, eta Bartzelonarako bidea hartuzuen Andrea Irazoki Guimon zientzialari beratarra. Genetika ikasketak egin zituen lehenik bertan, eta masterra eta doktoretza egin ondotik hila-bete batzuk daramatza Kopenhagen (Danimarkan) ikerlari gisa. Denboraldi batez atzerrira joateko «gogoz» bazen ere, argi dio «hemen baloratzen

ez dutelako» hartu duela joateko erabakia. Bertzeak bertze bere ikerketa lanaz, ikerlari gazteen prekarietateaz, emakumeek zientzian duten paperaz eta doktoretza egiteko prozesuaz solastatu da TTPI-TTAParekin.

### Nondik heldu zaizu zientziarekiko interesa?

Txikitatik heldu zait. Betidanik animaliekiko eta landareekiko interes izugarria nuen. Nire

ama medikua da eta aita fisioterapeuta, eta osasun zientzien arloarekin harremana izan dut. Nire curiositateagatik eta gurasoen lanagatik txikitatik nekien zientzialaria izan nahi nuela, baina, ez nekien zientziaren barruan zer egin.

**DBH eta Batxilergoa Beran egin, eta ondotik Bartzelonara joan zinen Genetika ikasketak egitera. Zergatik deitu zizuten arreta ikasketak horiek?**

Genetika urte hartan sortu zen gradu berria izan zen. Nik bioteknologia egiteko intentzioa nuen eta erabakiarekin kontent nintzen. Baina, bat-batean genetikan berri izan nuen, eta burura etorri zitzaidana izan zen Mendelen teoria. Nik hori izugarri maite nuen: zelulen DNA aztertzea eta... Orduan pentsatu nuen baldin bazegoen gradu bat hori bakarrik landuko zuena nik hori ikasi nahi nuela.

### Nola oroitzen dituzu urte horiek?

Gradua ikasten ari nintzenean ez nuen zuzenean zientziarik egin, baina Erasmusa egitera Eskoziara joan nintzen, eta han praktikak egiten hasi nintzen. Uda hartan dagoeneko praktikak eginak nituen Donostia Ospitalean, eta muturra zientzian pixkanaka sartzen hasia nintzen. Baina, Donostian egindakoak hagitz teknikoak ziren, eta Eskozian laborategian praktikak egiten hasi nintzenean proiektuekin hasi nintzen: hipotesiekin lanean, horiek betetzeko teknikak aztertzen.... Bertako laborategiko burua hagitz gaztea eta hurbila zen, eta uste dut berari esker aunitz ikasi nuela eta jarraitzeko motibazio eman zidala. Nik banekien Espainian nire aukerak hagitz murriztuak zirela, baina, hala ere gogotsu nengoen eta segitu nuen. Oroitzapen polita dut.

### Ondotik masterra eta doktoretza egin zenituen. Zerk erakarri zituen horretarako?

Eskoziatik itzultzean Bartzelonara itzuli nintzen, eta masterraren tesia egin nuen laborategian geratu nintzen. Bekak eskatzen hasi nintzen, baina ez zen deus ere agertzen. Pentsatu nuen beharbada atzerrira joan beharko nintzela, han aukera gehiago izanen nuelako. Eta bat-batean, tesia egiteko beka bat eman zidaten Bartzelonako Unibertsitatean eta bertan geratu nintzen.

**«Mitokondrio-dinamika, muskuluhantura kontrolatzeko ardatza» da zure doktore tesiaren izena. Zer da zehazki ikertutakoa? →**

→ Mitokondrioak dira zeluletan energia sortzen duten fabrikak, eta beraz hagitz garrantzitsuak dira zelulen funtzionamenduentzat. Zelulek ezin badute energiarik sortu, ez dute ongi funtzionatzen eta eritasunak agertu daitezke. Mitokondrioak organulu dinamikoak dira eta dinamika hori beharrezkoa da euren funtzionamendua bermatzeko. Horren barrenean, giharra interesatzen zitzaidan ehuna delako. Gihar zeluletan mitokondrioen dinamika aldatu da, eta horren ondorioak analizatu ditut.

#### Nola?

Alde batetik mitokondrioak bakarrik bereizita mantenduz, eta horietan ikusi nuen zer alterazio zeuden gihar zeluletan eta saguen modeloetan. Dinamika mitokondrial aldatuz giharretan inflamazioa sortzen dela ikusi nuen, eta inflamazio horrek atrofia muskularra eragiten duela.

#### Zein izan zen ondorioa?

Nik tesian deskribatu dudana da zuk mitokondrioak aldatzen badituzu beraien dinamikan, horrek inflamazioa sortzen duela, eta inflamazio horrek atrofia muskularra. Horrek ondorio fisiologiko larriak ditu, eta saguetan aztertu dut hori. Inflamazio eta atrofia muskularra duten saguek, sagu osasuntsuekin konparatuta ezin dute hainbertze korrika egin. Baina, inflamazioaren kontrako tratamendua emanez gero, eri daudenek osasuntsu daudenek bezala korrika egiten ahal dutela ikusi nuen. Horrek ondorioztatzen du mitokondrioak giharretan funtzionatzen ez badute, horrek inflamazioa sorrarazten duela, atrofia muskularra garatuz eta funtzionamendu muskularra konprometitzuz.

#### Eta zer ondorio praktiko ditu ikeritutakoak?

Epe laburrean guti. Aplikatu daiteke, baina ikerketa hagitz oinarritzkoa da. Hala ere, mitokondrioak ehun guzietan garrantzitsuak dira eta beraz,

eritasun desberdinetan aplikatu daitezke nire tesiaren aurkuntzak: neurodegenerazioa dagoen kasuetan ere aplikatu daiteke, alzheimerrean adibidez, baita minbizian ere. Baina, normalean kasu guzti hauetan egoera hagitz ere konplexuagoa da. Beraz, nahiz eta epe laburrean onura gutxi izan, ikertutakoak aplikazio aunitz izaten ahal ditu, eta epe luzean eritasun desberdinetako tratamendua aurkitzeko erabili daiteke.

#### Eta tesia bukatuta, Danimarkara joan zinen, bertan minbiziaren inguruko ikerketa egiteko. Zer da zehazki ikertzen ari zarena?

Nire espezialitatea da mitokondrioen funtzionamendua giharretan, eta hemen nagoen laborategiko espezialitatea giharrak dira, eta batez ere fisiologia eta ariketa fisikoa. Nire laborategiko ikuskatzailearen interesa da batez ere ikusteaminbizian gertatzen diren gihar aldaketa guzti ho-

riek nola eragiten duten minbizia duen pertsona horren pronostikoan. Giharrek gure gorputz guztia estaltzen dute, hagitz ehun handiak dira eta zerbaitek eragiten dionean gorputz guztian du ondorioa. Minbizia ez da tumore bat bakarrik, zerbait sistemikoa da, eta alde mitokondrial horri indar gehiago ematen saiatzen gara. Beraiek fisiologoak dira, dena urrunagotik ikusten dute, eta ni genetista naiz eta nire espezialitatea hagitz zehatzagoa da. Horregatik nago hemen, giharretako funtzionamendu mitokondrial minbiziaren testuinguruan aztertzeke.

#### Behin baino gehiagotan aditzen da tesia idazteko prozesua hagitz gogorra izaten dela. Nolako izan da zure kasua zehazki?

Bai, tesiak orokorrean hagitz gogorrak dira arrazoi bategatik edo bertzegatik. Nire kasuan esperientzia polita izan da. Zorte aunitz izan dut labo-

rategiarekin, eta proiektuarekin batez ere. Batzuetan laborategiarekin asmatzen duzu, finantzamendua lortzen duzu, motibatua zaude, baina proiektuak ez du aitzinera egiten. Kasu honetan zortea izan dut, arrisku handiko proiektua zelako, baina, lan eginda eta laguntza jasota, aitzinera ateratzen zelako, eta zuzendariak aunitz lagundu ninduelako. Orokorki hagitz esperientzia ona izan da, nahiz eta momentu gogorrak izan ditudan. Maratoi izugarria da tesia, bukatzen ez dena. Lagun pila bat ditut doktoretza egiten ari direnak edo egin dutenak eta nazkatuta bukatzen dutenak. **Eta zure kasuan, izan zenuen zientzia uzteko tentaziorik?**

Nik ere nekatuta bukatu nuen, baina banuen gogo aitzinera segitzeko. Inguruan bai sumatu dut aunitzek hagitz nazkatuak bukatu eta zientzia alde batera utzi dutela. Atzera begira jarrita, eta masterra bukatu berri izanda, ez dut uste gaur egun tesia egingo nukeenik. Hala ere, zorionez, nire esperientzia orokorki ona izan da eta horrekin gelditzen naiz. **Aunitzetan aditu izan dugu hemen ez dela ikerketa behar adina sustatzen, eta kanpora joan bertze erremediorik ez dela izaten. Nolako izan da zure kasua?**

Nahiz eta murriztuak izan, gelditzeko aukerak banituen, baina Erasmusetik itzultzean atzerrira joateko txirrintarekin geratu nintzen. Begirada etorkizunean paratuz gero, nire bizitza Espainian, Katalunian edo Euskal Herrian ikusten dut, nire bizitza pertsonala han dagoelako. Baina etorkizunean zientzian bertan lan egiteko, edo bertako lan aukerak areagotzeko inbertsio hau egin beharra nuen. Bi gauzak elkartu ziren: alde batetik profesionalki etorkizunean aukera gehiago izateko horrelako inbertsio bat egin behar nuela eta kanpora joateko txirrinta nuela.

**Zientziaren barrenean, bekak lortzea izaten da ikerketan segi-**

### Etxetik kanpo 10 urte baino gehiago

Oraindik nerabe zela, 17 urte zituela utzi zuen Bera, bere sorterrria Andrea Irazoki Guimonek kanpora ikastera joateko, eta geroztik atzerrian bizi izan da, Katalunian hasierako urteetan eta Danimarkan gaur egun.

Etxetik kanpo hamar urte baino gehiago daramatzen honetan argi dio «etxea eta herria faltan botatzeko kanpora atera behar dela». Bartzelonara joan eta hiruzpalau urtera hasi zen herriaren falta somatzen, eta gaur egun «geroz eta gehiago sumatzen dut hori». «Gure ingurua, erlazioatzeko modua, izateko manera, eta batez ere kultura». Horixe nabarmendu du.

Hasiera batean behintzat, hiru urterako joan da Danimarkara, baina, etorkizunean etxera itzultzea aukeretako bat dela dio. Eta hain zuzen, hori izan da kanpora joateko arrazoi nagusietako bat ere: kanpo esperientzia baliatzea, etorkizunean etxetik hurbil lan aukera gehiago izateko.

**«TESIA BUKATUTA AUNITZEK ZIENTZIA ALDE BATERA UZTEN DUTE»**

**«ERASMUSETIK BUELTAN KANPORA ITZULTZEKO GOGOZ GELDITU NINTZEN»**

### tzeko aukera bakarra. **Kompetentzia handia dago zientzialarien artean?**

Zientzialarien artean bai. Beharbada nire izateko moduagatik da, baina, nik ez dut zuzenean hori sentitzen bertze zientzialari batzuekin, baina, bai solastatzen dugunean zeinen zaila den beka hauek lortzea, nabaritzen da denak hagitik kezkatuak gaudela batez ere Espainian beka horiek ez dizutelako egonkortasunik ematen. Pena da, belaunaldi oso bat gara graduarekin, masterrarekin, doktoresetarekin, eta doktoresetak eman digun ikasketa guzti horiekin. Hagitik pertsona konstanteak gara, langileak eta tristeak da hain aukera gutxi izanda, horrek zientzialarien arteko kompetentzia sortzen duelako. Aukera gehiago egonen balira, hemengo zientzia kolaboratiboagoa izango litzake, eta beraz, hagitzez hobea.

### **Noren kontrakoa da kompetentzia, orduan?**

Sistemaren kontra, azkenean sistemaren sartu behar duzu zientzian segitzeko, eta onartzen ditugu baldintzak, baina, kompetentzia sistemaren kontrakoa da. Saiatzen ari gara gauzak aldatzen, baina, aldatketak poliki-poliki ikusten dira. Alde horretatik ni kontent nago nik ez dudalako lehia-kortasun hori sentitu nire kideekin, baina, bai nire perspektibekin. «Nola lortuko dut nik hau?» Lana, lana eta lana egiten duzu, baina lan guzti horrekezu deus bermatzen. Sistema hobea balitz eta zientziara diru gehiago bideratuko balitz, lan guzti horrekezu konpentsatuko luke.

### **Beken menpe bizitzeak prekaritateak ekarriko du, ezta?**

Bai. Horrelako beka bat ematen dizutenean prestigioa ematen dizu, baina, ematen dizuten dirua, denbora... Hiru edo lau urteko beka bat da, ez da lan kontratu egonkorra; behintzat tesien kasuan. Laborategi bateko ikertzaile nagusia izateko bertzelako beka



Kopenhagen bizi da gaur egun Andrea Irazoki eta bertako laborategi batean egiten du lan. UTZITAKOIA

batzuk daude, eta horiek egonkortasun gehiago eman diezazukete, baina, gaur egun ni nagoen mailan oraintxe bertan hagitik prekarioak dira, batez ere Espainian. Hagitik penagarria da, eta hori zen nire motibazioa kanpora joateko. Hainbertze lan egin eta gero, bertze leku batera joan naiz bertan gehiago apreziatuko eta baloratuko nautilako.

### **Dibulgazio lana ere egin izan duzu Fissac aldizkarian adibidez. Garrantzitsua da egiten duzun hori ezagutaraztea?**

Bai, hagitik garrantzitsua. Gobernuak zientziari emango dion dirua jendearen zientziarekiko interesaren menpe dago. Dibulgatzaile zientifikoen helburua da kuriozitatea piztea jendearen artean, zientziari buruz gehiago eta zorrotzasun gehiagoz solastatzeko, komunikabideetan ere gehiago agertzeko... Jendea zientzian interesatua badago, zientzia interes politiko gisa landuko da.

**«IKERKETARAKO BEKEK EZ DUTE EGONKORTASUNIK EMATEN»**

### **Gaztea eta emakumea zara. Nabaritu duzu zure bidea zailagoa izan dela zientzian bertze batzuekin konparatuz?**

Bai, baina tesia egin nuen denboran ez. Garai hartan emakume gehiago ezagutu nituen gizonak baino eta 30 urte baino gutxiago dituzten zientzialarien artean ere emakume gehiago gaude gizonak baino. Baina, gero badago hor ere bat gizonak nagusitzen direna. Eta hori da batez ere ama izateak arrakala eragiten duelako. Ama izan nahi ez baduzu ere arazo aunitz daude ikertzaile nagusia izateko, baina, gainera, ama izan nahi baduzu eta urte bateko baja hartzen baduzu horrek karrera osoa baldintzatzen ahal dizu. Arrakala hori hagitik nabarmena da, eta hori da nik sumatzen eta ikusten dudana inguruan. Gizonek ez dute horretan pentsatu beharrik ere izaten.

### **Zer egiten ahal da horren kontra? Zientzia denboraldi baterako uzteak norbere bizitza pertso-**

nalarekin aitzinera segitu nahi duelako ez du erran nahi zientzialari txarra denik, edo interesik ez duenik. Zientziaren sistemak orokorki gauzak erraztu behar ditu. Erraza da erraten, eta zaila egiten. Nik Danimarkan sumatzen dut hori aunitz errespetatzen dutela. Laborategi bateko nagusiak diren emakume gehiago daude bizitza pertsonala eta profesionala errespetatzen eta errazten duen sistema bat dagoelako.

### **Nabaritu duzu zientzian emakume erreferenteak gero eta ezagunagoak direla?**

Bai, inolako dudarik gabe. Mugimendu solidoa dago orain emakume zientzialariak promozionatzeko, eta izugarri gustatzen zait. Komunikabideetan geroz eta gehiago agertzen gara, Twitterren ere bai... Beka batzuetan adibidez emakumeok lehentasuna dugu. Baina oraindik egiteko gehiago dago.

**Zein dira zure hurrengo erronkak?** Nire hemengo ardurak ahalik eta hobekien bete, eta esperientzia ahalik eta gehien zuzentzea, eta pertsonalki ni zientzialari bezala gehiago garatzea, ondotik etxera itzultzean lan aukera gehiago izateko.





Berako eta Urruñako agintariak landaketa egitean. ASIER GOGORTZA



Kongo izeneko haritza da landatu duten 27etako bat. ASIER GOGORTZA

## Urruña eta Bera elkartu dituen hariztia

'Hariztia 2020' proiektua landu du Asier Gogortza argazkilari beratarrak. Erentzuko magalean harizti bat landatu dute

### A. LARRETXEKA

Urruña eta Bera, bi herriak elkartu ditu Asier Gogortza argazkilariaren 'Hariztia 2020' proiektuak. Proiektuaren oinarizko ideiasinpleada: «mendian harizti bat landatzea». Baina hariztia berezia da, 2020ko udaberrian pandemia betean ginela sortutako haritz landareak aldatu baitituzte Urruña eta Bera artean dagoen Erentzuko gainean.

2019an otu zitzaion proiektua Gogortzari, Bera eta Urruña artean egindako bizikleta txangoetako batean. «Urruñako lurretan Beñatbaita baserria-

ren parean bi haritz dotore daude, bertatik pasatzen nintzen aldiro miresten nituenak. Aldi hartan desberdina izan zen, arbolen azpian zeuden ezkur batzuk hartzea otu zitzaidan». Etxera orduko erabakia zuen ezkur horiek erein eta landareak hazten ikustea, eta baita gehiago biltzea ere. Urte bukaerarako 100 inguru zituen etxean.

### Bakoitzak bere izena

Pandemia ailegatu zen orduan, eta etxean zela, dagoeneko erdi ahantziak zituen ezkurak nola ernetzen ziren konturatu

zen Gogortza, eta bakoitzari izen bat paratzea erabaki zuen: «Pertsoneri izena jartzen badiegu, pentsatzen nuen nire baitan, nolatan ez diogu ba izenik jarriko 5 aldiz gehiago biziko den zuhaitz bati? Hortaz, landareentzat egokiak izaten ahal ziren izenak bilatzen hasi nintzen egunero Berria irakurtzen nuen bitartean». Arbola bakoitzak, beraz, izen propio bat hartu zuen, pandemiarekin lotuak batzuk, bertzelako albisteekin lotuak bertzeak. Lehenengo negua igarota, 60 landarek biziraun zuten.

### Udalera ate joka

Haritz landareak esku artean zituela, Berako Udalera jo zuen Gogortzak horiek Beran landatzeko leku bila. Baiezko erantzuna jasota, Erentzuko gaina aukeratu zuen Gogortzak, Urruña eta Bera arteko muga tokia. Urruña ere tartean izaki, bertan udalarekin harremanetan paratu ziren, eta baiezko erantzuna hartu zuten

bertan ere. Hala, bi herrietako lurrak elkartzen diren tokian haritzak bi borobiletan landatzea proposatu zuen, «Frantzia eta Espainiako muga erdian hartuz». Bi herrietako administrazioaren baiezkoarekin, iazko abenduaren 21ean egin zuten 27 haritzen landaketa, bi zirkulutan, borobil handian hamazazpi eta ttikian berriz hamar.

Bokazio artistikoz sortua da hariztia, «lurraldea, paisaia eta denbora bezalako gaiak» lantzeko, eta bere fruituak ematen hasia da, bi herrietako udalek elkarlanean paratu baitute Bideak proiektua, herri bideak berreskuratu, eta bi herrietako artisten arteko elkarlana bul-tzatzeko.

## 27 HARITZ LANDATU DITUZTE BERAKO ETA URRUÑAKO UDALEK

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

**LABE ZAR**  
Abitzibonetik  
ortziriora:  
07:15etik  
aitzinerara  
Larunbata  
eta igandea:  
08:00etatik  
aitzinerara  
948 631 076 · BERA

**744 484 361**  
ttipi-ttapa

**MARITX**  
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
· BOLETIN INDUSTRIA  
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450  
Legia, 23 - BERA

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaillea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Auzolandegiko parte hartzaileak, Berako Udaleko ordezkariekin. UTZITAKOIA

## Frankismo garaiko barrakoa egokitu dute auzolandegian

Abuztuaren 29an egindako lana erakusteko bisita irekia eta fusilatuei omenaldia egin zizkieten

### A.LARRETXEIA

Abuztuaren 16tik 30era bitartean 25 gaztek frankismo garaiko barrakoiak garbitzeko auzolandegian hartu dute parte. Suspelan kokatutako barrakoi bat egokitu dute, baita Etxalarren dagoen metrailadore-habia bat ere.

Lan horiek eginda, abuztuaren 29an jende aitzinean erakutsi zuten egindakoa. Nafarroako Gobernuko ordezkariak, Berako eta Etxalarko udal ordezkariak eta hainbat herri-tarrek parte hartu zuten berreskuratze lanetara egindako bisitan eta auzolandegiko

arduradunek egindako lana aurkeztu, eta azalpenak eman zituzten.

Horrekin batera, Argaitzeko harrobian 1936ko irailetik azarora bitartean fusilatutako 130 disidente politikori omenaldia ere egin zieten. Omenaldian fusilatutako ena senideek parte hartu zuten.

Agintariek auzolandegian parte hartu duten gazteen «konpromisoa» nabarmendu zuten, eta memoria ezinbertzekoa dela Nafarroa «bidezkoagoa, etikoagoa, solidarioagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko».

## Plaza Zaharreko Kalbario erreka ubide berria egiteko lanak lizitatu ditu udalak

### TTIPI-TTAPA

Berako Udalak, abuztuaren 24an egindako osoko bilkuran, Plaza Zaharreko Kalbario erreka ubide berria eraikitzeko obren lizitazioa onartu zuen. Kanal berriak, urtarrileko uholdeetan kolapsatu eta lur-jauzi handia eragin zuen kanal

zaharra ordezkatu du, arazoa behin betikoz konponduz.

Lanen aurrekontua 490.000 eurokoa da, eta udalak espero du obrak abendurako bukatuta egotea. Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du obren gastua osorik ordaintzeko.



TTIPI-TTAPA

## Giro ederrean joan dira Agerrako bestak

Bi urteko etenaren ondotik abuztuko azken asteburuan ospatu zituzten Agerrako bestak. Suziria ortzirelean lehertu bazen ere, ortzegunerako ere hainbat ekintza antolatu zituzten. Eguraldi ederra lagun, jendetza bildu zen eta giro ederra izan zuten asteburu osoan.

## Ataungo eta Granollerseko dantzariak Beran izanen dira asteburuan

### TTIPI-TTAPA

Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta, Kataluniako Granollers herriko L'Esbart Dansaire dantza taldeko eta Ataungo Otsoak dantza taldeko dantzariak asteburuan beren dantzak eskaintzen izanen dira Beran.

Larunbatean 18:00etan bi dantza taldeetako kideek dantza jaialdia eskainiko dute Merkatu Plazan. Eguraldi txarra bada jaialdia Toki-Onako es-talpean egingen dute.

Aitzinetik udaberrian bertarrak izan ziren bi herrietan dantzan.

## Irailaren 17an eta 18an ospatuko dituzte Illekuetako bestak

### TTIPI-TTAPA

Heldu den asteburuan ospatuko dituzte Illekuetako bestak. Larunbatean abiatuko dira bestak 12:00etan botako duten suziriarekin. Ondotik 13:00etan herri kirolak izanen dituzte eta 14:30ean auzo bazkaria. Arratsaldean aldiz, haurren-

tzako jokoak, mus txapelketa, Bera Kantari, zezensuzkoa eta dantzaldia izanen dira. Igan-dean, aldiz, 12:00etan meza izanen da eta arratsaldean haurrentzako jokoak eta 19:00etan dantza saioa. Bestak bukatzeko pintxo dastaketa izanen da.



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info





Uztailaren 28an lanak bisitatu zituzten. NAFARROAKO GOBERNUA

## Bereauko zubia berritzea 645.978 euro kostako da

Neguan eta udaberrian geldituko dira, Bidasoa ibaiaren emaria handitzen delako eta izokinen ugalketa garaia ez oztopatzeko

### AITOR AROTZENA

Uda honetan hasi dira Bereauko Erdi Aroko zubia zaharberritzeko lanak. Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak sustatutako deialdiari erantzunez 645.978 euroren truke esleitu zaio Agoizko Construcciones Leache SL enpresari, mota honetako lanetan esperientzia duen enpresari.

### 2023ko azarora arte

Lanak egiteko epea 16 hilabetekoa da, eta 2023ko azaroan bukatuko dituzte, baina ez dira 16 hilabetez lanean ariko, bi alditan egingen baita. Lehen aldia urrira bitarte egingen dute, eta Bidasoa ibaiaren ur-goraldiak direla eta, lanetarako aldiorik ezin denez paratu. neguan eta udaberrian geldituko egingen dira, berriz ere 2023ko ekain erditsuan hasteko. Horretaz gain, ingurumena babesteko arrazoiengatik, lanak ekainaren erditik azaroaren erdira bitartean egin behar dira, izokinen ugalketa-aldian

ez eragiteko, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Ibai Inguru-nearen Atalak jakinarazitako irizpidearen arabera.

Zubia inguru horretako Erdi Aroko burdinolarekin lotuta zegoen, eta, beraz, konponketa eta auzi ugari daude dokumentatuta XVI. mendetik aitzinera. 1906an birmoldatu eta zabaldu egin zuten, eta 1956an hormigoiz handitu eta indartu, Lesakako Laminaciones-eko ibilgailuen trafikoa har zezan. 1977an, zubi berria eraiki zenean, trafikora itxi eta errepide saretik atera zen. Harrezkeroztik, Bide Zerbitzuak ez dio kasurik egin zubiaren kontserbazioari; 1988an botatzeko eskari bat ere izan zen, nahiz eta, zorionez, ez zen egin.

Azken urteotan berrituko den zubi luzeena (75 metro) eta handiena (lau arku) da Bereaukoa, «Bidasoa ibaiaren gaineko Erdi Aroko zubirik onenetakoa». Jatorrizko egitura berreskuratuko dute, hormigoizko handitze guztiak kenduz, eta harrizko Erdi Aroko zubiaren irudia berreskuratuz.



Uxuri Portu, kopa eta dominekin.

## Uxuri Portu munduko txapelkun trialean Polonian

### A. AROTZENA

Uztaileko azken astebukaeran jokatu zen Wadowicen (Polonian) gazte mailako munduko txapelketa. Lesaka trialeko Uxuri Portu Espainiako selekzioak hautatuta joan zen eta parte hartze bikaina egin zuen bederatzi urte bertzerik ez dituen txirindulariak. Ortzirale goizeko lehia bere kategoriako igandeko finaleko sailkatu zen eta arratsaldean, berriz, munduko txapelkun suertatu zen taldeka, nazioarteko lehiaketan. Igan-dean, berriz ere podiumera igotzea lortu zuen Uxuri Portuk, hirugarren postua lortu baitzuen 9 eta 12 urte arteko nesken kategorian. Alemania eta Japoniako ordezkarien gibeletik gelditu zen.

Astebukaera gogorra egin zitzaion, lehiaketa guztiak euriarekin jokatu behar izan baitzituzten, baina hala ere, bikain aritu zen Portu lesakarra. Herrian dugun munduko txapelkun gazteena da, du-darik gabe.



## 'Eresia. Lurra arin bekizu, ama' antzerkia irailaren 18an Harriondoan

### A. AROTZENA

*Eresia. Lurra arin bekizu, ama* antzerkia taularatuko dute irailaren 18an, igandean 19:00etan Harriondo kultur etxean. Sarrerak dagoeneko 5 eurotan salgai daude udalaren webgunean. Udalbiltzak sustatutako eta antolatutako Geuretik Sortuak proiektuaren barrenean, Oier Zuñigak, Eneko Gil dantzariarekin eta Belen Cruz aktorearekin batera antzeztutako lan honek, ama galtzearen dolua antzezteko asmoa du, antzerkia eta dantza tartekatuz. Ohiko dolu errituak nahikoak ez direnaren sentsazioetik abiatuta, dispositibo poetikoen bidez bestelako dolu praktika esperimentatzeko xedea dute.

## Mendi bizikleta itzulia hilaren 18an antolatu du Beti Gaztek

Lesakako mendi bizikleta ibilaldia antolatu du Beti Gaztek, Lesakako udalaren laguntzarekin. Irailaren 18an, igandean, 09:00etan abiatuko dira Harriondoatik eta 53,69 eta 23,79 kilometro luzeko ibilbideak izanen dituzte txirindulariek aukeran, 1.623 eta 742 metroko desnibela dutenak, hurrenez hurren. Izen-ematea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian egin daiteke irailaren 18ra arte. Txirindulari federatuek 17 euro ordaindu beharko dute eta ez federatuek 20 euro; Beti Gazteko bazkide federatuek 12 euro ordainduko dute eta Beti Gazteko bazkide ez federatuek 15 euro. Adin txikikoek gurasoen baimena aurkeztu beharko dute.



## Bengoetxearen despedida birako partida igandean

Partida ikustea debalde izanen da eta Altxatak zozketa antolatatu du laguntza biltzeko

### IRUNE ELIZAGOIEN

Otsailaren 26an jokatu zuen Oinatz Bengoetxea Leitzako pilotariak profesionaletako bere azken partida, eta geroztik, frontoi ttikietan dabil partidaz partida. Halaxe borobildu nahi du bere ibilbidea urrian. Herriz herri egiten ari

den geldialdi horien barrenean, igande honetan, irailaren 11n, Etxalarren ariko da. 18:00etan hasita, Bengoetxea-Azanza eta Xala-Pascual bikoteek partida jokatu dute frontoian. Partida ikustea debalde izanen da eta Altxatak zozketa antolatuko du laguntza gisa.

## Heldu den astean Urritzokietako bestak ospatuko dituzte

### I. ELIZAGOIEN

Pandemiaren ondotik, Urritzokietako bestak ere normaltasunez ospatuko dituzte: irailaren 14an, eta irailaren 17an eta 18an.

Irailaren 14an, 11:00etan, Sainduneko Zubitik botako duten txupinazoarekin hasiko dira bestak. 12:00etan meza izanen da Santa Krutz ermitan eta ondotik, auzotarrek ha-maiketako eskainiko dute.

Bestak asteburuan izanen du segida. Irailaren 17an, arratsaldean, txokolatada izanen da eta ilunabarrean zingar

jatea Sainduneko Zubian. Irailaren 18rako ere, igandea, egitarau zabala prestatuko dute auzotarrek, eta eguneko ekitaldi garrantzitsuena eguerdiko asaua izanen da.

### Dokumentala ikusgai

Urritzokietako bestak ez dira aste horretako hitzordu bakarra izanen, *Baztan Bidasoko Oihan hezeak* dokumentala ikusteko aukera ere izanen baita. Ekainean aurkezteko zuten, baina azkenean irailaren 16an egingen dute, 19:00etan kultur etxean.

## Giro ederrean joan dira Andre Mari bestak

### I. ELIZAGOIEN

Abuztuaren 14tik 18ra Andre Mari bestak ospatu zituzten herritarrek, nahiz eta abuztuaren 13ko kontzertuarekin besta giroa eta gogoia nabariak ziren. Ekitaldi gehienak jendetsuak izan ziren: herri lasterketa, txupinazoa, herri afaria, Andre Mari Eguneko dantza saioa, herri kirolak, Asaua... Herriko 38 pilotarik parte hartu zuten txapelketak ere ikusmin sortu zuten. Ttikietan Kaiet Sanzberro eta Edur Solano nagusitu ziren; alebinetan Luken Ansalas eta Asier Telletxea;

eta alebinen bigarren taldean Erik Igoa eta Ur Atondo. Kadeteen lehenbiziko taldean Arri Atondo eta Lander Lasaga izan ziren txapeldun eta bigarrenen, Markel Etxarte eta Joseba Otxoteko. Aitor Danboriena memorialean, berriz, Unai Otazo eta Beñat Irazoki nagusitu ziren.

Alde iluna ere ekarri zuten bestek eta udalak txikizioak salatu ditu. Petardoekin, komun publikoetako elbarritasuna dutenentzako komunontzi berezia eta Landagain eskolako bi komunontzi lehertu zituzten. 3.000 euroko gastua sortu dute.



Aurtengo bestetako irudiak. IRUNE ELIZAGOIEN, JOSEBA OLAGARAI ETA OIHAN IPARRAGIRRE



BERAGAIN

Sustapen berria Alkagaia auzoan,  
Berako ikuspegi onenekin.

• Hiru logela

• Bi autorentzat garajea

Informazioa eta salmenta:



San Esteban 11, behea  
31780 Bera - Nafarroa  
info@baztango.com  
www.baztango.com

Tel. 948 630 552  
Tel. 620 028 625



Kantauri abesbatzako kideak. UTZITAKOIA

## Kantauri abesbatzak kontzertua emanen du ortzira honetan

Inguruko abesbatzetako hainbat kideren laguntzarekin, Britainian hasitako birari bukaera emanen diote

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Urruñako Kantauri abesbatzak bi kontzertu eskaini zituen maiatzean Britainian. Emanaldi horietan urruñarrek gure eskualdeko hainbat abesbatzeta kideren laguntza izan zuten, eta tartean ziren bederatzigantziar, Giltzarri abesbatzaren parte hartzen dutenak. Britainian hasitako emanaldi bira horren azken saioa aditzeko aukera Igantziko elizan izanen da orain. Ortziralean, irailaren 9an, 20:00etan dute hitzordua.

Ikasturte osoa Britainiako kontzertuak elkarrekin presatzen aritu ondotik, Urruñako

ko abesbatza eta kantari laguntzaileak maiatz bukaeran abiatu ziren harat bi kontzertu emateko: maiatzaren 27an Saint Albanen eta 28an Pordicen. Elkarlan horrek soka luzeagoa ekarri du ondotik. Uztailaren 21ean Urruñako Pausu auzoan eskaini zuten kontzertua, eta 23an Bellocen.

Ibilbide honi bukaera emateko eginen dute Igantziko saioa. Abesbatzako ohiko kideekin gure eskualdeko kantariak ere parte hartuko dute, Isabel Larkarren zuzendaritzapean. Britainiako kontzertuetako errepertorio bera eskainiko dute.

### Herriz Herri Txapelketako finalean herriko taldea

Abuztuaren 27an Nafarroako Herriz Herri Txapelketako finala jokatu zuten Añorben. Gazteen mailan, Igantziko taldea zen eskualdeko bakarra, eta laugarren postua eskuratu zuten. Nahi zuenak autobusez joateko aukera izan zuen hamar euro ordainduta.

### 'Oihanean sentitu' eta mendi duatloia buruila hasteko

Joan den asteburuan bi hitzordu egitekoak ziren. Larunbatean, *Oihanean sentitu*. *Bideak bertze ipuin* proiektuaren barne, San Juan Xartik musikaz eta ipuinez girotuta ibilbide magikoa hastekoak zuten. Igandean, berriz, mendi duatloia egitekoak zuten.



Puzgarri, txalupa eta aparrezko kanoiarekin primeran pasatu zuten abuztuaren 16an.

### Igerilekuen denboraldia igande honetan bukatuko da

#### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ereiaroaren 11n hasi zen igerilekuko denboraldiari ailegatu zaio akabaila. Urte gogor hauek gibelean utzi eta eguraldiak ere bazuen nonbait igerilekurako gogoa eta ostatua hartu duten gazteek normaltasunez lan egiteko aukera izan dute. Kontatu dutenez, «ostatua bi urtez itxia

egon denez, makinak martxan jarri genituenean uste baino problema gehiago» izan zituzten, baina «denari soluzioa eman eta uda nahiko ongi joan da» eta lanarekin ere «gustura» ibili dira. Bertzalde, abuztuaren 16an, udal igerilekuan puzgarriak izan ziren guraso elkarrekin eta udalak finantzatuta.

**JARONE - GOXOTEGIA**  
Etxean egindako produktuak  
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

  
744 484 361  
**ttipi-ttapa**

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**  
Abokatutza orokorrean • Herentziak  
Alokairuak • Arazo administratiboak  
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hitzordua hartzeko  
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11

**Lehen A.T.M. S.A**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
zumarbel@hotmail.com  
www.zumarbel.es





## 70 ikasle eta 13 irakaslerekin abiatu dute ikasturte berria

Hiru urtekoen gelan bederatzita neska-mutiko hasi dira lehenbiziko aldiz eskolan

### NEREA ALZURI

Ekainean, ikasturte akabailan, iraila urruti zela ematen bazuen ere, joan da udako oporraldia. Irailaren 7a zehaztua zuten ikasturte hasierako egun gisa eta ailegatu da eguna. Bertze ikastetxeetan bezala, herrian ere, ikasleek hasi berri dute

ikasturtea. Guztira 70 ikasle izanen dira eta hiru urtekoen gelan bederatzita ikaslek estreinatuko dute eskola: Joshua, Maialen, Adur, Alaia, Unax, Intza, Ander, Suhar eta Izei.

Irailaren lehenean berriz, hamahiru irakasleko lantaldeak ekin zion ikasturteari.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Herri kiroletan Arantza txapeldun!

Urte mordoxxa ziren herri kiroletan Arantzian taldea atera gabe, baina aurten, herritar talde bat animatu eta Herriz Herri Txapelketan parte hartu dute. Bidean, maila ona eman eta herritarren babes haundia hartu dute eta finalean ere argazkia horixe izan zen. Gainera, txapela herrira ekarri zuten. Zorionak!



TTIPI-TTAPA

## Giro bikaina bestetan eta Arantza Rocken

Gurean ere bestak betiko moduan ospatu ditugu aurten. Altxaferoa auzoetako auzolanetako arduradunek bota zuten eta horrelaxe lehertu ziren bestak. Ohiko herri bazkari, dantza, musika, haurren krosa, elkartasun egun, kantu poteo, herriko kirol eta pilota saioez gainera, emakume talde batek egindako dantza saioa eta auzotarren arteko ginkana ikusgarriak izan ziren.



EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com



**Elektrizitate lanak orokorrean**  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa

Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

# EDERKI tailerra



**CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA**

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

Leitzako bidea - DONEZTEBE - 948 450 525



## Giro ederrean ospatu dituzte herriko bestak

Niebes Biurrarenak eta Aroa Bertizek bota zuten besten hasierako txupinazoa

**MAIDER PETRIRENA** SUNBILLA Osasun arazoak dituzten herriarrak gogoan, Niebes Biurrarenak eta Aroa Bertizek bota zuten txupinazoarekin hasi ziren bestak eta abuztuaren 10etik eta 14 bitartean giro ederra izan zen. Txupinazoaren aitzinetik, herriko gazteek herri kirol erakustaldi ederra eskaini zuten frontoian.

Abuztuaren 11n izan zen egun handia, eta dantzak eta jokoak izan ziren protagonista. Meza nagusia egin zuten goizean, eta ondotik dantzariek Dantzaluzea eskaini zuten. Arratsaldean ere dantza izan zen nagusi, Erreka dantza taldearen emanaldiarekin eta mutxikoekin. Ordu berean toka, zapatilla tiraketa eta boneta tiraketa izan zituzten. Eguna bukatzeko zezensuzkoa eta musika izan zituzten.

Asteburuan ere giro ederra izan zen. Ortziralean erraldoiek eta buruhandiek ernatu zuten eguna, eta haurren jolasen ondotik, arratsaldean tortilla eta postre lehiaketa egin zituzten. Larunbatean aldiz, 120 lagun elkartu ziren guraso elkarteak antolatutako bazkarian eta 55 lagun kuadrillen bazkarian. Arratsaldean, Matraka elektrotxaranga alaitu zituen karrikak. Ohiko Ramon Latasa saria ere jokatu zuten eta jende aunitz bertaratu zen ikustera (emaitzak 51. orrian).

Igandean bestak bukatzeko mus txapelketa, eta profesionalen pilota partidak izan ziren, eta ilunabarrean Txamukos taldeak emanaldia eskaini zuen. Gaez musika izan zuten Beñatekin, eta horrekin bukatu ziren aurtengo bestak.



Giro onean ospatu dituzte aurtengo bestak. MAIDER PETRIRENA



JANIRE APEZTEGIA

## Sunbildarrak Herriz Herri Txapelketan

Abuztuaren 27an Añorben jokatuako Herriz Herriko Txapelketako finalean Itxaso Arrieta eta Ander Oskoz bigarren proba konbinatuan aritu ziren, hirugarren postua eskuratuta. Herriko taldea, aldiz, ez zen lehen probako finalera pasa 18 segundurengatik. Gogoz eta ilusioz ibili dira entrenatzen.

## ETB1eko 'Oholtzan' saioaren grabaketa ortziralean herrian

**MAIDER PETRIRENA** Ortzirale honetan, irailaren 9an ETB1 katean asteburutan emititzen duten *Oholtzan* saioaren grabaketa egingen dute herrian. Zehazki eliza ondoan egingen dute grabaketa, eta 20:30ean hasiko dira. Angel Mariezkurrenak anto-

latu du grabazioa, eta herriarren parte hartzea aunitz eskertuko dute. Lerro hauen bidez, beraz, bertan parte hartzeko gonbidapena.

Aitzinerago jakinaraziko dugu zein egunetan emanen duten Sunbillan grabatutako ikuskizuna telebistan.



Egiten ditugun lanak:  
Faxkaden konponketak,  
segurtasun-sistemen  
instalazioak, teiltatzen eta  
azplegituren mantentze-lanak, eta abar.



948 031 174  
info@anelan.pro

## Xake txapelketa jokatuko dute larunbat honetan

Iñigo Ostiz herritarrak antolatu du, Gazte Burrunbaren eta Mikel Gurea xake elkartearen laguntzarekin

### OIER ZULAIKA

Berrikuntza bat ekarri du Iñigo Ostiz Escalada xakezale doneztebarrak herrira: xake txapelketa antolatu du Casino elkartearen, Gazte Burrunba taldearen eta Burlatako Mikel Gurea xake elkartearen laguntzarekin. Larunbat honetan,

hilaren 10ean, egin dute hitzordua, 10:00etan. Hamar minutuko partidak izanen dira, sistema suitzarra erabiliko baitute. Ortzeguna, irailaren 8a, izanen dute apuntatzeko azken eguna. 662 44 98 78ra deitu eta bortz euro ordaindu behar dira horretarako.

## Besta ttikiak irailaren 23tik 25era izanen dira

Irailko besta ttikiak badute data: irailaren 23tik 25era ospatuko dituzte, ortziraletik igandera. Lerro hauek idazterakoan programari azken ukituak ematen ari ziren. Hortaz, egitarauari buruzko xehetasunak hurrengo aldizkarian agertuko dira.

## Musika eskolako matrikulazio epea zabalik

Agorreta Musika Eskolan matrikula egiteko bigarren epea ireki dute eta irailaren 15ean akituko da. Sei urtetik gorako ikasle berriek, maiatzean baja eman zutenek eta bigarren tresna bat aukeratu edo taldearen izena eman nahi dutenek udalaren webgunean edo arratsaldez musika eskolan egin dezakete matrikula. Aurten ere musika tresnetan aukera zabalaren da: pianoa, gitarra, txistua, bateria, trikitixa eta eskusoinua. Xehetasunak: [esmusidoneztebe@gmail.com](mailto:esmusidoneztebe@gmail.com), 948 45 14 12 edo 636 66 97 50.

## Irailen kirol eskolak martxan jarriko dira

Udan herriko eta inguruko haur eta gazteak jolasean ibili dira frontoian, pinponean, txakurtxilon eta igerilekuan, udako eskoletan, laxoa txapelketetan... Eta orain kirol taldeen txanda da. Jokalari zaharrenak hasi dira entrenatzen eta ttikiagoak ikasurtearekin batera hasiko dira.

## Hainbat lan liburutegian eta eskolan

Azken asteotan eskolan gimnasioko zola eta teilatua berritzen aritu dira eta ongi bidean, gaugerero akituak izanen dira lanak. Irail erdialdera, berriz, liburutegian pintatzen eta atea moldatzen hasiko dira. Iazko uholdeen ondorioz kalteak izan ziren liburutegian, eta aseguru etxeekin moldatu ondotik hasiko dituzte lanak. Hala, ordu-tegian aldaketak izanen direla iragarri du udalak. Irailaren 15ean arratsaldeko ordutegiarekin hasiko dira, baina sare sozialen bidez jakinaraziko dute noiz eta nola irekiko duten.

## Erreka bazterrak garbitu eta zubiko zutabea konpondu dute

### OIER ZULAIKA

Abuztu bukaeran errekan hainbertze hedatutako zuhaitz eta landareak moztzen eta zubiko zutabea konpontzen aritu ziren Mariezkurrenako langileak. Udalak bere gastuetan sartuko ditu garbiketak eta konponketa Nafarroako Gobernuaren

esku gelditu da. Mozteko baimena aspaldi eskatua zen, baina lanak udan bakarrik egin daitezke. Baimenak Ingurumen Departamentuak eta Iparraldeko Ur Konfederazioak ematen ditu; bera da zer moztu eta mugitu eta zer ez edo dragatze lanak egin ala ez erraten duena.



ERREKA ELKARTEA

## Erreka elkartaren udako kirol eskola

Erreka Kirol Elkarteak udako kirol eskola antolatu du aurten ere, eta uztailaren 26tik abuztuaren 19ra, lau astez, 19 neska-mutilek parte hartu zuten. Iñigo Oskoz eta Manu Goñi monitoreen gidaritzapean, hainbat kirolean aritzeko aukera izan zuten, eta ederki pasatu zuten.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

## 37 neska-mutiko udako campusean

Udako futbol campusa egin zuten uztailaren eskualdeko 37 gaztetxok. Bortz egunez, herriko futbol zelaia izan zuten bilgune eta Julen Hernandez, Aimar Bizkai eta Aitor Aristu entrenatzaileekin batera futbolaren hainbat alderdi landuz ederki pasatu zuten.





Gobernuko eta tokiko ordezkariak obrara egindako bisitan. NAFARROAKO GOBERNUA

## Armaurriko errekatik ura biltzeko obrak aitzinera segitzen du

Abuztuaren 19an egiten ari diren lanak ikusteko aukera izan zuten Nafarroako Gobernuko eta udal ordezkariak

### TTIPI-TTAPA

Aurtitzen Armaurriko errekatik ura biltzeko lanek bide onetik segitzen dute. Proiektuak 190.000 euroko aurrekontua du, horietatik 150.000 euro Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu eta gainerakoa Malerreka Mankomunitateak.

Adierazi dutenez, obra akitzean nabarmen hobetuko da Mendaur Ur Edangarriko Tratamendu Estazioaren hornidura, baita Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Latsaga, Aurtitz eta Zubietako ur hornidura ere.

### Ugaitz Elizalde pilotan herriz herri ederki

Pilotari gaztea partidak jokatzen aritu da hainbat herritako bes-tetan: Donamarian, Ezkurran, Donezteben, Ituren eta Eratsunen. Oinatz Bengotxearen eta Julen Retegiren aurka ere aritu da. Irailaren 29an Garferen ardoaren txapelketako finala jokatuko du.

### Zer da egin dutena?

Lehendik errekan goiti zegoen ur hartunea alde batera utzi eta Arrotzubin ura hartzeko kutxatila berria eraiki dute. Gainera, ibilguaren harri-lubetazko paretak berreraiki dituzte eta bidea egokituko dute. Zubietako hartueneen kanalizazioa berrituko dute eta ura Aurtizko ponpaketa estazioa eramaten duen kanalizazioaren karga-hausturaren kutxatila lekualdatu, handitu eta hobetu. Emari-neurgailu berria paratuko dute eta Ezkurra erreka hartunea hobetzeko lanak egingen dituzte.

### Lau ikasle berri hasiko dira Pulunpa eskolan

Gure herriko eskolan aurtengo ikasturtea hasia dute, eta lehenagotik zeuden ikasleez gain, lau ikasle berri hasi zaizkigu. Unax, Maddi, Joritz eta Mara egokitzearen daude. Ikasle berriez gain, irakasle berri batzuekin osatu dute taldea, kurtsoa gogoekin hasteko.

## Irailean sarturik herrian hainbat eta hainbat eskaintza udazkenerako

### ARKAITZ MINDEGIA

Adin guztietarako ikastaroak izanen ditugu herrian:

### Zumba eta dantza

Herriko etxeko ganbaran aurtien erritmoa gogotik landuko. Ortzegunetan 20:00etatik 21:30era Jaione Arnal irakaslearekin zumba ikastaroa izanen da. Honez gain, lau urte-tik goitiko ttiki, ertain eta helduentzako dantza ikastaroa egin nahi dute. Bi ikastaroak urritik maiatzera izanen dira, eta izena emateko Mariari edo Mireni erran behar zaie.

### Bertso eskola

Bertso eskolan ere izena emateko aukera dugu irailan, horretarako nahikoa da Iker Gorosterrazu irakaslearekin harremanetan jartzea. Bertze urte batez herriko gaztetxoek bertso munduan aritzeko aukera izanen dute astean behin.

### Mendaur trikipandero eskola

Ikasturte berria martxan jartzeko prest dago Mendaur eskola. Aurten, Aurtizko lokalaz gain, Arizkunen, Sunbilla... emateko eskaintza luzatu dute.



UTZITAKOAK

## Gazteak Artikutzan egun pasa

Aurtizko kuadrilla eder bat animatu zen Artikutzako San Agustin egunean egun pasa egitera. Herritik abiatu eta oinez joan ziren ibilbideko paisai politaz gozatu. Eguraldiak lagunduta, egun bikaina igaro zuten bertan, giro ederra baitzegoen.

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

**MINIESKABAZIOAK**

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



## 24.755 euroko laguntza Zubietako errotarako

Dirulaguntza errota-ekomuseoaren funtzionamendurako, inbertsioetarako eta jarduerak sustatzeko izanen da

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kultura eta Kirol Departamentuak 164.086,20 euroko dirulaguntza onartu du hamar museo eta bilduma museografikorentzako, eta horien artean dago Zubietako Udala. Zehazki errota-ekomuseoen funtzionamendurako 13.231,36

euro hartuko ditu. Funtzionamenduaz gain, bildumen konserbazioa ere sustatu nahi dute. Inbertsioetarako 10.000 euro izanen dira Zubietarako. Eta azkenik, jarduerak, erakusketen azalpenak eta funtzio kultural eta hezigarriak egiteko 1.524,60 euro hartuko ditu.



TESTUA: FERMIN ETXEKOLONEA / ARGAZKIA: ERNESTO DOMINGUEZ

## Abztu hondarreko bi hitzorduak

Abztuko azken bi larunbatetan bi hitzordu izan ziren herrian. Abztuaren 20an, uraren erabilera jasangarriaren inguruko ibilaldia egin zuten eta 27an errotaren bueltan azoka girotua. Talo tailerra, Edorta Muruarekin bisita gidatua, artisau erakusketa... izan zituzten. Artoa nola bereizi erakusten ere aritu ziren.



OLATZ MUTUBERRIA

## Giro bikaina Narbarteko bestetan

Ederki nabaritu zen jendea besterako gogotsu zegoela, jende aunitz bildu baitzen Narbarteko bestetan. Ziriko erretzaileei omenaldia, herri kiroletako giroa, plater tiroketa, patata tortilla lehiaketa, mus eta partxis txapelketak, herriko emakumeak lerro dantzan... Besta ederrak izan ziren.



ARANTXA ITURRALDE

## Beintza-Labaiengo bestak ere ederki

Beintzan botatako txupinazoarekin hasi eta Labaienen egin zuten kantu zahar eta bertso bazkari eta hondarreko ekitaldiak bitarte, giro ederra izan zuten Beintza-Labaiengo bestetan. Tartearen, otorduak, aizkora erakustaldiak, haurrendako jokoak, dantzaldiak, bizikletekin egindako erakustaldia... izan zituzten.



**instalazioak**  
**IGOGAILUAK**



**PROFESIONALAK**  
**KALITATE-BERMEA**  
**IRISGARRITASUNA**  
**MANTENTZE LANAK**

**EZ ZAITEZTE KEZKATU!** Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

**Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999**  
**suteia@suteiazaldain.com**

**1 KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadak gutxi integratuak, portal barutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



**2 BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskalerrako tartean integratuak. Sarbidea portal barutik, inongo estroparik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudentzako egokitasun.



**3 IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudentzako portaleneko sarbidea egokitzten du. Azkar eginen ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.





Larunbatean bertsoarietkin eta Agerralderekin herri bazkaria eginen dute.

## Astebururako besta ederrak prestatu dituzte Oizen

Ortzegun goizean botako dute txupinazoa, ortziralean tortilla eta postre lehiaketa izanen da eta larunbatean herri bazkaria

### TTIPI-TTAPA OIZ

Bi urtez ospatu ezinik egon ondotik, gogotsu ekinen diote herriko beste oiztarrek. Ortzegun honetan, irailaren 8an, goizean botako duten txupinazoarekin eta trikitilarien kalejirarekin hasiko dituzte eta igandeko aizkora apustura eta Chucin Ibañezen emanaldira bitarte egitarau zabala prestatu dute.

### Irailak 8, ortzeguna Ama Birjinaren Eguna

10:30ean beste hasiera emanen dien txupinazoa eta trikitilarien kalejira. 11:30ean meza. Ondotik luntxa Herriko Ostatuan. 17:30ean herritarren arteko herri kirol saioa. 19:00etatik aitzinera Hauspolariet taldearekin dantzaldia.

### Irailak 9, ortziralea

10:30ean kalejira trikitilarietkin eta panderojoleekin. 12:30ean koltxonetak eta puzgarriak plazan. 17:00etan haurrendako jokoak plazan. 20:30ean dantzaldia Gabenara taldearekin. 21:30ean tortilla eta postre lehiaketa. 00:30ean Gabenararekin dantzaldia.



Haurrek hainbat ekitaldi izanen dituzte.

### Irailak 10, larunbata

10:00etan mus txapelketa herriko elkarteetan. 12:00etan trikitilarietkin eta panderojoleekin kalejira. 12:00etan haurrendako puzgarriak. 14:00etan herri bazkaria plazan bertsoarietkin: Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo. Musika Agerralderen eskutik. 00:00etan dantzaldia Julen Haitzama taldearen eskutik.

### Irailak 11, igandea

12:30ean herri kirol saioa. Alde batetik, aizkora apustua Hodei Ezpeleta eta Josean Etxeberriarekin. Eta bertzetik, Aimar Irigoien harri jasotzailearen erakustaldia. Puzgarriak haurrendako. 19:30ean dantzaldia Chucin Ibañezen eskutik.

## Bigarren urtez Dorrealdia elkartasun jaialdia eginen dute Donamarian

### TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Joan den urteko edizioaren bidetik, aurten ere Dorrealdia jaialdia antolatu dute Donamarian. Ortziralean eta larunbat honetan, irailaren 9an eta 10ean, kontzertu bana izanen da. Ortziralean, Txomin Artolak eta Urbil Artolak emanaldia eginen

dute, 20:00etan Dorrean. Eta larunbatean, Korrontzi folk eta dantzak hartuko du lekukoa, 20:00etan frontoian. Bi kasuetan sarrera hamabi euro ordaindu beharko da eta iaz bezala, bildutako dirua Kurdistango Mirzo Music fundaziora bideratuko dute.



Laxoan aritu zirenak lehenagoko jokalariekin eta omenduekin. LAURENDI ZELAIETA

## Ilarregi eta Ziganda omendu dituzte Oizko elkartearen egunean

### TTIPI-TTAPA OIZ

Elkartearen eguna ospatu zuten abuztuaren 27an Oizen. Laxoa desafioan, hain gazteak ez direnak gazteen kontra aritu ziren: ez gazteen taldean Iker Bereau, Sergio Fagoaga (min hartu eta Kazo aritu zen), Alberto San Miguel eta Lander Mendiola eta gazteetan, Ioritz Zelaieta,

Xuban Ilarregi, Jokin Arotzena eta Laurendi Zelaieta. Partidaren ondotik, Joakin Ilarregi eta Joakin Ziganda omendu zituzten. Elkarteko zaharretarikoa izanda, Ilarregiri txapela eman zioten eta laxoa elkarteak oparria eman zion. Herriko jokalariek, berriz, koadro bana oparitu zieten Ilarregiri eta Zigandari.





## 13 udalerrientzat garbigune berria Donezteben

Lanek 507.228 euroko aurrekontua dute eta horietatik 347.047 Nafarroako Gobernuaren esku geldituko da; gainerakoa Malerrekako Mankomunitateak ordainduko du



Gobernuko eta udaletako ordezkariak abuztuko bisitan. NAFARROAKO GOBERNUA

### TTIPI-TTAPA

Garbigune berria egiteko proiektua martxan da Donezteben. Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten hamahiru udalerri emanen die zerbitzua. Toki Azpiegituren Planaren parte da proiektua eta abuztuaren 23an Jesus M<sup>a</sup> Rodriguez Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusia, Jon Telletxea eta Jon Etxague Malerrekako Mankomunitateko presidentea eta idazkaria eta inguruko udalerrietako udal ordezkariak azpiegituran izan ziren.

Lanek 507.228,10 euroko aurrekontua dute, eta horietatik 347.047,10 euro Lurralde Kohesiorako Departamentuak inbertitu ditu eta gainerakoa Malerrekako Mankomunitateak finantzatu du.

Egituraren beheko solairuan hondakinen kudeaketarako gunea eginen dute, hondakinak bildu, biltegitatu eta bidaltzeko. Horrekin batera, kudeaketarako bulego tiki bat, biltegi osagarri bat, komunak eta aldagelak izanen ditu. Goiko solairuan, berriz, bulegoak eta hondakinen kudeaketa, birziklapen, berrera-bilpen eta balorazioaren inguruko formakuntza egiteko gelak egokituko dituzte.

### Toki Azpiegituren Plana

Nafarroako Gobernuaren eta tokiko erakundearen arteko elkarlana da Toki Azpiegituren Plana, Nafarroako udalerrien azpiegiturak garatzea eta herritarren zerbitzu publikoak hobetzea helburu duena.



## Elkarrekin

## talde bikaina

## osatzen dugu

Zer garrantzitsua den ñabardurei arreta jartzea.  
Ez baita gauza bera entzutea edo *kasu egitea*.

Honelakoa da gure Banka Pribatua.

Ezaneko banka



www.cajaruraldenavarra.com








Dantzan ari nahi duenak aukera ederra izanen du pestetan. ARTXIBOKOA

## Bost egunez pesta giroa nagusituko da Eratsunen

Asteazken ilunabarreko txupinazoarekin hasi eta igandean su artifizialekin akituko dira

### TTIPI-TTAPA

Pestarako prest dira Eratsunen ere, eta helburu horrekin, bost eguneko egitaraua prestatu dute. Asteazkenetik igandera, irailaren 7tik 11ra ospatuko dituzte eta, tartean, ez dira faltako aizkora apustua eta pilota partidak, ezta musika edo ohiko patata tortilla lehia-keta ere. Lerro hauek idazte-rakoan baliteke pestak hasiak izatea, baina igandera bitarte izanen da zer ikusi eta non gozatu.

### Irailak 7, asteazkena

20:00etan pestei hasiera emateko txupinazoa. 21:00etan afaria.

### Irailak 8, osteguna

10:00etan diana txistulariekin. 12:00etan meza. 12:45ean luntxa. 13:00etan aizkora apustua: Iker Vicente eta Mikel Indakoetxea, Oier Kañamares eta Xuban Kañamaresen aurka. 17:00etan pilota partidak. Aurreneko partidari, Rebole eta Gartzia, Lakuntza eta Santestebanen kontra; bigarren partidari, Elizalde eta Alduntzin, Alberdi eta Urruzolaren kon-

tra. Arratsaldean eta gauean Beñat Mitxelenaekin dantzaldia.

### Irailak 9, ostirala

11:00etan mus txapelketa. 17:00etatik 20:00etara haurren jokoak: herri kirolak, puzgariak, jokoak eta txokolate jatea. Arratsaldean eta gauean DJ Dubi.

### Irailak 10, larunbata

09:00etan diana txistulariekin. 14:00etan herri bazkaria. 17:00etan Txamukos mariatxi taldearen emanaldia. Arratsaldean eta gauean dantzaldia Gabenara taldearekin.

### Irailak 11, igandea

10:00etan diana txistulariekin. 11:00etan patata tortilla lehia-keta. 12:00etan sagardo eta txistor dastaketa. 14:00etan paella jatea. 17:00etan neska-mutilen arteko pilota partidak: aurreneko partidari, Retegi eta Telletxea, Otxandorena eta Eskuderoaren aurka; bigarren partidari lau eta erdian Oskoz eta Zabaletaren artean, eta hirugarren partidari lau eta erdian, Arribillaga eta Roldanen artean. 20:00etan musika eta 21:00etan su artifizialak.



ANA MARIEZKURENA

## 115 lagun Eratsungo kuadrillen egunean

Uztailaren 31n 115 lagun elkartu ziren Eratsungo herriko plazan, kuadrillen eguna ospatzeko. Arratsaldean umeentzako eta gaztetxoentzako jokoak antolatu zituzten eta txokolatea ere banatu zuten denentzat. Giro ederra izan zuten.



JAIONE ZABALO

## Giro bikaina Ezkurrako pestetan

Abuztuaren 14an hasi eta 18an bukatu zituzten Ezkurrako pestak. Txupinazoa, jokoak, musika, apustuak, aizkorak, dantzariak, pilota, omenaldia, herri bazkaria, batukada... emozioz eta ekitaldiz betetako egunak izan ziren, eta giro ederrean pasatu zituzten.







Abuztuaren 23an Aralarrena joandako mendizaleak. UTZITAKOA



Uztailaren 26an atautxi-amatxien eguna ospatu zuten Aralarren. UTZITAKOA

## Elkarteko bazkideak bitan izan dira Aralarren udan

Abuztuaren 23an mendizaleak txangoa egin zuten Aralarren, eta uztailaren 26an atautxi-amatxien eguna ospatu zuten.

### TTIPI-TTAPA

Abuztu betean ere elkarteko mendizaleek ez diote huts egin mendi hitzorduari. Astebete atzeratu zuten zita eta abuztuaren 23an elkartu ziren mendira joateko.

Aralarko paraje zoragarria egin zuten irteera. Goizean goiz abiatu ziren autoetan

bidean euri langarra ari zuela baina Baraibarretik goitiago dagoen Albi aparkalekura iritsi orduko atertu zuen. Han zain zuten Peio egun horretako gidaria.

Goizean, 08:00etan, abiatu ziren 45 mendizale Belokiko zelai aldera. Handik Uneko putzura joan ziren eta bertan

dauden harrietan eseri ziren bertan lasai gosaltzeko. Indarrak hartu eta handik Irumugarrietara (1.427 m) igo ziren mendizaleak. Bertatik, bertzeak bertze, Beloki, Puttari, Txindoki, Balerdi, Aratz, San Donato eta Artxueta mendiak ikusi zituzten. Eguraldi eguzkitsua izan zuten, haize pixka batekin, mendian ibiltzeko hagitz ona.

Aralartik jaitsiera eskuineko bordetatik egin genuen pago artean. Kotxeak hartu eta ordu bietarako bazkaltzera joan ziren Lekunberriko Aurrera jatetxera. Bertan azkar eta ongi jan zuten eta bukatzeko Leitzako Tomasek akordeoiarekin alaitu zuen bazkal ondorena.

### Atautxi-amatxien eguna

Aralarrera mendizaleek egindako bisita ez da izan elkarteko kideek paraje horretara udan egindako irteera bakarra izan. Uztailaren 26an, atautxi-amatxien eguna ospatzeko urteroko ohitura bihurtu den irteera egin zuten Aralarrena. 09:00etan atera ziren bi autobusetan San Miguel aldera eta bertara ailegatu aitzinetik bidean gosalduta zuten. Han, 12:00etan Juan Zabala eta Mikel Garziaindiak ospatuko meza entzun zuten. Mezako sermoian aipamen berezia egin zieten atautxiei eta amatxiei. Meza ondotik Iruñeko Hostal El Torora joan ziren bazkaltzera eta dantzaldiarekin bukatu zuten eguna.

## Mikaela Erasun Etxekolonearen heriotza

### FERNANDO ETXEBERRIA

Mikaela Erasun Etxekolonea mendizalea hil da. Abuztuaren 5ean hil zen 80 urte zituela.

Emakume txikia, baina bihotz handikoa, bizkorra eta langilea.

Urte askoz Beintza-Labaiengo Lotzabien auzoan bizi zen eta gero Doneztebera joan zen. Erraina baten bidez Arkupeak elkarteko bazkide egin zen eta bidaia eta batez ere mendi irteeretan parte hartzen zuen.

Behin, Alkurruntz menditik jaisten ari zela istripu txiki bat izan zuen, baina, sendatu eta berehala berriz hasi zen mendi taldearekin parte hartzen bere osasun egoera makaltzen hasi zen arte.

Oso emakume estimatua, hutsune handi bat utzi du denon artean. Goian bego eta doluminak familiari Arkupeak elkartearen eta elkarteko mendizaleen partez.



UTZITAKOA

## Martina Zelaietarentzat abuztuko saria

Iruritako Martina Zelaieta izan da azken hilabeteko galderaren asmatzailea. Iraileko galdera: **Zenbat jokalarik osatzen dute laxoako talde bat eta nola deitzen zaie kokapen bakoitzean dagoenari eta bere eskularruari?** Erantzunak: 618 56 78 37

# Kristina Saralegi omenduko dute Talo Egunean

Igande honetan 10:00etatik 14:00etara Talo Eguna ospatuko dute plazan

## JUAN MARI BARRIOLA

Iraileko agendan ohitura bihurtua den hitzordua berrartuz, igande honetan, irailaren 11n, taloak izanen dira eguneko protagonista.

10:00etan hasiko dira Talo Eguneko ekitaldiak plazan eta 14:00etan itxiko dute. Alde batetik, Plazaola Partzuergo Turistikoko bazkide diren artisauek azoka eginen dute beraien produktuekin, eta bestetik, saralegitarren taloak dastatzeko aukera izanen da. Talo txapelketa ere eginen dute. Eguerdian, berriz, otsailean zendu zen Arro baserriko Kristina Saralegi Arribillagari omenaldia eginen diote.

## Iraileko ekitaldi gehiago

Herri Aretoko iraileko programazioa ere prest du Miren Tirapu kultur teknikariak. Igande

honetan, hilaren 11n, Metrokoadroka konpainiaren eskutik, *Bidaide* antzezlan ikusteko aukera izanen da, 19:00etan. Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoko azken proposamena izanen da.

Irailaren 13an, euskara zerbitzuak euskararen erabileraren inguruko gogoeta saioa antolatuko du, 19:00etan.

Irailaren 19tik 25era, berriz, Ramon Zabalegi artista plastikoren lanekin erakusketa zabalduko dute. Eta irailaren 24an, LHL erronkako lantaldeak antolatuta, Motxila 21 taldearen kontzertua izanen da, 19:00etan.

Herri Aretotik kanpo, ostegun honetan, irailaren 8an, kultura zuzenean, euskaraz eta auzolanean eskaintzeko sortutako Torrea Eszenaren harira, Alarma Morea taldearen kontzertua izanen da.

## Herriko familia baten dohaintzari esker gizarte larrialdi kasuetarako etxebizitza

### TTIPI-TTAPA

Aleman familiak udalari pisu bat dohaintzan ematea erabaki du, etxebizitza hori gizarte larrialdi kasuetan erabiltzeko baldintzarekin, hau da, «premia larriko kasuetan behin-behineko etxebizitza izateko, hala nola, errefuxiatuentzako, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako, etxegabetze kasuetarako, ohiko etxebizitzaren erreketa edo suntsiketa kasuetarako eta abarretarako, edo bestelako gizarte edo asistentzia zerbitzuetarako».

Gisa honetara, duela gutxi hil zen senide baten pisua premia larrian dauden pertsonentzako eta familientzako behin-behineko konponbide gisa erabili ahalko da, orain arte Leitza ez zegoen baliabide bat eskura jarritz.

Udalak biziki eskertu nahi izan du familiak «egindako ekarpen eskuzabala» eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esku utziko du erabilera, gizarte larrialdi tarako etxebizitza gisa arautu eta egoki kudeatu dezan.

## Txirindularitza profesionala utziko du Mikel Nievek

### TTIPI-TTAPA

«Munduko lasterketarik onenetan 15 urte egin ondoren, urte honen amaieran txirindularitza profesionalari agur esateko ordua iritsi da». Halaxe iragarri zuen joan den astean Mikel Nievek agurra sare sozialetan. Aitortu zuenez, «gozamina izan da pelotoian txirindulari handiekin ibili eta pelotoi horren inguruan txirindularitzaren mundua osatzen dutenekin esperientzia bizitzea».

Esker oneko hitzak ere izan zituen, besteak beste, «familia, lagunak, taldekideak, taldeetako langileak, zaleak, antolatzaileak...» aipatuz, baina bereziki «dena eman didan amari, bere falta sentitzen dudan aitari, beti alboan dagoen anaiari eta Danel semeari» eman zizkien eskerrak. «Urte ahaztezinak» izan dira beretzat, «asko ikasi eta



Urte amaieran utziko du txirindularitza.

gozatu» duela dio, baina «etapa hau bukatu eta beste esperientzia batzuk bizitzeko hasteko momentua iritsi da».

2008an egin zuen debut profesionala Orbea taldearekin, eta urtebete beranduago hasi zen Euskaltel Euskadin, 2013ra arte. 2014an Sky taldean ibili zen, eta 2018tik 2021ra Michelton Bike Exchangen. Azken denboraldia Caja Rural-Seguros RGA eman du. Bidean palmares polita osatu du.



Aurtengo Plazako Pilota Txapelketako finalistak. MIKEL IRIARTEK UTZITAKOIA

## Plazako Pilota Txapelketaren 30. edizioari begira

### TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 9an borobildu zuten Aurrera elkarteak 29. aldiz antolatutako Plazako Pilota Txapelketa. Maiatzean hasi zituzten partidak eta bi taldetan banatuta, hamalau bikote aritu ziren. Horien artean, Imanol Urkiola-Xabier Jaunarena eta Ioanes Ceballos-Mikel Iriarte

bikoteek lortu zuten finaleko txartela eta lehenak nagusitu ziren. Hirugarren eta laugarren postuen lehian, berriz, Iñaki Alduntzinek eta Unai Olanok Mikel Martinezi eta Eñaut Goikoetxeari irabazi zieten. Aurtengo eginda, datorren urteko 30. edizioari begira jarri dira dagoeneko.





Eskolako estalpea eraikitzeko lanekin uztailean hasi ziren. MIKEL ZABALETA

# Milioi bat eurotik gorako gastua duten inbertsioak martxan

Inbertsioen % 60 Nafarroako Gobernuak ordainduko du eta gainerakoa udalak

## TTIPI-TTAPA

Eskola eremuko lanak, mendietako bideetako berrikuntzak eta Mimukai zentroa tarteko, milioi bat eurotik gorako gastua duten inbertsioak ditu esku artean udalak. % 60 Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu.

## Eskola eremuko lanak

Uztailean hasi ziren eskolako estalpe berria eraikitzen, eta Mikel Zabaleta alkateak dioenez, «azaro bukaerarako amaitzea espero dugu». 20x38 metroko azalera izanen du eta argiztatua izanen da. 503.000 euroko gastua da eta 423.000 euro gobernuak ordainduko ditu eta gainerakoa udalak.

Horrekin batera, hezkuntza zentroen atariko futbol zelaiak moldatu, hainbat oztopo arkitektoniko ezabatu eta eskola atariko zorua berritu nahi ditu udalak. 55.000 euro kostako dira eta gobernuaren eta udalaren artean ordainduko dituzte.

Erleta eskolako anpliazioko leihoak ere berritzen ari dira. 80.000 euro kostako dira; 53.000 euro gobernuak dirulaguntzekin ordainduko dituzte eta gainerakoa udalak.

## Mendiko lanak

Leitzelarreko hainbat bide eta Gorritzaran auzotik, Auzmendiko pistatik, Sorogainera doan bideko moldaketak ere aurrera doaz. 45.000 euroko obrak dira eta irail hasieran bukatzekoak dituzte. Gobernuaren laguntzarekin erdia ordainduko dute eta gainerakoa udalaren funtsekin.

## Mimukai

Mimukai garapen eta transformazio zentroaren lehen fasea ere martxan da. Udalak Landa industrialdean 750 metro koadroko lokala erosi ondoren, bulegoak eta bilera gelak egiteko moldaketak hasi dituzte. «Zerbitzu berri hau datorren urterako prest egotea espero» du alkateak: «Honela, coworking zentroa, enpresa ttikientzako bulegoak, garapen agenteen bulegoak, bilera gelak, formakuntzarako gela homologatua eta eskualdeko eragile sozioekonomikoentzako bulegoak eskuragarri izanen dira». Erosketa udalak egin zuen, 300.000 eurotan, eta moldaketa gobernuak ordainduko du, «EH Bilduk aurrekontuetan adostu zuen 175.000 euroko partidari esker».



LEITZAKO UDALA

## Jende asko pestetan

Bi urteren ondoren, herritarrek eta bisitariak gogotsu hartu zituzten pestak. Ez zen, ordea, dena polita izan. Pesta bezperatan eta azken egunean pintada faxistak agertu ziren txosna gunean. Horiek salatzen abuztuaren 18an 150 bat lagun elkartu ziren plazan *Faxismoari stop* lelopean.



**KATEA  
BIKE**

**Bizikleten salmenta  
eta konponketa.**

Kanltonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

[www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)











## Interneterako sarbide publikoa eta doakoa martxan

Nahi duen oro pasahitzik gabe konektatu daiteke herriko wifi sarera

### ENERITZ IRAOLA

Abuztuaren 26an bukatu zituzten zerbitzua eskaini ahal izateko beharrezko lanak eta geroztik, nahi duen oro pasahitzik gabe konektatu daiteke herriko wifi sarera. Europako Batasunak bultzatutako WIFI4EU ekimena baliatu du udalak zerbitzua

eskaintzeko. Hala, udalak 15.000 euroko dirulaguntza jaso du abiadura handiko interneterako sarbide-eremu publikoak eta libreak martxan jartzeko. Laguntzak beharrezkoa den azpiegituraren gastuak estali ditu, ekipo berriak erosi edo material zaharkitua berritzeko.

## Psikomotrizitate eta pilates ikastaroak eskainiko dituzte

### E. IRAOLA

Mendialdeko Kirol Mankomunitateak pasa den urtean eskaintako ikastaro berdinak eskainiko ditu aurten ere herrian.

Haurtzako zein helduentzako eskaintza dago. Haur Hezkuntzako ikasleek psikomotrizitatea izango dute ostegunetan 16:00etatik 17:30era. Helduek, berriz, astelehenetan eta ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara pilates izango dute.

Bi ikastaroek 160 euroko kostua dute. Izen-emateak

bukatu eta taldeak osatzen badira, urriaren 6an hasiko dituzte ikastaroak eta ekainaren 15ean izango dute azkeneko klase eguna.

Irailaren 7an, goizean, teknikaria udaletxean egotekoan zen interesatutako herritarrei izen-ematekin laguntzeko. Orduan egin ez zutenek email bat bidali beharko dute kirolmankomunitatea@gmail.com helbide elektronikora abisua emateko eta udaletxean hartu, bete eta utzi beharko dituzte izen-emate orriak.



Inoiz baino jende gehiago bildu zen otorduetan. ENERITZ IRAOLA



Abuztuaren 14an Mendialdeko azoka izan zuten herrian. ENERITZ IRAOLA

## Ederki ibili dira herritarrak pestetan

### ENERITZ IRAOLA

Abuztuaren 14an Leire Barai-barrek botatako txupinazoa-ekin hasi ziren pestak eta bost egunez kolore, umore, dantza eta musikaz jantzi zen herria. Bi urteko etenaldiaren ondotik, bistakoa zen herritarrak gogotsu zeudela, horren erakusle izan zen adibidez

otorduetan bildu zen jendetza. Ohiko ekitaldiak eta hainbat berrikuntza zekartzen egitarauak eta euriak azken bi egunetako dizdira zertxobait apaldu bazuen ere, antolatutako ekitaldi guztiak egin ahal izan zituzten. Hurrengoan zain geratu dira herritarrak.



Plaza kolorez bete zen haurren egunean. ENERITZ IRAOLA

TTIPI-TTAPA  
SARE SOZIALETAN  
Jarrai gaitzazu!



facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa





Jende askoren bilgune izan da kanpina. MAITANE APEZETXEA

## Turisten uholdea Goizuetan ere sumatu da

Kanpaina erabat beteta egon da eta aterpetxean ere bisitari asko izan dira

### ESTEBAN AROTZENA

Komunikabide guztiek diotenez, aurtengo udan Euskal Herrira etorritako turisten kopurua inoizko handiena izan da. Ba, jendetza horrek gure herria ere harrapatu du, eta azken bi urteetako etenaldia baliatuz guztiz eraberritutako Ixkibi kanpina erabat bete zen uztaile hasieran atek zabaldu bezain pronto. Ixkibi arduradunek esan zigitenez, atzerritarrak izan dira gehienbat bisitariak, herbeheretarrak batez ere.

Esan behar da, Zubimuxu aterpetxean ere bisitari askok



Bisitari gehienak atzerritarrak izan dira.

hartu dutela ostatu uda osoan zehar.

Turisten etorrera masibo honek eragin handia izan du herriko denda eta tabernetan ere.

## Artikutzako hitzordua giro onean

Bi urteko geldialdiaren ondoren, jende askok ospatu nahi izan zuen San Agustin Eguna Artikutzan. Goizean goizetik hasi zen mugimendua, eta askorentzat ilundu arte luzatu zen...



ELI BELAUNZARAN

## Ordenantza berriaren zirriborroarekin «kezkatua» baserritarren batzordea

### TTIPI-TTAPA

«Baserritarren batzordea oso kezkatua dago udalak bideratu digun herri lurren ordenantza berriaren zirriborroarekin». Hala adierazi du Juanjo Elizalde batzordeko koordinatzaileak, eta «zuzendu ezean, Goizuetako abeltzainok ondorio oso kaltegarriak jasanen genituzkeela» dio. Bere irudiko, «zirriborroak ez du ez bururik ez hankarik; adibidez, Nafarroako komunalen legea ez du betetzen» eta «proposatzen diguten lekuz kanpoko hektareen mugekin baserriak ezin garatu geratuko

lirateke. Muga horiek gabe badaude irtenbideak». Pentso eta belarren «igoera latzaz» gain, «udal zergak % 50 eta % 200 igotzea proposatu» izana «guztiz ulertezintzat» jo du eta auzolanaren gaian, «berriz ere baserritarrak zigortzen gaitu». Hori horrela, zirriborroa «sakon» aztertu eta baserritarrekin bile-ara egiteko asmoa du batzordeak.

Bestetik, «berriki jarri diren bide bazterreko hesietan udala eta baserritarrak adostasun handi batera iritsi» izana nabarmendu du; «ea gai honetan ere bide beretik segitzen dugun».



FELIX LOIARTE

## Festa ederrak izan dira

Bi urteko geldialdiaren ondoren, gogotsu hartu dituzte herritarrek festak. Ohi bezala, Umeen Eguna izan zen aurrena, eta ondoren, gazteek hartu zuten lekukoa. Hortik aurrera giro ederra nagusitu zen. Umore Ona peñaren egunarekin borobildu zituzten fiestak.



Bi urteren ondotik bestak ospatzeko gogotsu daude elbetarrak. ARTXIBOTIK



Larunbatean zikiroa izanen dute.

## Elbeteko bestak irailaren 9tik 14ra ospatuko dituzte

Otorduak, musika eta besta nagusi izanen dira Elbeten sei egunez

### TTIPI-TTAPA

Uda akitzen ari bazaigu ere, baztandarrek herriko bestekin segitzen dugu eta aste honetan elbetarren txanda izanen da. Irailaren 9tik 14ra, herritar guziendako ekitaldiz beteriko egitaraua izanen dute Elbeteko herrian.

### Egitaraua

**Irailak 9, ortziralea:** 19:00etan txupinazoa eta bonba japoniarrak izanen dira bestei hasmenta emateko, ondotik ttikien txopo goratzea. 19:30ean kalejira izanen da Tuku-tuku txarangarekin eta 21:00etan

zopak hartuko dituzte Posadan Franxixkorekin. 00:00etan txopo goratzea egingen dute plazan eta ondotik DJ TirryEr-di izanen da.

**Irailak 10, larunbata:** 09:00etan diana izanen da eguna hasteko eta 14:30ean zikiro jatea egingen dute frontoian. Bazkaldu ondotik, dantzaldia izanen dute. 21:00etan zinger jatea egingen dute eta 22:00etan, berriz, zozketa. 22:30ean Bizphiru Pelau erromeria taldea izanen oholtzaren gainean eta 02:00etatik aitzinera DJ Aimarrek girotu-ko du gaua.

**Irailak 11, igandea:** 09:00etan diana izanen da eta 11:30ean Baztango Dantzarien ikuskizuna izanen dute. Ondotik, dantzatzeko gogoak dutenek mutxikoak izanen dituzte. 17:00etan Txaruta elkarteak antolatutako pilota partida izanen da frontoian eta 19:00etan Txingones de La Rencle mariatxiak izanen dira oholtzaren gainean.

**Irailak 12, astelehena:** 14:00eran hurren bazkaria izanen da Posadan, eta 14:30ean, berriz, Betigazteen bazkaria. 16:00etan mus txapelketa egingen dute eta 16:30etik 19:30era hurrendako puzgarriak izanen dira. 18:00etan txokolatada izanen da eta 19:30ean dantzaldia Hauspolarien eskutik.

**Irailak 13, asteartea:** 14:00etan herri bazkaria egingen dute Karrikatxarren.

**Irailak 14, asteazkena:** 09:00etan diana izanen da, 11:00etan meza nagusia eta ondotik luntxa Posadan.

## Udaltzain agenteko bi lanpostu betetzeko deialdia egin du udalak

### TTIPI-TTAPA

Udaltzaingoko bi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia egin du Baztango Udalak. Lanpostu bat txanda irekikoa izanen da, bertzea, berriz, iguera txandakoa.

Txanda irekiko lanpostura aurkezteko, beharrezkoa izanen da: espainiar nazionalitate, 18 urte beteak izatea, Batxilergoko edo Lanbide Heziketako titulua, beharrezko gaitasun fisiko eta psikikoak izatea, dolo delitu bategatik kondenatua ez egotea, Bmotako gidabaimena, aldean armak eramateko eta behar izanez gero erabiltzeko konpromisoa eta euskarako C1 maila edukitzea.

Igoera txandako lanpostuari, aurreko baldintzez gain, hurrengoak gehituko zaizkio: langile finkoa izatea Nafarroako edozein administrazio publikotan, Nafarroako polizia-tako kide izatea eta deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa izatea.

### Izen-ematea 17ra arte

Deialdian irailaren 17ra arte ematen ahalko da izena Baztango Udalaren erregistroan. Eskabidea eta bete beharreko baldintza guztiak [baztan.eus](http://baztan.eus) webgunean daude ikusgai.



## ELBETEKO POSADA

Ongi pasa bestak!

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519  
info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com



## ANZABAL Inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



# Iraila ekitaldi kulturaleraz betea dator Baztanerat

Azokak, aurkezpenak, zinema, solasaldiak, erakusketak eta bertze hainbat jarduera izanen dira

## TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak irailako agenda kulturala pres-tatu du eta herritar guzienda-ko ekitaldiak izanen ditugu hilabete honetan.

## Azokak

Baztango artisauek eta neka-zariak hainbat merkatu pres-tatu dituzte Elizondon, bertako elikagaiak eta eskuz eginda-ko produktuak saltzeko. Plazan elkartuko dira irailaren 10ean, 17an eta 24an, 10:00etatik 14:00etara.

Erratzuko artisauek ere merkatuak eginen dituzte herriko plazan irailaren 11n, 18an eta 25ean, goizez.

## Poesia eta musika

Poesiak eta musikak ere bere lekua izanen dute Baztango agendan. Irailaren 16an Hasier Larretxea arraioztarrak *Hezurrezko kaiolak* olerki-liburua aurkeztuko du bere sorterriko elizan, 19:30ean, Amaiurko Gazteluak eta Arraiozko Herriak antolatua.

Irailaren 18an, berriz, Baztan Kantuz ekimena Gartzainen



Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia.

izanen da. Musika eta kantatzea gustuko dutenek 12:00etan herriko plazan dute hitzordua.

Irailaren 25ean poesia eta musika emanaldia izanen da Joseba Sarrionandiaren eta Gose taldeko abeslaria den Ines Osinagaren eskutik, Arizkunenean 18:00etan. Sarrionandiak Kuban sortutako letrak eta musika nahastuz *Gosariak* proiektua aurkeztu zuten dua-la hamarkada bat eta orain letra horien jatorria eta zer-

gatia azalduko ditu Sarrionandiak, Osinagaren musikaz lagunduta.

## Zinema eta solasaldiak

Irailaren 22an zinema zikloa izanen da 19:00etan Irurritako Gizarte Bilgunean *Apaiz kartzela* filmarekin. Filmak Frankoren diktadura frankismoaren kontra altxatu ziren abadeak zigortzeko Zamoran sortutako apaizendako kartzela erakusten du. 1968 eta 1976 urte bitartean 53 apaiz espetxeratu zituzten, gehienak Euskal Herrikoak, diktadorearen errepresioaren aurkako jarrera erakusteagatik eta sermoietan hura salatzeagatik.

Horrez gain, Baztango Talde Ekosozialak *Idorteen, suteen, alimaleko beroen garaian... ekologia gehiago!* mintzaldia antolatu du irailaren 23an 19:30ean Ahaztuen plazan (Fantxike parean). Inaki Baccena EHuko irakasleak eta mugimendu ekologistako ki-deak emanen du solasaldia.

## Bisita gidatuak eta erakusketak

Ondarearen Europako Jardunaldien barnean, Cesareo Souleren tailerrean bisita gidatuak eginen dituzte irailaren 24an Arizkongo Bozate auzoan. 11:00etan euskaraz izanen da eta 12:30ean gaztelaniaz.

Irailaren 25ean, berriz, Irurritako Dorrea jauregira doako bisita gidatuak antolatu ditu Baztango Udalak, 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gazte-

laniaz. Izen-ematea beharrezkoa izanen da [kultura@baztan.eus](mailto:kultura@baztan.eus) korreora idatziz edo 948 581 279 telefonora deituz.

Honez gain, hainbat erakusketak izanen dira ikusgai irailaren Arizkunenea kultur etxean. Amaiurko Gaztelu Elkartearen *Memoria bat, mila kolore. Gaztelu bat, mila irudi* ikusgai dago oraindik, urrira arte, asteartetik igandera 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Tomas Sobrino margolariaren ikasleen lanak ere ikusgai daude Arizkunenean irailaren 5etik 11ra, 18:00etatik 20:00etara aste tartzetaz eta 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara asteburutan. Iciar Muñozen pinturak, berriz, irailaren 19tik urriaren 13ra egonen dira ikusgai, kultur etxeko lehenbiziko solairuan.

## Behi pirinotarren feria

Irailaren 24an eta 25ean, urtero bezala, Behi-azienda pirinotarren XXXIII. lehiaketa-enkante nazionala eginen dute Elizondon. Aziendaren erakustaldi eta kalifikazio komentatuaz gain, azokak, aratxe dastaketa eta sari banaketak izanen dira larunbat eta igandean Merkatuko plazan.

## BEHI-AZIENDA PIRINIOTARREN FERIA IZANEN DA 24AN ETA 25EAN

**BRIKO BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuak  
 Ferreraria · Sukaldeko tresnak  
 Mozorroak · Papertegia  
 Kiroleko eta mendiko jantziak  
 Moda · Oinetakoak  
 Laneko arropa · Bitxiak  
 Lurrin-denda  
 Kosmetika, Elektronika  
 Telefonoak · Poltsak eta mailetak  
 Etab.

T. 608 016 052  
 San Andres, 66 - NARBARTE  
 (Sarrera Legasatik)

**JOSENEA ZONE AUTO**

**ZURE ZERBITZURA:**

- Boniketo
- Erreparazio
- Direkzio
- Erretirak
- Dieta eduztza
- Erretirak
- Erretirak

**KALITATEKO MANTENTZE-LANAK PREZIORIK ONENEAN**

Garbiketa-zentroa    Gasoldegia    Auto-garbitegi automatikoa    Tailer mekanikoa

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez: **+34 608 791 971**

+34 948 599 236 · [www.josenea.es](http://www.josenea.es) · [centrauto@josenea.es](mailto:centrauto@josenea.es)

TAILERRAREN ORDUTEGIA: Asteleheneetik ortziralerara: 09:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00 · Gasolindegia ORDUTEGIA: 24ordu/24  
 Josenea Zone Auto (Dantzarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantzarinea Nafarroa.



Duela 12 urte hasi zen Jaurena Ordokiko 4x4 triala antolatzen Arizkunen. R. OSKARIZ

# «Baztanen 4x4 trialerako afizio haundia sortu da»

**ANDRES JAURENA AZKARRAGA** ORDOKI 4X4 TRIALEKO ANTOLATZAILEA

Ordokiko 4x4 trialaren X. edizioa egin dute abuztuko azken asteburuan Arizkunen eta ekimenaren sorreraz eta garapenaz mintzatu da TTIPI-TTAPA Jaurena antolatzaillearekin

**R. OSKARIZ** ARIZKUN

Ordoki 4x4 trialeko antolatzaillea da Andres Jaurena Azkarraga arizkundarra. Abuztuaren 27an eta 28an egin zuten ekimenaren X. edizioa Ordoki industrialde ondoan, 27 ibilgailuk parte hartu zuten eta jende andana bildu zen bertan.

**Noiz egin zenuten lehenbiziko aldiz Ordokiko 4x4 triala?**

Duela 12 urte hasi ginen Ordoki 4x4 triala antolatzen, 2010ean. Azken bi urtetan ezin izan dugu egin eta aurten hamargarren edizioa izan dugu.

**Nola sortu zen ideia?**

4x4 ibilgailu ttiki bat nuen eta horrekin buggy bat egitea bururatu zitzaidan, eta kit bat

erosi nuen horretarako. Aldaketa egin genuen baina ez zuen IATA pasatu eta ezin izan nuen homologatu, eta tailerreko zoko batean utzi nuen. Doneteben hemen baino urte bat lasterrago egin zen triala eta orduan pentsatu nuen «hautsi dezagun autoa». Saltoak egiten eta astokeriatan aritu ginen eta arras gustura ibili ginen. Gero Bizkaian egin zen proba batera ere joan ginen,

**«ANTOLAKUNTZAN HERRIKO GAZTEEN LAGUNTZA HANDIA DUGU»**

eta aunitz gustatu zitzaigun. Gu bezala, herri ttikitto batean antolatu zen, eta pentsatu genuen guk hurrengo urtean horrelako zerbait egingen genuela. Lagunak ezagutu genituen eta nola egiten zen azaldu ziguten, eta horrelaxe animatu ginen egitera, 3-4 lagun elkartuta.

**Nola aldatu da geroztik?**

Hasmentan Ordokiko industrialdean bertan egiten genuen,

**«AURTEN JENDETTA BILDU GARA ETA GIRO POLITA IZAN DUGU»**

eta hor izan zen lehenbiziko sei urteetan. Etxetik hurbil genuen eta erosoagoa zen dena muntatzeko, baina ez zegoen desnibelik eta pista urtero egin eta desegin behar genuen. Industrialdea betetzen hastean, eraikinak egin zituzten eta lekurik gabe gelditu ginen. Orain Latadia etxeko eremuetan egiten dugu eta naturalagoa da, desnibela eta zuhaitzak ditu... truko gehiago egiten ahal dira. Horrez gain, nahiko hobetu da; ibilgailuak hobetu dituzte, jende gehiago etortzen da, azpiegitura landuagoak ditugu, aseguruak egiten ditugu pilotu eta publikoaren dako, ambulanzia bat dugu... dena hobetu da.

**Lan handia da?**

Bai, ez du iduri baina lan handia du gibeletik. Hilabete bat lehenagotik hasten gara aseguruak eta dena programatzen. Gainera, autofinantzatzeko lagunen eta hurbileko negozioen laguntza behar izaten dugu. Afizioa handia eta enpresaren bat duten batzuk aunitz inplikatzeko dira.

**Eta antolakuntza lanetarako ere jendea beharko duzue, ez?**

Bai, lantalde polita gara eta herriko gazteen laguntza haundia dugu; txukun portatzen dira, zerbitzari eta epaile lanetan aritzen dira, basura biltzen, aparkalekua antolatzen... 15 gazte inguruko taldea dugu. Afarria eta kamisetak ematen dizkiegu ordainetan.

**Orokorrean trialerako afizio handia badago?**

Bai, Arizkunen eta Baztanen 4x4rako afizio haundia sortu da.

**Nola funtzionatzen du trialak?**

Asteburuan elkartzeko gara partaideekin eta larunbat arratsaldean hasten da lehiaketa. Igande goizean bigarren txanda egiten da eta gero balorazioa egiten dugu; puntuazioak konparatu, akatsak, penalizazioa, denborak... laburpen bat egiten dugu eta gero podiuma egiten dugu irabazleekin, opariak ematen dizkiegu, zozketak egiten ditugu...



### Zenbat kategoriatan aritzen dira parte-hartzaileak?

Lau kategoria ditugu. Lehenbizikoa kotxe homologatuena da, errepidean ibiltzen direnak, matrikulatuak. Bigarrena modifikatuena, pixka bat hobetuak, zirrika haundixeagokoe-kin, adibidez. Hirugarrena ibilgailu promodifikatuena da, nahiko hobetu direnak; suspentsio altuagoe-kin, iraulketarik ez izateko barrekin... eta azken kategoria prototipoena da, ongi prestatutako ibilgailuak; aitzineko eta gibelako direkzioarekin, blokeoekin...

### Eta ongi ibiltzen dira trialeko pistatik?

Bai, zona bakoitza lau kategoriendako prestatua dago eta koloretan banatzen da; xuria, horia, beltza eta gorria. Hasi aitzinetik solasaldi bat egiten dugu partaideekin eta nola funtzionatzen duen azaltzen diegu, bakoitzak zein koloretatik ibili behar duen jakiteko. Desberdintasunak hain handia ematen ez badute ere, dena kalkulatu dago lau kategoriak pasatzeko eta pista makil eta koloreekin markatzen dugu. Europan egiten den Eurotrialetik hartu ditugu arauak, gureak ez dira hain zorrotzak, baina erreferentzia gisa balio izan digute.

### Nola baloratuko zenuke aurtengo edizioa?

Arras ona, jende kopuru polita ibili da eta denborak lagundu du. Ostaturarekin paratu dugu, autofinantzatzeko balio



27 ibilgailuk parte hartu dute guzira aurtengo Ordoki 4x4 trialan. OSKARIZ

diguna, eta ongi saldu da. Etekin ez da arras handia izanen, baina heldu den urtean segitzeko bai. Gustura ibili gara, ez dugu arazorik izan Sepro-arekin ongi portatu baikara, nahaste handirik egin gabe. **Bi urte geldirik egon ondotik, jendea gogotsu egonen zen aurtengo trialerako, ez?**

Bai, denak gogotsu ginen eta bertze urtetan baino jende gehiago elkartu gara asteburuan. Partaideen aldetik ere

inoiz baino gehiagok parte hartu dute; bertze urtetan 18-20 ibilgailu izaten dira eta aurtun 27 izan ditugu. Gu kontent gelditu gara, giro polita izan dugu eta lagunekin elkartzea eta trago batzuk hartzea ere goxo izaten da.

### Nongo parte-hartzaileak izan dituzue?

Baditugu Baztango hiru edo lau, baina aunitz etortzen dira Bizkaitik, Gipuzkoatik, Burgoetik... Galiziatik ere etorri

izan dira, baina aurtun ezin izan dute. Ez dira hain urrunekoak, baina jendea mugitzen da, bai.

### Urte aunitzez segitzeko asmoa duzue?

Bai, trabarik paratzen ez badigute bederen bai. Eta hengo gazteen aldetik segida izanen duela ikusten dut, nire semeek ere afizioa dute eta laguntzen aritzen dira eta urte dezentez segituko duela pentsatzen dut.

**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**  
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuarekin
- Tratamendu estetikoak, armaia eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

**Centro Médico Bera**  
San Esteban 17, Bera

**Telefona: 610 549 507**

**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Itzurrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)  
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es @liderahortzklínika

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**

Jarrai gaitzazu!

**facebook**  
[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)

# Nafarroako konkistari buruzko liburua idatzi du Pedro Esartek

XVI. mendeko prozesu zibilen bidez lortutako informazioarekin, konkistaren historia birkontatzen du Esartek

## TTIPI-TTAPA

Pedro Mari Esartek *Relato Sociológico de la Conquista de Navarra 1512-1524* liburua argitaratu berri du. 1978 eta 2001 urteen bitartean Nafarroako Artxibo Orokorrean egin zituen ikerketen emaitzak biltzen ditu liburuan, eta bertez historialariek gaiari buruz errandako gezur eta akatsak zuzentzea bilatzen du. Ezagutzen dugun Nafarroako konkistaren kontaketa gezurtatzen du, XVI. mendeko prozesu zibilen bidez lortutako informazioarekin benetan gertatutakoa kontatzen saiatuz.



Pedro Mari Esarte liburuararekin.

## Harakina ofizioz, historialaria afizioz

Baztango historiari, politikari eta kulturari arras lotua dagoen pertsona da Pedro Mari Esarte Muniain (Elizondo, 1936) eta Nafarroako eta Baztango historiaren aztertzailer nagusietakoa da gaur egun. Bertako historiari buruzko 30 liburu eta publikazio baino gehiago idatzi ditu; Nafarroako Artxibo Orokorrean

ikertzen emandako milaka orduen emaitza zuzena.

Ttikitatik etxeko harategian egin izan du lan Esartek, eta kontrabandoan ere lagundu zuen harategiko kamionetaz baliatuz. Elizondoko alkatea izan da bi aldiz, baita udaltzeko zinegotzia ere, eta eragin handia izan du bailarako politikan eta historian. Azpimarratzekoa da bere lanetan Baztango historiari egindako ekarpenak.



SILVIA URSUEGI

## Giro ederrean ospatu dituzte bestak Zigan

Bi urteren ondotik bestak ospatzea arras berezia izan da, jendea gogotsu zegoen eta denok arras ongi pasatu genuen. Momentu aipagarria izan zen zikiro ondoan hauek prestatzen aritzen diren herritarrei egindako omenaldia, eta opari bana eman genion bakoitzari.

## Irailaren 10ean Basaburuaren Eguna ospatuko dute Anizen

### MAITANE MARITORENA

Irailaren 10ean Basaburu kuartelaren eguna ospatuko dugu Anizen. Hala ere, aitzineko egunean, ondare immateriala bildu eta babestea helburu duen Labrit multimediala kide den Gaizka Aranguren etorriko zaigu *Vitagra-ma, memoria biziaren* kontu solastatzerat. Familiakideen memoria betiko atxikitzeo Labrit Multimediasortu duen formatuaren berri emanen digu, 19:00etan Mendiarte elkartearen. Biharamunean, 08:00etako mendi itzuliarekin



Basaburuaren Eguna 2019an Zigan.

hasiko dugu eguna. 11:00etan mus txapelketa izanen da frontoian, eta 12:00etan haurren herri kirolak Plaxa-xarren. 14:30ean bazkaria eta ondotik dantzaldia Hauspolariekin.

**asegi asesorías**  
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6

31700 ELIZONDO

T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1

31780 BERA

T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22

31740 DONEZTEBE

T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Eltzeta, 20

31770 LESAKA

T. 948638077

## Iruritako III. Mendi Duatloia azaroaren 22an egingen dute

Iruritako duatloia hirugarren edizioa egingen dute azaroaren 22an. Bertan parte hartzeko izen-ematea bezpera arte egiten ahalko da, *kirolprobak.com* webgunearen bidez. Bakarkako proba egingeko 20 euro ordaindu behar dira eta errelebokoa 30.





# Presta zaitez negurako ... Berritu zure leihoak

Aprobetxatu dauden diru-laguntzak,  
gestioekin lagunduko dizugu!


**THERMOFIBRA**  
by deceuninck

Uf 0.88 (W/m<sup>2</sup> K)



Energia-eraginkortasun handiko leihoak

**deceuninck**








LIERNI OTEIZA

## Oronoztarrak gustura herriko bestetan

Herriko gazteen artean eta auzolanean antolatutako bestak fruitu ederrak eman dituzte. Hainbat adinetako jendea nahasturik, alaitasun eta giro sanoan bizitu genituen bestak. Esker mila debalde.com herriko txarangari egunero herria alaitzeagatik! Gora Oronoz-Mugairi eta auzolana!



IZASKUN ALMANDOZ

## Lekaroztarrek ere giro polita izan dute

Bi urteren ondotik gogo haundiarekin hartu ditugu lekaroztarrok herriko bestak eta nabaritu dugu, kristoren giroa izan baitugu. Arras gustura ibili gara, antolatzaileok lan pila egin dugu eta emaitza ona izan da, herriko jendea kontent gelditu da.

## Emozioz bizitu dituzte bestak Amaiurren bi urteren ondotik

### ANE GOIENETXE

Igandean 20:00etan botatako suziriaren ondotik, herriko frontoia bete eta baztan zopekin hasi ziren bestak. Hiru urteren ondotik berriz ere frontoia eta plaza bete ziren abuztuaren 14an. Bisitari aunitz hurbildu ziren artzain

zakurren txapelketara, eta giro ederra izan genuen plazan dantzaldiekin. Larunbateko zikiro jatearekin eman genien bukaera bestei.

Besta batzordetik esker mila Amaiurrerat hurbildu zaretenoi eta bestak antolatzen lagundu duzuen herritar guzioi!



Giro polita izan zuten amaiurtarrek herriko bestetan. UTZITAKOAK

**ZIGA**  
ELEKTRIZATEA

**647 77 31 33**

Eguzki plaken instalazioak,  
argiztapen-azterketak  
eta elektrizitate lanak orokorrean



# Zaindu maite duzun hori...

## Zein da zuzena



### Nola erran?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

#### aurkitu ≠ bilatu

Aurkitu eta bilatu ez dira sinonimoak nahiz Hegoaldean, maila arruntean inoiz balio berean erabili. Ohitura nagusiaren arabera, bata (bilatu) bertzea (aurkitu (= topatu)) lortzeko ahalegina da.

- Aurkitu dut galdu zaidan ardia.
- Bilatu du, baina ez du aurkitu.

#### \*'Zer polit' edo 'Zer polita'?

Galdetzaile denean ez bezala (Zer etxe?), zer harridurazkoarekin doan izenkia artikulua erekin ematekoa da:

- \*Zer polit! > Zer polita! (edo Nolako polita!, Zein polita!, Bai polita!...).
- \*Zer begi! > Zer begia! (edo Nolako begia(k)!, Hori(ek) begia(k)!...).

### Hizki zopa

Irailarekin batera, ikastetxeetara bueltatu dira irakasleak eta ikasleak. Bilatu eta aurkitu ikasturte hasierarekin lotutako hamar hitz.

K	I	S	J	L	O	M	I	W	X	B	E	J	B
C	M	C	A	B	N	O	K	N	E	X	J	T	W
M	A	N	T	A	L	T	A	Y	I	H	M	Y	M
F	M	J	Y	Z	H	X	S	E	X	B	T	O	R
M	A	B	X	N	J	I	I	S	O	O	J	Y	M
B	R	C	Y	V	B	L	K	X	M	O	Y	G	A
Q	G	I	R	A	K	A	T	S	I	P	P	M	I
T	O	R	K	O	A	D	E	R	N	O	A	A	S
H	A	R	B	E	L	A	W	A	G	K	H	Z	T
H	N	S	O	S	E	S	T	U	Y	X	E	J	R
Q	R	C	C	A	V	R	H	A	B	C	K	D	A
L	A	P	I	T	Z	P	Y	E	S	Q	M	L	P

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...  
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eu



744 48 43 61



Aspaldiko partez joko besta berreskuratu zuten bestetan. KORO ETA MARIFA



Apar bestarekin ederki gozatu zuten haurrek eta gaztetxoek. KORO ETA MARIFA

## Bi urteren buruan bestaz gozatu dute herritarrek

Aspaldixkotik egiten ez zen joko besta berreskuratu dute aurtengo bestetan

### KORO ETA MARIFA

Desafio handia genuen aurtengo bestetan, eta ez bakarrik bi urteren buruan berriz antolatuak zirelako, baizik eta besten antolatzaileak berriak eta franko gazteak izan direlako, eta erran beharra dago arras ongi eta fin aritu direla. Gainera, aspaldixkotik egiten ez zen joko besta berreskuratu dute, eta orain arte ez bezala, txosnan ogitartekoak eskaini dituzte.

Bertzalde, programatik kanpo, herri bazkari bat antolatu zuten abuztuaren 17an, non 30 bat lagun elkartu ziren.

«Esperimentu bat» izan omen zen, eta ondoko urteetan berriz antolatu ala ez ikusiko dute.

Gainerakoan, sentsazio gazi-gozoa izan genuen 17ko arratsaldean hasi eta 18an egun osoz gelditu ez zen euriarekin. Euria behar-beharrezkoa zen, baina agorrilaren 17ko Txamukos mariatxi taldearen kontzertua izorratu zigun, baita hondar eguneko zikiro eguna konplikatut ere. Baina bon, garrantzitsuena lurra busti eta bazterrak berdetzen hasi zaizkigula da.



Herritarrek zikiro jaterako prestaketetan. KORO ETA MARIFA



Eskearen egunean, Axkoa etxean. KORO ETA MARIFA

### Bake epailearen postua hutsik gelditu da

Abuztuaren 16an hutsik gelditu zen herriko bake epailearen postua. Orain arte, eta azkeneko hamabi bat urteotan, Margari Etxenike aritu da lan horretan, eta orain utzi egin du, udalarekin izan dituen desadostasunak direla eta.

### Bote luze txapelketa Etxartean

Abuztuaren 6an lau talde bildu ziren Etxartea auzoan bote luze txapelketa jokatuzko: Sara, Etxalar, Angelu eta Zugarramurdi. Angeluarrek irabazi zuten, baina garrantzitsuena joko zahar horretan aritzea izan zen.







Jende andana bildu zen Burdinaren Egunean. ARANTXA ETA IRAIA



Ohiko egitaraua berreskuratu zen Burdinaren Egunean. ARANTXA ETA IRAIA

## Udan ez da mugimendurik falta izan

Tortilla lehiaketa, burdinaren eguna eta herri kirol ikuskizuna izan dira udako hitzordu nagusiak

### IRAIA ETA ARANTXA

Udan antolaturiko ekitaldiak arrakastatsuak izan dira. Uz-tailaren 23an izandako tortilla lehiaketan guztira 18 tortilla aurkeztu zituzten. Kategoria tradizionalan Abel de Lucas izan zen garaile. Kategoria librean, aldiz, Geva Halsouetek irabazi zuen saria eta profesionalean, azkenik, azken urteetan bezala, Lapitxurik eraman zuen saria. Aurtengo bitxikeria bezala, badirudi kategoria tradizional eta librean kanpotarrak nagusitu direla herritarrei. Heldu den urteko gure teknikak hobetu beharko!

Abuztuaren 6an izandako burdinaren egunean ere ez zen mugimendurik falta izan. Aurten, joan den urtean ez bezala, urteroko egitaraua itzuli ginen. Jende andana bildu zen, bai goizeko azokan eta ekitaldian baita ondotik antolaturiko zikiroan ere. Azkenik, eguna mariatxien musikak alaiturik borobildu zuten giro ederrean.

Abuztuaren 20an herri kirol ikuskizuna ere izan genuen. Herri kirolen emanaldiaz gain, sagardo eta sardina dastaketa izan zen. Ekitaldi honekin finitu zen udako agenda.



Tortilla lehiaketako sarituak. ARANTXA ETA IRAIA



Herri kirol saio ederraz gozatzeko aukera izan zen abuztuaren 20an. ARANTXA ETA IRAIA

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
RESTAURACION

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera

**Montxo**  
JATETXEA • ERRETEGIA  
@asadormontxo

Axular, 12 - Antzanborda - URDAZUBI - Tel.: +34 848 85 00 21



Zazpiak Bat taldeko dantzariak buruilaren 12an ariko dira. Argazkia iazkoa da. GANEX

## Bestak buruilaren 10etik 14ra iraganen dira

Bortz egunez klase anitzetako musikaz gozatzeko aukera izanen da, eta kirolari lotutako hitzordurik ere ez da falta izanen

### TTIPI-TTAPA

«Tradizioa esta berrikuntzak uztartuz» eta besten «arima mantenduz» herritar guztientzako bestak prestatu ditu besten komiteak. Buruilaren 10ean, larunbatarekin, hasi eta 14an finituko dira eta plazara hurbiltzeko gomita egin dute.

### Buruilak 10, larunbata

09:00etan BTT lasterketa, 20 edo 30 kilometroko ibilbideak aukeran. 09:00etatik 19:00etara ball-trap Plaxiden bordan. 17:00etan igerilekuko errebotean Frantziako Pilota Federazioko senior mailako joko garbiko

finala. 17:00etan Sara korrika 10,3 kilometroko lasterkaldia. 17:00etatik 18:00etara esku pilota txapelketa, finalerdiak. 21:00etatik aitzina kontzertuak herriko plazan: 21:00etan Niarawa Batukada, 23:30ean Su Ta Gar eta 01:30ean Gora Herria. 02:00etatik 05:00etara etxera sartzeko autobusak urririk.

### Buruilak 11, igandea

Goizean karriken alaitzea Danborrada Mariñelak gaiteroekin. 10:00etan meza Urruñarrak klikarekin. 10:30ean luzean errebotean partida Luzean eta Zaharer Segi taldeen artean.

16:00etan Zarena Zarelako ikusgarria. 16:30ean desfilea herriko plazan: gaiteroak eta erraldoiak, joaldunak, ahate jokoak eta herri kirolak. 19:00etan aperitifa Altzukutarrak-ek lagunduta. 20:30ean Ixtaklok elektrotzaranga. 22:30ean Tirri and Teryrekin dantzaldia.

### Buruilak 12, astelehena


Goizean karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 10:00etan luzean errebotean Sarako Izarra eta Kapito Harri taldeen arteko partida. 11:30ean Sarako kantariak zahar etxean. 13:30ean Olhain ikastolak antolatutako paella jatea lehengo Keinuko aparkalekuan. 16:30ean gazteriaren jokoak errebotean. 18:00etan esku pilota txapelketako finalak. 18:30ean Zazpiak Bat dantza taldearen ikusgarria. 20:00etan Sarako kantariarekin aperitifa. 22:00etan Kakolak taldearekin dantzaldia.

### Buruilak 13, asteartea

Goizean karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 10:00etan gazteriaren eskutik animazioa ttikientzat. 10:00etan luzean errebotean Spuc eta Nozbait taldeen arteko partida. 17:00etan J.M. Jauregiren landan artzain zakur txapelketa. 19:00etan mutxikoak Kuxkuxtu txarangarekin. 20:00etan Hori Gaua gaztetxean Fusible taldearekin. 22:00etan dantzaldia Kilimak taldearekin. 00:00etan DJ Jotaxo. Gau guzian Kuxkuxtu txaranga karrikak alaitzen ibiliko da.

### Buruilak 14, asteazkena

Goizean karriken alaitzea gaiteroekin eta txistulariekin. 09:00etan trinketeko zabaldegian azienda lehiaketa. Sarako laborarientzat 1.700 euro arteko primak. 11:00etan plazan haurrentzako puzgarriak eta zaldi gainean ibilaldiak. Eurirekin kiroldegian. 17:00etan plazan esku huska partida eta trinketean eta plazan bertso saioa Amets Arzallus, Haira Aizpurua eta Oier Urreiztorekin. Julene Etxeberri gai jartzailea. 19:00etan zozketa. 19:30ean Aire Ahizpak taldearekin aperitifa. 21:30ean Burrunba elektrotzaranga. 23:00etan su artifizialak. 23:15ean Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.



**JATETXEA-OSTATUA-TRINKETEA**

**Buruilaren 10etik 14ra**

**MENU BEREZIA 28€**

- Ahuntz gasna entsalada
- Serrano xingarra, ogi eta tomatearekin
- Piper omeleta
- Idi tripakiak
- Idi saiheskia etxeko patatekin
- Dorada txorizo saltsan
- Bildots gurintxoak pikiloekin
- Txipiroiak bere tintan
- Panna cotta fruitu estaliarekin
- Txokolate goxoa
- Etxeko bounty
- Ardi gasna

**Haurrentzat menua 8€**

- Haragi xehetua edo xingarra patatekin + izozki bola

**TRINKETA PARTIDAK:**

Larunbata 10, finalerdiak 17:00etan eta 18:00etan  
Astelehena 12, finalak: 18:00etan

Tel. (+33) 559 54 22 06  
trinquetpleka@gmail.com




SARARI BALHOREAREN  
ETA LEYALDEAREN  
SARARA EH-SARA  
1195 XIV-IX 1493-AN

Plazan

elkar ikusiko dugulakoan

Herriko Kontseiluak

besta onak opa dizkizue



# Posta zerbitzua lanjerrean ikusten dute herritarrek

Abuztuaren 22ko bilkuraren ondotik, buruilaren 22an bertze bilkura bat egingen dute Lur Berri gelan

## GANEX

Posta bulegoa aintzetan hetsia edo kutxazain automatikoa aldizka hutsik dagoela eta pixkanaka ordutegia murrizten ari direla ikusteak egonezina sortu du herrian. Horretaz aritu ziren abuztuaren 22an Har Hitza taldeak deiturik Lur Berri gelan egin zuten bilkuran. 100 bat jende bildu ziren eta denek beren arrangurak erranzituzten: egun gehienetan posta hetsia dela eta sosa partitzeko makinan dirurik ez dela izaten, hori ezin dela ametitu eta zerbait egin beharko dela. Battitte Laborde auzapezak galde mota andana egin dituztela erran zuen, baina ez dutela hobekuntzarik izan.

Batzuen irudiko, gorago desmartxak egin beharko dira zerbait jakiteko, gobernamentua hasia baita posta zerbitzu pribatua behar dela aipatzen, lan



Abuztuaren 22ko bilkura. GANEX

hori egiteko jende kalifikaturik ez omen dutela atzematen. Hala, bildutakoek eskaera bat egitea deliberatu zuten. Buruilaren 22an bertze bilkura bat egingen dute Lur Berri gelan, 19:00etan.

## 100 bat erakusle bildu dira kukusu merkatuan

### GANEX

Uztailaren 23an eta 24an kukusu merkatua iragan zen herrian. 100 bat erakusle etorri ziren beren gauza ederrekin, eta jende ainitz ibili zen horiei begira errebotean. Baina ez dut uste erosle ainitzik bazenik...



## Lehen sorospenen formakuntza urrian eta hazilean

### GANEX

Herriko etxeak lehen sorospenen (1. maila) formakuntza proposatu du UDPS64 elkar-tearekin, 18 urtetik goiti duten herritarrentzat. Urriaren 8an eta hazilaren 5ean iraganen dira, bakoitzean gehienez hamar presuna. Izen emateak [ccas.saran@gmail.com](mailto:ccas.saran@gmail.com) edo herriko etxean egin beharko dira. Prezioa 55 eurokoa da. Norberak 20 euro ordaindu beharko du eta gainetakoa Sarako CCASak bere gain hartuko du. Izena ematen duten lehen hamarrak hartuak izanen dira.



GANEX

## Herriko artisten margolanak

Larrungo koloreak taldeko kideek hainbat erakusketa egin dituzte uda honetan. Tartean, abuztuaren 23an eta 24an, bi egunez egun osoan errebotean beraien lanak jende aitzinean erakutsi zituzten. Kontent gelditu ziren, eguraldia alde zutelako eta jende ainitz bildu zelako.



GANEX

## Lau elkarten erromeria umore ederrean

Sarako Izarra errugbi eta pilota elkarteek, Zazpiak Bat dantza taldeak eta Urtxintxa eskubaloi elkarteak antolatuturik erromeria egin zuten abuztuaren 6an. Arratsean 300 lagun bildu ziren afaltzeko. Paella aski ona eta ausarki eman zuten eta dena umore onean joan zen.

## San Josepe eskolaren abuztuko hitzordua

San Josepe eskolako haurren burasoen antolatuturik, abuztuaren 7an ekoizleen merkatua iragan zen. Bakoitzak bere jatekoa hautatu eta ordainduz, hor berean egin zuten afaria. Jende ainitz bildu zen eta eguna umore onean joan zen.





Megaswing jazz emanaldiak 200 lagun bildu zituen Larrekon. JL BESSONART

## Musika klasikoa gustuko dutenentzat aukera aste honetan

Buruilaren 8an, ortzegunarekin, Ravel festibalaren kari bi emanaldi izanen dira elizan

### JL BESSONART

Puntako hiru kontzertuk osatu zuten abuztuko hilabetea. Megaswing jazz emanaldiak 200 behatzaile bildu zituen Larreko kultur gunean. Sekulako musika emanaldia eskaini zuten espresuki Parisetik etorritako artistek.

Nola ez aipa Donostiako Orfeoik elizan eman zuten goi mailako ikuskizuna, 400 kideren aitzinean. Abiadura ezta iduri zuen Fauréren *requiem* delakoarekin, baina *crescendo* joan zen ikusgarria eta bukaera bikaina bilakatu zen, bi aleluia eta azkeneko

*Agur Jauna* xoragarriak eskaini ondoan.

Ravel festibalaren denboraldiak ere elizan egin zuen geldialdia abuztuan. Ravel Akademiaren ekimenez konpositore ospetsu euskaldunak bere bidaietan, bereziki Suitzan eta Italian, sorturiko obrak eskaini zituen. Eta aste honetan Ravel jaialdiaren kari bertze bi ikuskizun izanen dira elizan. Buruilaren 8an, ortzegunarekin, 18:00etan, Maurice Ravelen obrekin izanen da lehen emanaldia, eta 21:00etan Mozart eta Schuberten musika entzungai.



JL BESSONART

## Otsantz kaperako ibilaldia

Santa Madalena Egunarekin, erretore etxean den Jakobia Senpere tokitik, 30 bat kidek bidea hartu zuten Otsantzeko kaperara. Bertze batzuk auzo herrietatik joan ziren, eta 150 presuna elkartu ziren kaperaren gerizapean. Clement Johannak zintzur bustitzea eskaini zuen.



JL BESSONART

## Blokeatze eguna

Bake Bidea eta Bake Artisauen galdeari erantzunez, uztailaren 23an 1.700 kidek parte hartu zuten 13 gunetako bide nagusia blokeatzeko lanetan. Ion, Jakes eta Unairen askatzea aldarrikatu zen ozenki. Gure inguruan, Azkaineko bidegurutze nagusian emana zen hitzordua eta jendalde polita bildu zen.

## Amotzeko besten itzuliaren ondotik Santa Madalena heldu den urteari so

### JL BESSONART

Amotzeko bestek sekulako jendetza ekarrarazi zuten, gazte komiteak programa bikaina jarri zuelako. Uztailaren 13an, asteazkena, ball-trap ezin bukatuzko gau besta bilakatu zen; ortzeguna kirolarien eguna izan zen AmotzRaid lasterketarekin;

ortziraleko zikiro jatean 450 afaltiarrek gaitzeko giroa sortu zuten. Larunbat arratseko kontzertuek aspaldiko errekorrak gainditu zituzten partehartzailen aldetik. Igandean, bero zakarra izanik, eztxeago iragan ziren ekitaldiak; halere, umore ona nagusi izan zen.



Musika taldeek jende ainitz bildu zuten Amotzeko bestetan. JL BESSONART



# IKASTURTE HASIERA 2022



## Kurtso berria gogoz hasteko prest

Ikasturte berria hasteko garaia dugu iraila, udako atsedenaldiaren ondoren indarberriak ekiteko eguneroko erronka berriei. Batzuentzako eskolan hasteko ordua da; gelakideekin berriz ere elkartzeko edota lagun berriak egiteko ordua. Bertze batzuentzako errutinara bueltatzeko unea da, lankideei udan egindakoa kontatzeko edota gainerakoek egindakoa inbidiaz entzuteko. Gauza berriak probatzea gustuko dutenentzako, ikastaro berri bat hasteko momentu paregabea da hau. Hizkuntza, instrumentu edo denbora-pasa berriren bat hasi nahi dutenek eskaintza zabala daukate eskuragarri, eskualdean ditugun zerbitzuekin.

Udako egun luzeak etxetik kanpo eta geldirik egon gabe pasatu ondoren, berriz ere barnean eserita edota ordenagailuaren aitzinean orduak pasatzeko denboraldia ailegatu da aunitzentzako. Ariketa fisikoa egitea eta gorputza zaintzea garrantzitsua da, eta herriko kiroldegian izena ematea edo kirol berriren bat probatzea horretarako aukera ona izan daiteke; lagunekin baldin bada, hobe.



Ikastaroen inguruko informazioa  
kiroldegian eskuragarri

**IRAILEAN AUKERA EZIN HOBEA:**

- Irailean bazkide egiteko sarrera DOHAINIK IRAUNKORTASUNIK GABE.
- BAZKIDE izanda ikastaroetan sartzeko LEHENTASUNA eta prezioetan ABANTAILAK izanen dituzu.

**AniKote**

Amazabal Kalea, 39 LEITZA  
T. 948 510 719

**KAGU  
LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EDUNKARIAK, ALDIZKARIAK



LIBURU-DENDA  
PAPER-DENDA  
MARGO-DENDA  
JOSTAILU-DENDA

- 📍 Ikasturte berria hasteko ikasmaterialetan aukera zabala!
- 📍 Neurri guztietako paper termiko biribilkiak.
- 📍 Tonerrak eta tintak enkarguz.

Kanttonberri 4 • Bera • Tel.: 948 630 626  
papeleriaigone@gmail.com



• NURSTUDIOPILATES •

PILATES  
K-STRETCH  
GAHF HIPOPRESIBOAK

**2022-23 IKASTURTE HASIERA  
URRIAREN 10ean**



Erreserba egiteko epea  
Irailaren 15era arte whatsappaz edo e-Postaz  
627 039 233 • nurfuejo@gmail.com

Rosa Seminario 7 • DONEZTEBE



## sare akademia

DBH

- MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA

BATXILERGOA

- MATEMATIKA

LEHEN HEZKUNTZA  
- ERREPORTZU KLASEAK

Talde txikitak eta jarraipen pertsonalizatuak.

INFORMAZIO GEHIAGO:

T. 915581458 (Nerea)

Emaila: akademiasare@gmail.com

ELKARRITZEA IRABIA DUGU!

## GILTXAURDI

UDAL KIROL INSTALAZIOA

Igerilekuak  
Jacuzia  
Gimnasioa  
Gune termala

**Irailaren 16an hasiko  
da denboraldi berria!**

**Kirol-jardueren informazio guztia  
eta izen-emateak web orrian  
irailetik aitzinera.**

Spinning, aerobik, Jumpin Fitness,  
Hit-Core, tonifikazioa, Pilates, yoga,  
luzaketak, meditazioa, haur zein  
helduendako igeriketa ikastaroak...



Giltxaurdi 38, ELIZONDO | Tel. 948 45 23 01  
giltxaurdi@baztan.eus | www.giltxaurdi.eus



**Charly Speratti**  
Seiryu dojoa

**«Arte martzialek  
gorputzaren,  
buruaren eta  
espirituaren  
arteko harmonia  
bilatzen  
laguntzen dute»**

2015ean hasi zen Charly Speratti hainbat herritako polikiroldegietan arte martzialeko klaseak ematen; Beran, Lesakan, Donezteben, Igantzin... «eta joan den urteko abuztuan Seiryu dojoa irekitzea erabaki nuen, Donezteben finkatuta». Akademiak irakasle bat eta bi instruktore ditu eta bertan hainbat aktibitate eskaintzen dituzte; alde batetik arte martzialak haur, gazte eta helduentzako (Kick boxing, Muay thai, K1, Jiu jitsu brasildarra) eta bertetik aurten gehitutako muskulazio, fitness eta nutrizio aholkularitzako zerbitzua.

Argentinarra da Speratti eta bertan egin zuen bere prestakuntzaren gehiengoa, «Hombres de Honor akademiako partaidea naiz». Hala ere, formakuntza «etengabea» dela dio eta klase magistralak, mintegiak eta prestaketak jasotzen segitzen du; «arte martzialak etengabe bilakatzen ari dira eta eguneratua egon behar da». Azken aldian, adibidez, Sergio Maravilla Martinez bederatzi aldiz munduko boxeoa txapeldunarekin eta Marcus Bucheca hamahiru aldiz munduko Jiu jitsu brasildar txapeldunarekin aritu da.

**Arte martzialak, gaizki  
ulertutako kirola**

Egungo gizartean, arte martzialak «tabu» direla dio, «jendeak indarkeriarekin lotzen baititu, baina ez da horrela inondik ere ez. Arte martzialek baloreak irakasten dituzte:

diziplina, konstantzia, konpromisoa, autokontrola, berteenganako errespetua, norbere burua hobetzea, integritatea...». Gehitu duenez, «arte martzialen egiazko esentziaren eta telebistan, filmetan zein lehiaketetan ikusten dugunaren arteko nahasketa bistakoa da. Arte martzialean jarduten hasten den pertsona ez da bortizagoa bihurtzen, kontrakoa baizik; estres guttiago dauka, lasaiago dago eta gauzak bertze modu batez ikusten ditu. Gorputzaren, buruaren eta espirituaren arteko harmonia bilatzen laguntzen dute arte martzialek».

Haien seme-alabak horrelako klaseetara eramateko beldurra duten gurasoei adierazi nahi izan dienez, «bizitzan arriskuak ditugu etengabe, eta haur batek arte martzialak ikastea, guk irakasten ditugunak edo bertze edozein motatakoak, egin dezakeen gauzarik onena da. Izan ere, onura fisiko, psikologiko eta soziologikoak amaigabeak dira. Horregatik, osasun adituek gero eta gehiago gomendatzen dituzte horrelako kirolak haurrentzako zein helduentzako.

Azkenik, jendea «arte martzialak probatzera, konfort-gunetik ateratzera eta sentsazio berriak bizitzera» animatu du. «Arte martzialak hagitik onuragarriak dira eta aldaketa handiak egin ditzakete maila pertsonalean zein sozialean. Gure atek irekiak daude probatu nahi duten guzientzako, ez du inporta adinak ezta egoera fisikoak ere. Nahi bada, lortu daiteke».





Ana Tovar  
YOGA



### YOGA, AEROYOGA ETA MEDITAZIOA

- Doneztebe
- Zubieta
- Elizondo
- Bera



679 210 910

Informa zaitetz gure ordutegiez



## PROMOZIOA

Irailaren  
10ean eta 11n  
abonatu gero

**-60%** deskontua  
matrikulan



www.lesakakoudalkiroldegia.com  
Komentu kalea, 2 - LESAKA - T. 948 637 400 - kiroldegia@lesaka.eus



## DOJO SEIRYU

Kick Boxing - K1  
Muay Thai - Brazilian Jiu Jitsu

Muskulazioa - Fitness  
Nutrizio-aholkularitza

**22/23** denboraldirako  
matrikulazio epea irekia



Elizagibela, 1 - Doneztebe  
Informazio gehiago 651 744 490 edo 608 313 700

**Haurrak - Gazteak - Helduak**

# 2022-2023

**TOKI ONA UDAL KIROLDEGIA**  
Neguko kirol programa

**IZEN-EMATEAK**  
Irailaren 12tik 22ra  
Kiroldegiko bulegoan  
11h - 14h / 16h - 21h

Etorri **irailaren 19tik 22ra**  
eta nahi dituzun  
aktibitate guztiak probatu

- Crosstraining
- GAP
- Pilates
- Gazte Fitness
- Zumba
- 3. adinentzako gimnasia
- Strong
- Ciclo
- Crosskids
- Dantza MIX txiki
- Dantza MIX ertaina

**ZURE  
MOMENTUA  
GAUR DA**

**SAS  
TRAKO**

KIROL ZERBITZUAK  
Berako Toki Ona Kiroldegia



Tel. 948 630 215 / 662 300 763 | [info@sastrakokirola.eus](mailto:info@sastrakokirola.eus)





Language school



**Esperientzia eta berrikuntza  
elkarren eskutik**

**Ingeles ikastaroak**

**Haurrentzat 6 urtetik aurrera:**

• Jolasean ikasteko

**Nerabeentzat eta helduentzat**

- Eskolan laguntzeko
- Ahozko hizkuntza, entzumena, irakurmena eta idazmena lantzeko
- B1 eta B2ren prestakuntzarako

**Leitzako errepidea, 90 Doneztebe  
INFO • Tel. 615 70 68 02**



**acQrn**

Quality Language Learning



**Ingeles, frantses, aleman eta euskara ikastaroak**

Helduentzat, gaztetxoentzat eta haurrentzat

Enpresentzat ikastaroak

Azterketa ofizialak - Itzulpenak

- Udako ikastaroak atzerian
- DBH edo Batxilergoa atzerian
- Unibertsitateak atzerian
- Boluntariotzak atzerian

**Matrikulazio epea zabalik eta plaza mugatuak**

**Koskontako bidea, 11 behe LESAKA  
628 19 53 22 [www.acornlanguages.com](http://www.acornlanguages.com)**

**ENGLISH  
ESKOLA**

**ELISA  
HUARTE**

**Bertako irakaslea**

**Lehen Hezkuntzako 4. mailatik  
batxilergoko 2. maila arte.**

**Eskolako laguntza.**

**Mendinueta, 8 Elizondo - T. 657 707 230**

## Zergatik ikasi hizkuntza berri bat?

Begi-bistakoa ematen badu ere, globalizazioaren erdian, etxean edo ikastetxean ikasten ditugun hizkuntzaz gain hizkuntza berriak ikasteak aukera berriak zabaltzen dizkigu: bidaiak, ahozko komunikazioan edota komunikazio idatzian trebatzea, negoziatioak... Hala ere, horiek ez dira hizkuntza berri bat ikasteko arrazoi eta onura bakarrik.

Ikerketa psikologikoen baieztatu dutenez, bertze hizkuntza batzuk erabiltzeak edo ikasteak hainbat onura ekarriko dizkigu maila kognitiboan. Zentzu horretan, atzerriko edozein hizkuntza ikasteak, berdin ikaslea haurra edo heldua izan, ondorio positiboak ekarriko dizkio osasun mentalean.

### Garunaren funtzionamendua hobetzen du

Garunak, ikasten ari garen hizkuntza horretan esanahiak ezagutu eta lotu behar ditu, eta, aldi berean, mezua armatzeko eta modu ego-

kian erantzuteko kode bat aukeratu behar du. Elkartze-trebetasun horrek, norberak bertze esparru batzuetan izan ditzakeen arazoak konpontzeko duen trebetasuna ere estimulatzen du, egoera bera hainbat ikuspuntutik erreparatzeko gaitasuna areagotuz.

Pertsona eleaniztunek trebetasun handiak dituzte gai batetik bertzera modu mentalean aldatzeko. Ezaguri hori, konparazio batera, nabarmen garatzen da itzultzaile edo interprete gisa aritzen direnengan. Hau da, momentu berean zeregin bat baino gehiago gauzatzeko gaitasuna izugarri garatzen dute.

Gainera, atzerriko hizkuntza bat ikastearen arrazoi eta onuren artean memoria estimulatzea dago. Hainbat azterlan eta ikerketek erakutsi dute hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duten pertsonen aukera gutiago dituztela gaixotasun degeneratiboak izateko, hala nola dementzia edo Alzheimerra.



**JOSEPHINE'S**

20 ENGLISH 13

MATXIA

Lokale berria!

Pedro Azcar Kantxa, 2 (Elizondo)



**Lehen hezkuntza  
5. mailatik goiti  
DBH eta Batxilergoa  
(B1 eta B2)**

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ [josephinesenglish@gmail.com](mailto:josephinesenglish@gmail.com)





Maila absolutuko finalean parte hartu zuten kirolariak. Erdian, txuriz txapela lortu duten arantzarrak. TTIPI-TTAPA

## Arantzak irabazi du Herriz Herri Txapelketako finala

Araxes taldeak irabazi zuen 21 urtez azpikoen lehiaketa, eta baita bigarren proba konbinatua ere

### A.LARRETXEKA

Añorbeko frontoia bete-betea zela jokatu zuten abuztuaren 27an Nafarroako Herriz Herri Txapelketako finala. Uztailean hasi zen txapelketa, eta maila absolutuan lau jardunaldi eta gazteen mailan hiru jardunaldi egin ondotik jokatu zuten finala Añorben. Ikuskizun ederra ikusi zuten finalera bertaratutakoek, lehia estua izan baitzen, batez ere maila absolutuko finalean.

Eskualdeko taldeak protagonista izan ziren finalean, 21 urtez azpikoen mailan talde bakarra aritu zen, Igan-

tzi, baina maila absolutuan eskualdeko lau talde aritu ziren: Arantza, Arraioz eta Basaburua lehen proba konbinatuan, eta Arantza eta Sunbilla bigarren.

21 urtez azpikoen txapelketarekin abiatu zen finala. Araxes, Berriozar, Antsoain eta Igantzi aritu ziren nor baino nor, eta aitzineko jardunaldi guztietan bezala Araxes nagusitu zen Añorben ere 16.36ko denbora eginda. Bigarren postua Berriozarrek (17.20) eskuratu zuen, hirugarrena Igantzik (18.25) eta laugarrena Antsoainek (19.47).

Hiru jardunaldietako denbora gehituta, Araxesek eskuratu zuen 21 urtez azpikoen mailako garaipena, eta beraz, baita txapela ere. Bigarren postuan Berriozar sailkatu zen, hirugarrenean Antsoain eta laugarrenean Igantzi.

### Final estua

Gazteen jardunaren ondotik, maila absolutuko finala jokatu zuten. Bi proba konbinatu jokatu zituzten, lehenengoan, txokorrak biltzen, 20 kiloko zakuarekin lasterka, aizkoran, lasterka eta arpanean aritu behar izan zuten parte hartzaileek.

Final estua izan zen. Hasieran Basaburua abiatu zen lehen postuan, baina, Arantza pixkanaka denbora janean joan zen bertze taldeei, eta azkenerako arantzarrak nagusitu ziren emozioz beteriko finalean. 23.56ko denbora egin zuten arantzarrak, eta horien gibeletik gelditu zen Araxes 22 segundora (24.18).

Arraioz izan zen hirugarrena 25.03ko denbora eginda, eta Basaburua laugarrena 26.10eko denborarekin.

Bigarren proba konbinatuan talde bakoitzeko bi parte hartzaile aritu ziren. Ingude altxatzea eta txinga eramatea egin behar izan zituzten eta Berriozar, Araxes, Sunbilla eta Arantza aritu ziren lehian. Kasu horretan Araxesek eskuratu zuen garaipena. Bigarren gelditu zen Berriozar, hirugarren Sunbilla eta laugarren Arantza. Sunbillatik Itxaso Arrieta ingudearekin eta Ander Oskoz txingekin aritu ziren eta Arantzako taldean aldiz aldiz Iñaki Mikelarena *Arrixko* ingudearekin eta Ainhoa Etxegarai txingekin.

Talde nahikorik ez zela eta Nafarroako Herri Kirol Federazioak 2018tik ezin izan du Herriz Herri txapelketa antolatu. Lau urteren ondotik, zazpi taldek hartu dute parte maila absolutuan eta lauk 21 urtez azpikoetan, eta jendetza hurbildu da jardunaldi guztiak ikustera. Finalean lehiatutako taldeez gain, Goizuetako taldeak ere hartu du parte txapelketan.

## JENDETZA BILDU ZEN AÑORBEN JOKATUTAKO FINALA IKUSTERA

## Joseba Larralde eta Ainhoa Etxegarai txapeldun Kontrabandisten Lasterketan

### TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 28an jokatu zuten Saran Kontrabandisten Lasterketa. 32 lasterkarik hartu zuten parte eta Joseba Larralde beratarrak irabazi zuen laugarren aldiz segidan, 41.31ko denborarekin. Guillaume Levoy izan zen bigarre-

na eta Mathieu Gachen hirugarrena. Ainhoa Etxegarai beratarra izan zen parte hartu zuen emakumezko bakarra eta 55 minutu eta 04 segundoko denbora egin zuen.

Goizean Sorgina Trail egin zuten eta Mirentxu Doyhenardek irabazi zuen.



Lasterketako parte hartzaileak abiatu aitzinean. GANEX



42. Laxoa txapelketako talde onenak sari banaketaren ondotik. ONDIKOL

# Doneztebek irabazi du Baztan-Errekako 42. Laxoa Txapelketa

Abuztuaren 6an Bear Zana plazan jokaturako finalean, herriko The Moment taldeak 9-1 irabazi zion Irurita Migeleneri

## TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Lau hilabeteko txapelketaren ondotik, Laxoa Elkartek 42. aldiz antolatutako Baztan-Errekako laxoa txapelketaren finala jokatu zuten abuztuaren 6an Doneztebeko Bear Zana plazan Irurita Migelene eta Doneztebe The Moment taldeek. Joan den urteko txapel-duna aitzinean izanagatik ez ziren kikildu doneztebarrak eta 9-1 argi batekin nagusitu ziren. Txapelketako partida guztiak irabazi dituzte.

Irurita Migelene taldean Xabi Barberena (sakalaria), Gorka Urtasun (numeroa), Egoitz

Prim (kuartoa) eta Jagoba Ramos (kuartoa) aritu ziren eta Doneztebe The Moment taldean Julen San Miguel (sakalaria), Paskual Bertiz (numeroa), Jabier Bertiz (kuartoa) eta Koldo Legarra (kuartoa). Lau txapeldunak ederki aritu ziren, baina batez ere azpimarragarria izan zen Julen San Miguelen partida bikaina.

Goizean hirugarren posturako partida zuten eta Arraioz Sagardiak 9-4ko emaitzarekin irabazi zion Oizko taldeari. Arraioz Sagardia taldean Mikel Mindegia (sakalaria), Xabi Mihura (luze), Jon Gamio



San Miguel jokoan. ONDIKOL

(motz) eta Miguel Maritorea (motz) aritu ziren eta Oizko taldean, berriz, Ioritz Zelaieta (sakalaria), Iker Bereau (luze), Ugutz Zelaieta (motz) eta Lau-rendi Zelaieta (motz).

## LAXOA TXAPELKETA

TXAPELDUNAK	
1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA
2017	IRURITA
2018	DONEZTEBE
2019	IRURITA
2020	ARRAIOZ
2021	IRURITA

## Gazteen laxoa txapelketan ere Doneztebe nagusitu zaio Iruritari

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Abuztuaren 13an jokatu zuten gazteen laxoa txapelketako finala Bear-Zanan. 0-4 eta 2-6 galtzen joan ondotik, Doneztebe A (Lander Arozena, Koteto Ezkurra, Ekai Elortza, Lukas Ezkurra) 7-6 nagusitu zitzaion Irurita Bri (Julen Eli-

zainzin, Izai Urrutia, Aitor Ripa, Oihan Braña).

Hirugarren postua erabakitzeko partidatan Doneztebe Bk (Jon Larunbe, Javier Zabala, Iker Anzizar, Ander Retegi) 7-5 irabazi zion Irurita Ari (Kaiet Iribarren, Eneko Irazoki, Oihan Arraztoa, Mikel Iñarra).



Gazteen laxoa txapelketan parte hartu dutenak, sari banaketaren ondotik.





Latasa Sarian parte hartu zuten kirolariak. JUAN MARI ONDIKOL

## Atutxa eta Otaño nagusi Sunbillan XIX. Latasa Sarian

Beteranoen arteko lehia, Arrospidek eta Ugarteburuk irabazi zieten Peñagarikano eta Donato Larretxeari

### TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Aitzol Atutxak eta Eneko Otañok osatutako bikoteak irabazi zuen abuztuaren 13an jendez gainezka zegoen Sunbillako frontoian Ramon Latasa zenaren omenez heme-retzigarren urtez antolatutako saria. Hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako mozteko lanean

30 minutu eta 19 segundo behar izan zituzten. Julen Alberdi *Txikia IV.a* eta Ugaitz Muger-tza bigarren izan ziren (31.52). Hirugarren postua Mikel Larrañagak eta Jon Rekondo leitzarrak lortu zuten (34.40) eta, ustekabean, laugarren postua Iker Vicentek eta Jon Irazuk eskuratu zuten (35.05).

### Arrospide eta Ugarteburu nagusi beteranoetan

Beteranoen arteko lehia, azkenean Mikel Mindegia ez zuen parte hartzerik izan eta Joxemiel Peñagarikano aritu zen Donato Larretxearekin batera, Anjel Arrospide eta Joxe Ugartebururen kontra. Azken hauek izan ziren lau kanaerdiko eta 45 ontzako bi enborrak moztzen bizkorrenak. 9 minutu eta 39 segundo behar izan zituzten eta Peñagarikano eta Larretxeak 10 minutu eta 31 segundo.

Emakumezkoen arteko lehia, Irati Astondoa eta Laie-ne Pikabea, Nerea Sorondo beratarrak eta Uxue Ansorregi baino bizkorragoak izan ziren. Metrokolau enbor moztu behar zituzten eta irabazleek 10 minutu eta 21 segundo behar izan zituzten eta galtzaileek 13 minutu eta 8 segundo.

Harri-jasotzen azkenik, 137 kiloko kubikoarekin eta 200 kiloko laukizuzenarekin bina minutuko txandetan lehia aritu ziren Aimar Irigoien eta Jon Unanue Goenatxo III.a. Bi altxaldiko abantaila eman zion Irigoienek Goenatxori eta halere nagusi izan zen Irigoien, 15 altxaldi eman baitzituen eta Goenatxok 11.

## Indakotxea, Etxeberria eta Mindegia bigarren mailako finalean

**TTIPI-TTAPA ARANTZA/DONAMARIA** Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatu zuten abuztuaren 13an Arantzán, bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat nork lehenago moztu. Irailaren 18an Uhartean jokatu den finalean eta Xuban Kañamarek (10.05), Zubietako Mikel Indakotxea (10.10), Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria (10.28), Goizeder Belza (10.39) eta Zubietako Patxi Mindegia (10.51) izanen dira. Finaletik kanpo gelditu dira Iban Resano, Emilio Garcia, Oier Larretxea, Iker Gorriti, Iosu Santamaria eta Jon Telletxea.

Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketaren finala Donamarian jokatu zen abuztuaren 14an eta Baionako Ibai Telletxea izan zen txapel-dun, Etxarri Aranatzeko Aritz Oiarbide bigarren, Itsasuko Patxi Igoa hirugarren, Berako Endika Goia laugarren eta Urdiango Amets Aristizabal bosgarren.



UTZITAKOA

### Ainhoa Etxegarai lokotxetan txapeldun

Nafarroako emakumezkoen lokotx biltze txapelketa jokatu zen abuztuaren 13an Arantzán eta Ainhoa Etxegarai beratarrak lehen aldiz txapeldun suertatu zen (7 minutu eta 28 segundo). Eltsoko Ainhoa Iraizoz (7.42) eta Iturengo Maika Ariztegi (7.50) sailkatu ziren ondotik.



UTZITAKOA

### Unai lantzik borzgarren txapela

Nafarroako gizonezkoen lokotx biltze txapelketa jokatu zen abuztuaren 14an Donamarian. Unai lantzi aniztarrak izan zen onena eta 6 minutu eta 13 segundo aski izan zituen 50 lokotxak biltzeko. Berroetako Asier Gamio izan zen bigarren (7.05) eta Sunbillako Eneko Herrera hirugarren (7.24).



BADOK.EUS

### DONAMARIA Dorrealdia festibala

Txomin eta Urbil Artolaren kontzertua eta Korrontziren ikuskizuna.  
Jauregian irailaren 9an eta frontoian 10ean, 20:00etan. Sarrerak 12 eurotan papeleriatamayo.com-en.

### AZOKAK

#### ELIZONDO

##### Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, irailaren 10ean eta 17an, 10:00etatik 14:00etara.

#### ERRATZU

##### Erratzuko artisauak

Plazan, irailaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, 11:00etatik 14:30era.

### MUSIKA

#### SENPERE

##### Maurice Ravelen obren emanaldia

Elizan, irailaren 8an, 18:00etan.

##### Mozarten eta Shuberten obren emanaldia

Elizan, irailaren 8an, 21:00etan.

#### LEITZA

##### Alarma Morea talderaren kontzertua

Torrean, irailaren 8an.

#### IGANTZI

##### Kantauri Abesbatzaren kontzertua

Elizan, irailaren 9an, 20:00etan.

#### GARTZAIN

##### Baztan Kantuz

Plazan, irailaren 18an, 12:00etan.

### JARDUNALDIAK

#### ANIZ

##### Basaburuaren Eguna

Mendi itzulia, mus txapelketa, herri kirolak, bazkaria eta dantzaldia.

Irailaren 10ean, 08:00etatik aitzinera.

#### DONAMARIA

##### Dorrealdia festibala

Txomin eta Urbil Artolaren kontzertua eta Korrontziren ikuskizuna.

Jauregian irailaren 9an eta frontoian 10ean, 20:00etan. Sarrerak 12 eurotan papeleriatamayo.com-en.

#### LEITZA

##### Talo Eguna

Artisauen azoka, talo txapelketa eta omenaldia Kristina Saralegiri. Plazan, irailaren 11n, 10:00etatik 14:00etara.

### SOLASALDIAK

#### LEITZA

##### Euskararen erabileraren inguruko gogoeta

Euskara zerbitzuarekin. Herri Aretoan, irailaren 13an, 19:00etan.

#### ARRAIOZ

##### 'Hezurrezko kaiolak' olerki-liburuaren aurkezpena

Hasier Larretxearekin. Elizan, irailaren 16an, 19:30ean.

### IKUSKIZUNAK

#### BERA

##### Granollerseko eta Ataungo dantzariaen ikuskizuna

Merkatu plazan, irailaren 10ean, 18:00etan.

#### LEITZA

##### 'Bidaide' antzezlan

Metrokoadroka konpainia. Herri Aretoan, irailaren 11n, 19:00etan.

#### LESAKA

##### 'Eresia. Lurra arin bekizu, ama' antzerkia

Harriondoan, irailaren 18an, 19:00etan. Sarrerak 5 eurotan lesaka.eus-en.

### ERAKUSKETAK

#### ELIZONDO

##### 'Memoria bat, mila kolore. Gaztelu bat, mila irudi'

Arizkunenean, uztailaren 8tik urrira arte.

##### Tomas Sobrinoren ikasleen lanak

Arizkunenean, irailaren 5etik 11ra.

##### Icía Muñozen pinturak

Arizkunenean, irailaren 19tik urriaren 13ra.

#### LEITZA

##### Ramon Zabalegiren erakusketa

Herri Aretoan, irailaren 19tik 25era.

### BERTZELAKOAK

#### DONEZTEBE

##### 'Xake txapelketa

Casino elkartearen, irailaren 10ean, 10:00etan.

#### LESAKA

##### Mendi bizikleta itzulia

Harriondoatik, irailaren 18an, 09:00etan.

#### IRURITA

##### 'Apaiz kartzela' filma

Gizarte Bilgunean, irailaren 22an, 19:00etan.



## Nire aukera

## «Amalurrak zentzumenak elikatu, emozioak piztu eta inspiratu egiten nau»

ITZIAR AZPIROZ ALKOZ LEITZAKO ARTISTA



Iruñean bizi den artista leitzarra da Itziar Azpiroz Alkoz. Sormena eta musika beti egon dira presente bere bizian, eta «naturarekiko zaletasun handia» duenez, artelanak sortzen ditu hiru hauek uztartzuz.

### Eskulanetan ttikitatik

«Betidanik gustatu izan zait sortzea eta birziklatzea, opariak eskuz egiteaz; landareak prentsatzan eta itsastan adibidez orri-markatzaileak edo postalak egiten nituen».

Autodidakta da eta bere kabuz ikasi du dena egiten; «barrutik sortzen dena eta momentuak eskatzen didana egitea gustatzen zait. Pertsonalizatu behar badut, pertsona horri begira sortzen dut, bere nortasunaren arabera».

Azken 4-5 urteetan lagunentzako koadroak egiten hasi zen landare eta hosto leho-

rrekin, eta «leiho ttikitatik abiatuta, itsaso, fauna eta ingurugiroaren edertasuna eta errespetua lantzen duten konposaketa lanak egitera iritsi naiz».

«Leihoen markoekin jolas-tzen dut eta leihatil bakoitza film bateko eszenatxo bat izan daitekeela pentsatzen dut, baina denon arteko lotura apurtu gabe».

### Lanen erakusketak

Duela hiru urte hasi zen 'Naturaren leihoak' proiektua pres-tatzen, eta 2021eko maiatzean aurkeztu zuen bere lehenbi-

**«NATURAREKIKO ZALETASUNA ETA SORMENA UZTARTZEN DITUT»**

ziko erakusketa Koke Ardaiz eskultorearekin batera Iruñeko Ingurumen Hezkuntza Museoan.

«Ardaizek ere naturaren elementuak erabiltzen ditu, enborrak adibidez, eta elkarrekin Amalurrak bizia islatzen duela adierazi nahi genuen, nahiz eta aldakorra eta iraungaitza izan, gure modu xumean iraunkortasun bat ematen saiatzen garela gure lanen bidez».

Honez gain, «nire ezaugarri bat bezala, lanetan eguzki dindaiak azaltzen saiatzen naiz, nolabait irudikatuz. Garoa ere asko erabiltzen dut».

### Harrera «ezin hobea»

Erakusketak «oso harrera ona» izan zuen eta hiru erakusketa gehiago egin ditu geroztik Azpirozek; 2021eko abenduan Iruñeko bus geltokian, 2022ko urtarrilean Aretxabalateko Karrape kultur etxean eta azkena ekainean Leitzako Herri Aretxean, Koke Ardaizekin batera berriz.

«Leitzako jendearen erantzuna bereziki hunkigarria izan zen; eskolakoak eta Okille tailerrekoak gonbidatu nituen eta bisita gidatuak egin nituen. Giro polita sortu zen, haurren hausnarketak, ikusten eta sentitzen zutena, oso berezia zen, eta askok berriz ere errepikatu zuten. Oso eskertuta nago eta horrek motibatu nau Larrainzarren hurrengo erakusketa bat jartzera urrian».

### Musika ere uztartuz

Azpiroz ez da diziplina artistiko bakarrera mugatzen; «ttikitatik musika entzun izan dut etxean eta kantatzeko zale-

tasun izugarria genuen. Horrek asko markatu nau eta hainbat abesbatzetan abesten aritu naiz. Duela urte batzuk bakar-ka abesten hastera ere animatu nintzen».

Kantu eta sormen zaletasunak «fusionatu» nahi ditu bere erakusketetan; «Leitzan Amurizaren bertso bat kantatu nuen haurrekin eta ederra izan zen. Hor ikusi nuen haur eta nerabeekin konektatzeko moduak daudela, eta beraiek proposatu zidaten tailerrak egitea, kanta gehiago sartzeara... hurrengo erakusketan kantu saio bat prestatu nahiko nuke».

### Natura inspirazio iturri

Naturako elementuak erabiltzen ditu bere lanetan; «Amalurrak zentzumenak elikatu, emozioak piztu eta artea sortzera inspiratzen nau».

Hori da bere erakusketan erakutsi nahi izan duena; «'Naturaren leihoak' Amalurrarekiko miresmena eta zaletasunak sortutako proiektu artistikoa da, sormena eta kantua batzen dituen».

### Etorkizunera begira

«Kantuzaletasuna eta artea» elkartzeaz gain, bertze hainbat helburu ditu Azpirozek etorkizunerako; «ipuinak kontatzen aritzen naiz boluntario gisa eta horrek ere umeei bisita gidatu bereziak egiteko aukera ekartzen dit; kontakizunak, elkarren artean sortutako istorioak, Amalurrarekiko elkartasuna... didaktikoki ere etekin bat ateratzen saiatuko naiz eta ikasteko baliogarria izatea espero dut».

Azkenik, «nire xalotasunetik konbitea zabaldu nahiko nuke bakoitzak ditugun dohain horiek, txikiak badira ere, beldurrik eta aurreiritzirik gabe azaltzera eta konpartitzera. Pixkanaka ausartzea, trukea sustatzea eta harremanak garatzea, berdin du non, gauzak amankomunean egitea».

**«TTIKITATIK MUSIKA ENTZUN IZAN DUT ETXEAN»**

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI



**IGANTZI.** 85 m<sup>2</sup>ko pisu zaharberri-tua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldea bizbat eginak, bainugela 1, balkoia, trastelekua eta garajea-ekin. Argitsua. Interesatuek goiz eta arratsaldez deitu. ☎649 11 06 11.

**BERA.** Pisua salgai. Izpoz, 16-1.esk. 85 m<sup>2</sup>. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Etxe berria. ☎664 36 64 47.

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Irailetik aitzinera, logela bat errentan emateko. ☎676 85 50 56.

**LESAKA.** Etxebizitza atxiki ttiki bat (adosatua) errentan emateko. ☎628 03 25 58.

#### ERRENTAN HARTZEKO

Irungo bikote euskaldunak etxea, pisua edo baserria errentan hartuko luke Bortziriak, Malerreka edo Baztan inguruan. 600-800 euro ordaintzeko prest, berme guztiekin. ☎693 69 49 76.

Bikote gazte batek, lan kontuengatik denboraldi luzerako etxebizitza errentan hartuko luke Bertizarana-Donztebe-Baztan aldean. Ez zaie inporta zerbait moldatu behar bada. ☎633 49 19 96 / 646 69 04 73.

**LESAKAN** edo **BERAN** errentan hartzeko pisu bila. ☎640 65 04 22.

**BAZTAN**en (Elizondon nahiago) logela bat edo 1-2 logelako pisu edo apartamentu ttikia errentan hartu nahi dute. ☎612 46 74 71.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Garajeko marra errentan emateko, Beheko Plazan. ☎ 675 71 43 60.

**DONEZTEBE.** Ostalaritzako negozioa errentan emateko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Bi lagunendako aproposa. Aparkatzeko leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.

### LANA

#### ESKAINTZAK

**IRUN.** Irun kanpoaldean dagoen Ola sagardotegian zerbitzari bila ari dira.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

Urte osoan, lanaldi osoan aritzeko, 40 ordu. [olasagardotegia@hotmail.com](mailto:olasagardotegia@hotmail.com).

**BERA.** Kotxeen tailer batean esperientzia duen mekaniko bat behar dute. Idatzi helbide honetara: [bera-motortaller@gmail.com](mailto:bera-motortaller@gmail.com).

**BERA.** Botxo ostatuan sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar dute, astelehenetik ortziralerara. ☎617 72 34 75.

**BERA.** Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75.

Lozy's Pharmaceuticals goxoki farmazeutikoen enpresan, produkzio arloan lan egiteko langileak behar dituzte. Enpresa honetan garatu nahi baduzu, apunta zaitetz. [xabier.aldunate@lozyspharma.com](mailto:xabier.aldunate@lozyspharma.com).

**DANTXARINEA.** Maspormenosen jendea behar dute lanaldi osoan. Kirol artikulu eta arropa teknikoan

denda. Bidali curriculuma [xabi@maspormenos.net](mailto:xabi@maspormenos.net) helbidera. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute.

**LESAKA.** Atxaspi hotelean langilea behar dute. Lanaldi osoan edo erdian. Bidali curriculuma [hotela@atxaspi.com](mailto:hotela@atxaspi.com) helbidera edo deitu telefonoz. ☎673 33 99 20 / 948 63 75 36.

**BERA.** Errekalde ostatuan sukaldaria behar dute. Idatzi [errekaldeostata@hotmail.com](mailto:errekaldeostata@hotmail.com) helbidera..

#### ESKARIAK

19 urteko neska elizondoarra heldu den kurtsorako lan bila. Haur Hezkuntza ikasteaz gain, haurrak zaintzen esperientziaduna. ☎621 29 71 17.

Berako haur hezitzaile gazte bat haurrak zaintzeko gogotsu. 0-3 urte bitarteko haurrekin esperientzia izanik, irailetik aitzinerako arratsaldeetan zaintzeko prest. ☎638 21 01 89.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,94
- 1.koa 4,82
- 2.koa 4,70

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,05
- 1.koa 4,91
- 2.koa 4,80

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 160,00

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,48/4,78
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,10/8,20
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,50

#### ZERRI-AZIENDAK

##### Zerrikumea (19 kilo): 65 €

##### Zerri gizona 1,726€

##### Zerramak 0,760€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO



**IGANTZI.** Hiru katakume oparitzeko. Lasaia, jendearekin ohituak. ☎695 51 07 54.

### DENETARIK

#### SALGAI




Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Jeep bat eta belarra mozteko segadora handia salgai. Egoera onean biak. ☎666 66 36 42 (deitu 18:00etatik aitzinera).



Mondraker Ventura Racing bizikleta salgai. Hagitz egoera onean. 380 euro. ☎649 47 19 76.




Yamaha P45 B piano digitala salgai la erabilii gabea. 350 euro. ☎649 47 19 76.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.



## BERTZELAKOAK



**SUNBILLA.** Aita arotza nuen eta orain urtebete pasatxo hil zen. Berak egindako oheburukoa 90eko ohe baterako da, baina nik dudana 150ekoa da. Arotzen bat topatu nahiko nuke konponketaren bat egin eta oheburuko hau ohe handira moldatzeko. ☎652 74 74 61.

**DONEZTEBE.** Ostalaritzako negozioa eskualdatzeko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Bi lagunendako aproposa. Aparkatzeko leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.

Michellin Energy 175/65R 14 autoen gurpil berriak salgai. 5 gurpil: 4+1 ordezkioa. Laurak 80 eurotan bakoitza (+7 euro bidali behar baldin bada). ☎687 92 64 14.

## GALDU-AURKITUAK



**BERA.** Weimar Braco arrazako galdu zen abuztuaren 18ko eguerdian. Azkenekoz Ansoña hostalaren inguruan ikusi zuten. ☎684 29 64 35.

## MOTORRAK

## SALGAI



**ITUREN.** Toyota Rav4 Sol 4x4 salgai. Egoera onean. ☎639 43 95 09.

## IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak>

Peugeot 5008 auto beltza salgai. 7 urte ditu eta 59.000 kilometro. Tindatu berria. Doneztebeko Sampi Aragon tailerlean ikusgai.

## TAILERRAK

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

**RENAULT KANGOO 1.5 DCI 75 (2 PLAZAKOIA)**  
44.200 Km. - 2015koa  
[www.taileressantesteban.com](http://www.taileressantesteban.com)  
DONEZTEBE - T. 948 430 282  
[info@taileressantesteban.com](mailto:info@taileressantesteban.com)

**Mendaur Motor**  
Leitzako bidea • DONEZTEBE  
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak   
**TOYOTA SUZUKI**

**SUZUKI GRAND VITARA**  
1.9, 129CV

**MITSUBISHI MONTERO**  
3.2, 170 CV

[www.mendaurmotor.com](http://www.mendaurmotor.com)

## URTEBETETZEAK



**Sara Gomez Ribeirok** 3 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partetik, bereziki Nahiaren partetik. Muxuak.



Elizondoko **Unax Legarrea Arnalek** 4 urte bete ditu abuztuaren 22an. Aunitz urtez *pollite!!!* Espero dugu egun berezia pasatu izana eta egunero bizitzaz gozatzea!!! Animaleko besarkada etxekoan partez, bereziki Eiderren partez!



**Araitx Mitxelena Loinez** igantziarrak 6 urte bete ditu abuztuaren 11n. Zorionak etxeko neskatxari!!! Sei muxu erraldoi denen partetik!!!



**Leirek eta Naiak** urteak beteko dituzte irailaren 1ean eta 15ean. Zorionak bikote! Lesakako eta Irungo familiaren partez muxu pottolo bana!



Leitzako **June Urkiola Mariezkurrenak** 10 urte bete zituen abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu hauuundi bat Lide, Izargi eta Haizederren partetik!




**Erik Juanena Bertizek** 3 urte bete ditu irailaren 2an. Zorionak eta aunitz urtez etxeko ttikiari Urroz eta Labaiengo familiaren eta bereziki Iraia eta Oihanen partez.



Zubietako **Arhane** eta **Unaxek** urtea bete dute abuztuaren 30ean. Aunitz urtez etxeko bi bihurritxoei eta musu haundi bana!



Arantzako **Suhar Sorli Lizardi** 3 urte bete ditu irailaren 5ean. Haunditzen haunditzen ari zara, txapelduntxo. Zorionak familia guztiaren partetik! Aunitz matte zaitugu!



Lesakako **Xabat Andueza Arruabarrena** etxeko ttikiak 2 urte bete ditu irailaren 3an. Zorionak *mañoño!* Muxu handi-handi bat familiaren partez!



Iturengo **Haritz Ariztegi Gorosterrazuk** irailaren 16an 8 urte beteko ditu. Aunitz urtez Mikeleneko familiaren eta bereziki amaren partez. 8 mila muxu.

## Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

**Internetez** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

**Bulegoan eta postaz**

Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

**Whatsappez** 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

OROIGARRIA



**Miguel  
ARTIEDA TELLETXEA**

Beran, 2022ko abuztuaren 13an,  
95 urte zituela

---

*Magalean egiten zenituen jolasak,  
erraten zenituen  
esaldi xeibre bezain baliagarriak...  
Aunitz bizitu eta aunitz utzi diguzulako.  
Beti gure oroitzapenetan.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Frاند Luis  
RAMOS LASAGA**

Lesakan, 2022ko uztailaren 22an

---

Lagun ederra, aita bikaina  
Langilea ta apala  
Zoritxarrean gure artetik  
Joan zara berehala  
Baina hutsune hau hartuko dugu  
Gero arte bat bezala  
eta bitarte horretan lurrak  
Goxoki hartu zaitzala.



ZURE KUADRILLA

URTEURRENA



**Jose Mari  
BARRENETXE LERTXUNDI**

2020ko irailaren 5ean  
II. URTEURRENA

---

*Beti gure bihotzean.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



**M<sup>a</sup> Carmen  
ERRANDONEA GAMBOA**

Sunbillan, 2022ko abuztuaren 8an

---

*Bere senar eta alabek,  
bilobek eta gainerako ahaideek  
eskerrak eman nahi dizkiote  
Lisseth zaintzaileari  
bere arretagatik eta maitasunagatik.*



ZURE FAMILIA

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
**948 63 54 58, 744 48 43 61 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)**

- ▶ **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**  
Ttipi-Ttapa aldirikarian + ERRAN.EUSen: 100 euro  
Ttipi Txartela dutenek % 10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

**IRACHE**  
tanatorioak

**Nafarroako familien zerbitzura 1976tik**

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



**IZARRA**  
HERRI, ZURE OROIGARRIAK  
ARTEA A TU LARRO

**Gure lurra,  
gure jendea,  
gure sustraiak**

 **24 h** Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**948 05 90 90** [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)



**TANATORIOAK**

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI



**BAZTAN  
BIDASOA**  
Heriotza Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3  
[web: funerariabaztanbidasoa.com](http://web:funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

Betiko taldea zu laguntzeko



## HILBERRIAK

- **Jean Claude Sarda**, Sarakoa, uztailaren 16an, 82 urte zituela.
- **Frans Luis Ramos Lasaga**, Lesakakoa, uztailaren 22an, 31 urte zituela.
- **Beatriz Sagaseta Ariztegi**, Lesakakoa, uztailaren 22an, 86 urte zituela.
- **Nazario Urrutia Azpiroz**, Arraiozkoa, uztailaren 22an, 75 urte zituela.
- **Visitacion Aldabe Mitxeo**, Iturengoa, uztailaren 22an, 96 urte zituela.
- **Carmelo Mitxelena Irazoki**, Lesakakoa, uztailaren 24an, 82 urte zituela.
- **Mª Josefa Loiarte Aranburu**, Berakoa, uztailaren 26an, 87 urte zituela.
- **Martin Anzizar Iriarte**, Sunbillakoa, uztailaren 27an, 93 urte zituela.
- **Mª Carmen Goienetxe Bereau**, Lesakakoa, uztailaren 28an, 87 urte zituela.
- **Mª Pilar Martikorena Arburua**, Elizondokoa, uztailaren 29an, 51 urte zituela.
- **Fidela Lurnagarai Iriarte**, Elizondokoa, uztailaren 30ean, 92 urte zituela.
- **Mª Carmen Perurena Garbisu**, Doneztebekoa, uztailaren 30ean, 91 urte zituela.
- **Jose Maria Razkin Rodriguez**, Leitzakoa, abuztuaren 2an, 75 urte zituela.
- **Fernando Lete Lezeta**, Erratzukoa, abuztuaren 3an, 67 urte zituela.
- **Maritxu Telletxea Irureta**, Donamariakoa, abuztuaren 4an.
- **Maritxu Oharriz Arretxea**, Gartaingoa, abuztuaren 4an, 88 urte zituela.
- **Jesus Mari San Juan Zubieta**, Berakoa, abuztuaren 4an, 75 urte zituela.
- **Mª Antonia Urtasun Santesteban**, Iruritikoa, abuztuaren 4an, 94 urte zituela.
- **Micaela Urtasun Etxekolonea**, Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 5ean, 80 urte zituela.
- **Maritxu Aginaga Arribillaga**, Berakoa, abuztuaren 6an, 92 urte zituela.
- **Felipa Irigoien Bikondoa**, Gartaingoa, abuztuaren 6an, 88 urte zituela.
- **Mª Josefa Garralda Telletxea**, Iturengoa, abuztuaren 6an, 92 urte zituela.
- **Marcelino Barberzugi Bikondo**, Arizkungoa, abuztuaren 6an, 70 urte zituela.
- **Mª Carmen Errandonea Gamboa**, Sunbillakoa, abuztuaren 8an.
- **Joxe Mari Zabaleta Zabaleta**, Leitzakoa, abuztuaren 8an, 77 urte zituela.
- **Mª Lourdes Apezetxe Ariztia**, Iruritikoa, abuztuaren 8an, 91 urte zituela.
- **Juanita Ormart Garbalena**, Gartaingoa, abuztuaren 8an, 88 urte zituela.
- **Jose Mitxelena Abanz**, Lesakakoa, abuztuaren 9an, 93 urte zituela.
- **Basilisa Iribarren Iribarren**, Doneztebekoa, abuztuaren 10ean, 94 urte zituela.
- **Miguel Artieda Telletxea**, Berakoa, abuztuaren 13an, 95 urte zituela.
- **Miguel Arsuaga Donazar**, Urdazubikoa, abuztuaren 14an.
- **Juan Jose Alzuarte Astiz**, Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 15ean, 80 urte zituela.
- **Josefa Etxegia Telletxea**, Urrozkoa, abuztuaren 16an, 94 urte zituela.
- **Agustina Iribarren Iribarren**, Elizondokoa, abuztuaren 18an, 65 urte zituela.
- **Ana Maria Montiel Saenz**, Berakoa, abuztuaren 23an, 75 urte zituela.
- **Francisca Arregi Belarra**, Berroetakoa, abuztuaren 27an, 87 urte zituela.
- **Mª Teresa Iriarte Dorregarai**, Legasakoa, abuztuaren 29an, 96 urte zituela.
- **Rosario Altzугuren Irazoki**, Sunbillakoa, abuztuaren 29an, 90 urte zituela.
- **Jose Antonio Indabere Telletxea**, Legasakoa, abuztuaren 29an, 83 urte zituela.



**OROIGARRIAK**



**KULTURKARI**  
Diseinu grafiko | Publizitatea

Info +:  
Tel: 948 63 54 58  
kulturkari@zpi.eus  
www.kulturkari.com

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

# PLAZAN BAZAN



## BADONK 13

Aurki itzazu bi itsasontzien artean dauden 13 aldeak. Bestalde, itsaspea margotu beharko zenuke, eta marmokak eta arrain batzuk ere marraztu, horrela triste samar dago eta.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiuern)



**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)



**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Keskuntako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**812** zenbakiko  
irabazleak >



**ZOZKETAK**

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera  
Jesus Mari Lukanbio Almandoz | ARANTZA
- Onddo ta punto - Kamiseta bat  
Kontxi Zozaia Agirre | LEITZA
- Ezkeza - Kamiseta bat  
Santi Goienetxe Etxenike | IRURITA
- Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat  
Begoña Martínez Lasheras | LAKAR
- BKZ Abentura - Sarrera bat  
Kontxi Larralde Bengoetxea | IGANTZI
- Lesakako Udal kiroldegia - Bi sarrera  
Amaia Olariaga Arruti | SUNBILLA
- Wow Park - Sarrera bat  
Irene Opoka Ugalde | AMAIUR
- Katxiporreta - Liburu bat eta bi DVD  
M<sup>re</sup> Dolores Labaien Iñigo | ZUBIETA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**BUATXABAL**

[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Kamiseta bat

**MARTIKO**

[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



Lote bat

**MENDUKILO**

[www.mendukilo.com](http://www.mendukilo.com)



Bi sarrera

**IRRISARRI LAND**

[www.irisarriland.com](http://www.irisarriland.com)



Sarrera bat

**OKILLE TAILERRA**

[okilletailerra.blogspot.com](http://okilletailerra.blogspot.com)



Eguzkilore bat

**WOW PARK**

[www.wowpark.fr](http://www.wowpark.fr)



Sarrera bat

**Wowpark**  
Vôtre Parc Aventure



**MU  
SI  
KA**

Bi CD



**airaka**

[www.airakamusic.com](http://www.airakamusic.com)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.baga-biga.eus](http://www.baga-biga.eus)



[www.buatxabal.eu](http://www.buatxabal.eu)



**aek**

euskara praktikoa

LA MEJOR COMPAÑÍA PARA APRENDER

**EUSKARA**

IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA



## Baztango AEK Suinki euskaltegia

**EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA**

**Maila guztiak – Ordutegi guztiak · Todos los niveles y horarios**

**Aurrez aurreko taldeak – Autoikaskuntza**

**Grupos presenciales – Autoaprendizaje**

**B1, B2 eta C1 prestatzeko ikastaroak**

Baztan Berri 7 · 607 605 802 · [baztan@aek.eus](mailto:baztan@aek.eus)

**DIRULAGUNTZAK / BECAS**

**Nafarroako Gobernua/ Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera**  
Posibilidad de optar a ayudas del Ayuntamiento y Gobierno de Navarra.